


goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2012-03-23
EGUBAKOITZA
502. ZENBAKIA
12. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM



Eskolarteko abesbatzen 25. topaketa

Omenaldia egingo diete bihar, zapatua, Arrasaten, ekimenaren bultzatzaile izan zirenei | 14

GEHIGARRI BEREZIA, BARRUAN
Ezkontzen gaineko 12 orrialde | 19



Udako abenturak aurkeztu
dituzte euskara elkarteek | 4



Kantu mitikoak eta berriak batuko
ditu Los Chunguitosek Bergaran | 41



AITZINDARI IZAN DELAKO, OMENALDIA SAGASTUMERI

Gaur egingo diete omenaldi-kontzertua
Bergarako Santa Marina parrokian. | 16

Miguel Sagastume, soinuarekin, Raizabal gozotegian. | EDU MENDIBIL

Erreformaren aurkako hesi sindikala eguenean

Gehiengo
sindikal
abertzalea berriz
elkartu da
martxoaren 29ko
greba deialdia
egiteko | 2



Grebaren kartel iragarleak, kalean. | U.M.

"Kapitalismoak
Asiako lan
merkatura
eramaten
gaitu,
feudalismora"



Nekane Jurado
Ekonomian aditua eta psikologoa | 6

Debagoieneko
lasterketa
esanguratsuen
domekan:
Gorlako Igoera

Orain dela 11 urteko
Contadorren marka
hautsi guran | 37

SINADURAK

Europa krisi osoan | 8

MIKEL LEZAMIZ

31 | Hiru txerri txoak

NESTOR ARANA

Arima errebeldeari | 34

PATXI OLABARRIA

48 | Zenbat urte dituzu?

IDOIA ETXEBERRIA


ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4

ELKARRIZKETA 6 | IRITZIA 8 | HERRIAK 11

KIROLA 37 | KULTURA 39

ZURE IRAGARKIAK 43 | TELEBISTA-IRRATIA 44

EZKONTZAK 45 | ESKELAK 45 | NON-ZER 46



ORDU ALDAKETA

Udako ordutegia estreinatuko
dugu domekan: goizeko ordu
bietan, hirurak izango dira.
Ez ahaztu!

"Zabaltzeaz
dago kiroldetgia,
eta inguruan ez
da izango
halakorik"

ANA BOLINAGA
Aretxabaletako alkatea,
Goiena telebistako
HARIRA saioan | 32



IKER

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
ONATI: San Lorenzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

Lan-erreformaren aurkako hesia egin nahi dute sindikatuek eguenean

Euskal sindikatuek berriz ere bat egin dute grebarako, eta erantzun ona espero dute

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Sindikatu guztiek jendarte osoari egindakoa: horixe da martxoaren 29an greba egiteko deialdia. Krisia hasi zenetik laugarren greba orokor eguna izango da Hego Euskal Herrian, eta Espainiako Gobernuaren lan-erreformaren eta gizarte arloko murrizketen kontrakoa da, eta gizarte eta lan-eskubideen aldekoa.

ELA, LAB, ESK, hezkuntza arloko EILAS eta nekazaritza arloko EHNEk batera egin zuten deialdia; garraio arloko Hiru sindikatuak bat egin zuen deialdiarekin gero. Debagoieneko Aralarrek, Alternatibak, EAk eta ezker abertzaleak babes eman diote greba deialdiari.

CCOO eta UGT sindikatuek euren aldetik ere deitu dute Hego Euskal Herrian eta Espainian.

Debagoienean, dei egin duten sindikatuek -CCOO eta UGT ez beste guztiek- eskualdeko kale-agerraldia egingo dute 18:00etan. Han "ehunka lagun" batu gura dituzte. Bestalde, Bergaran eta Oñatin herri ekimenak sortu dira; Bergaroko herrian egingo du kale-agerraldia, 19:00etan, eta Oñatiko Arrasatekoarekin bat egingo du. Bailaratik kanpo, Donostia aukeratu dute kale-agerraldi nagusia egiteko, eta 12:00etan izango da hori.

CCOO eta UGT sindikatuak batera mobilizatu dira. Donostian, Gasteizen eta Bilbon bi kale-agerraldi egingo dituzte, 12:00etan eta 18:00etan. Greba aurretik, hilaren 27an, Bilboko La Casillan ekitaldia egingo dute, Candido Mendez eta Ignacio Fernandez Toxo UGTko eta CCOOko buruekin. Debagoienean, UGTk auto-karabana egingo du: gaur, egubakoitza, Elgeta, Bergara eta Arrasate zeharkatuko ditu; hilaren 26an, Aretxabaleta, Eskoriaza eta Arrasate; eta hilaren 28an, Arrasaten izango da.

Greba "erantzuna da"

Urtarrila ezker ELA eta LAB sindikatuak nor bere aldetik dabiltzan arren, oraingoan batera protesta egingo dute. Hala, deialdia batera egin zuten, eta ESK, EILAS, CGT-LKN, EHNE eta Hiru sindikatuek manifestu baten azaldu zituzten grebara jotzeko arrazoiak. Besteak beste, ohartarazten dute "eskubide sozial eta laboralaren aurka inoiz ikusi gabeko eraso pairatzen" dabilela jendarte, eta "erreforma laborala eta negozio kolektiboaren taxu bereko beste eraso bat" direla. Lan-erreformaren alde kaltegarrienak azpimarratzen

dituzte: "Kaleratzea erraztu eta merkatzen du; negozioazko eskubidea ahultzen du (erabateko lehen tasuna ematen zaio enpresa-hitzarmenari); malgutasun laborala enpresaren gustura gehitzen da; kontratuak are prekarioagoak izango dira", eta "neurriok guztiok eragin larria dute okerren dauden kolektiboengan". Azaltzen dutenez, Hego Euskal Herrian 200.000 langabe daude, 55.000 familiak behar dute diru-sarrerak bermatzeko errenta EAEn, eta 18.000k, oinarriko errenta Nafarroan. Zerga-politika ere salatzen dute, eta euskal esparru sozioralderaldia aldarrikatzen dute. Greba orokorra "erasoei emandako erantzuna da".

"Alternatiba bakarra da"

Debagoieneko ELAko arduradun Amagoia Lasagabasterren esanetan, martxoaren 29an greba egitea "beharrezkoa eta baliaga-

ria" da: "Eskubide laboral guztiak borrokaren bitartez lortu dira; beharbada ez egun batean eta bitan, baina bai ziklo baten ondoren. Guri inork ez dizkigu hitzarmenak oparitu, guztietan borroka egin behar izan dugu. Greba hau beste hiruren atzetik dator eta ez da azken mobilizazioa izango", iragartzen du.

Gelditu behar ditugu eta Tinko gurean! leloak plazaratu ditu sindikatu horrek. Hona azalpena: "Mobilizazioa da alternatiba bakarra, patronalaren eta kapitalaren nahiak gelditu behar ditugu eta helburu horretan tinko mantenduko gara", esaten du Lasagabasterrek. Eta erantzun ona espero du ELAk: "Jendea haserre dago", esaten du ordezkari horrek.

Langilea, "babesgabe"

Murrizketak, erreforma eta inposaketei aurre egin leloarekin egingo du greba LAB sindikatuak.



Grebaren aldeko kartelak Arrasateko plazako obra baten. | LEIRE KORTABARRIA

Zenbait ekonomia adituk lan-erreformaz esan dutena

ANTTON PEREZ DE CALLEJA
EKONOMILARIA



"Ez dakit hura aplikatzerakoan bukaerara ailegatuko diren"

- ▶ "Lan-erreforma beharrezkoa da. Langileen kaleratzea merkatu egin behar da. Baina lan erreforma enpresaburuek aplikatu beharko dute eta ez daukat horren garbi bukaeraraino ailegatuko direnik".
- ▶ "Epe labur eta ertainean, ez dira lanpostuak sortuko".
- ▶ "Sindikatuak behartuta zeuden greba orokorra deitzera. Lan merkatua aldatzeko sindikatuei bota dizkieten pultsu guztiak galdu dituzte gobernuek".
- ▶ "Kalitate-prezio orea galdu dugu azkeneko 10 urteotan. Edo hori orekatzen dugu, edo enplegua galduko da produktibitatea hobetzeko".

(Goiena papera, 2012-03-16)

EDUARDO ZUBIAURRE
ADEGIKO BURUA



"Gakoa da enpresak ez ixtea, haiek sortuko dutelako lana"

- ▶ "Enpresak luzaroan eskatzen genuen lan-erreforma da. Espainian zegoen lan-araudia eta lan-harremanak oso zurrinak ziren; berritu egin behar ziren, lehiakortasun egoera berrira egokitzeko".
- ▶ "Kooperatibetan beste arau batzuk dituzte, eta gai izan dira egoera berrira egokitzeko, lanposturik ez kentzeko eta berriz eraz kontratatzeko. Zoritxarrez, hori ez da enpresa pribatuan gertatzen".
- ▶ "Aro berri bat dator, eta denok ikasi beharko dugu gauzak beste modu batera egiten".
- ▶ "Gakoa dago enpresa ez ixtean, enpresak sortuko dituelako lanpostuak".

(Goiena telebista, 2012-02-20)

NEKANE JURADO
ADITUA



"Lan-erreforma premiazkoa du kapitalak, soldatak devaluatzeko"

- ▶ "Kapitalarendako premiazkoa da lan-erreforma. Orain arteko eredu ekonomikoak, gizarte ongizatean oinarritutakoak, kiebra egin du".
- ▶ "Patronalaren beharrei erantzuten die lan-erreformak, azkenean, kostu txikiagoko merkatuetara jotzen duelako, etekin handiagoak edukitzeko. Moneta, euroa, ezin daitekeenez devaluatu, soldatak devaluatzen ditu".
- ▶ "Testuinguru horretan, greba ez da beharrezkoa; iraultza behar dugu".
- ▶ "Egun bateko greba orokorrak sistemari ez dio arazorik sortuko. Greba berrasmatu beharra dago".

BALAREN BAKAIKOA
IRAKASLEA



"Kaleratzea erabat merkatu dute, eta emakumea erraz kaleratu ahalko da"

- ▶ "Sindikatuaren erantzuna eta Espainiako enpresaburuen poza ikusirik, argi dago gizartearentzat eta langilearentzat erreforma onuragarria ez dela".
- ▶ "Kaleratzea erabat merkatu dute, eta emakumeak kaleratzea ere oso erraza izango da. Horrek ondorio larriak dakartza gure gizartearentzat: belaunaldien berritzea zailtzen ari da".
- ▶ "Grebaren ondorioak, tamalez, ez dira apartekoak izango".
- ▶ "Borroka ideologiko gogorra hasi zen 70eko hamarkadan, neoliberalismoaren doktrina hedatzen hasi zen, eta horrek irabazi du".

ESANAK

"Eskubide laboral guztiak borrokaren bidez lortu dira; beraz, greba egitea baliagarria da"

AMAGOIA LASAGABASTER | ELA

ESANAK

"Lan-erreformak negoziatio kolektibo guztia hankaz gora jarri du, langilea babesik gabe utziz"

JOSE RAMON KORTABARRIA | LAB

ESANAK

"Eredu ekonomiko justuago baten aldeko greba da, baina borroka ez da hor amaitzen"

FELIX IRIZAR | ESK

ESANAK

"Porrota izango da jende guztia ez bada mobilizatzen, lan-erreformak denoi eragiten digulako"

JULIAN FEO | CCOO

ESANAK

"Eskubideak txikitu egin dizkigute, lan-merkatua enpresen mesederako nahastuz"

MAITE ALISTE | UGT



Donostiako kale-agerraldian parte hartu, eta hegoaldeko beste hiru hiriburuetan ere egingo ditu.

Debagoieneko LABeko ordezkari Jose Ramon Kortabarriak dioenez, "lan-erreformak negoziatio kolektibo guztia hankaz gora utzi du", eta "aurreko erreformatan sakondu" egin du.

Horren ondorioz, "langilea inongo babesik gabe" geratu dela gaineratzen du. Horregatik, LABek greba egitera deitzen du.

Lana banatzea eskatzen dute

Aski da, borroka da bide bakarra leloarekin irtengo da ESK sindikatua. Debagoieneko ordezkari Felix Irizarren esanetan, ESK "eredu ekonomiko justuago baten" alde mobilizatuko da egun horretan. Eta bat egitera deitzen diote jende guztiari. Baina honakoa ere esaten du: "Grebarekin ez da borroka bukatzen. Lan-erreforma eta gizartearen aurka hartu dituz-

ten neurri guztiak atzera bota behar ditugu. Lan-erreforma horrek XIX. mendera bueltatzen du langilea". Hartutako neurrien ondorioz, bere esanetan, "gizartea ahultzen ari da, eta pobrezia eta langabezia hedatzen ari dira".

ESK-k lana banatzea, sektore publikoa indartzea eta erreforma fiskalak egitea proposatzen du.

Kaltea, orokorra

CCOO eta UGT sindikatuek *Dena suntsitu nahi dute* leloa aukeratu dute martxoaren 29ko grebarako, eta Raxoik egindako lan-erreformaren aurka egingo dute. CCOOren Debagoieneko ordezkari Julian Feok azpimarratzen duenez, "denoi eragiten digu; beraz, deialdia porrota izango da jendeak ez badu erantzuten", esaten du.

Erreforma arbuizatzeko

UGTko Debagoieneko arduradun Maite Alisteren hitzetan, "lan-

erreformari ezetz" esan gura diote grebarekin, "langileenganako bidegabea, ekonomiarako eraginik bakoa eta enplegua sortzeko balio bakoa" delako, euren iritziz. "Lan-erreformak txikitu egin dizkigute, lana eta kaleratzea merkeago eginez eta lan-merkatua enpresaburuen onerako nahastuz".

Laugarren greba orokorra

Krisia hasi zenetik, Hego Euskal Herriko laugarren greba orokorra izango da. Lehenengoa 2009ko maiatzaren 21ean izan zen. "Enplegu-suntsipenari" aurre egin nahi izan zion greba horrekin euskal gehiengo sindikalak. Bigarrena 2010eko ekainaren 29an izan zen. Euskal Herriko gehiengo sindikalak deitu zuen, lan-merkatuaren erreformaren aurka, eta CCOO ere parte hartu zuen. Hirugarren greba orokorra 2011ko urtarrilaren 27an izan zen, pentsioen erreformaren kontra.

Zure etxebizitza prest

2013rako

- Eraikuntza-lanak hasi dira dagoeneko.
- Pertsonalizatu ezazu zure etxebizitza.
- Ordainketa planifikatzeko denborarekin.
- 2013an zure etxebizitza eskuratuko duzu.



ARRASATE

2 LOGELA: 198.000€*

3 LOGELA: 240.000€*

* Gehi BEZ.



LKS

INFORMAZIOA ETA SALMENTA

943 71 22 59

PROMOZIOAREN
FINANTZAKETA ETA
ABAL EMATEA



UTE URIBARRI

GURE BERMEAREKIN:

Udako abenturak aurkeztu dituzte euskara elkarteek

10 eta 16 urte arteko gazteendako uztaileko hiru udaleku antolatu dituzte eta izen-ematea irekita dago

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Hirugarren urtez jarraian Udako abenturak izeneko uztaileko udalekuak antolatu dituzte Bergarako Jardun, Arrasateko Txatxilipurdi eta Soralezeko Pil-Pilean euskara elkarteek. Asteon aurkeztu dituzte udalekuok, eta martitzenetik zabalik dago izen-ematea.

10 urtetik hasi eta 16ra arteko gazteendako eskaintza egin dute, beti ere, "euskara ahoan dutela, herri desberdinetako gazteek elkar ezagutzeak duen garrantzia" oinarri hartuta, Saioa Garitano Jarduneko ordezkariak Bergarako kultura etxean egin-dako aurkezpenean azaldu zuen moduan.

Eskaintza hirukoitza

Elkarteok uztaileko egin duten eskaintza hirukoitza da; adinaren arabera banatutakoa.

10 eta 12 urte artekoek Zerainen zabaldu berritu duten aterpetxera joateko aukera izango dute Jardun eta Txatxilipurdikoen



Juaristi, Garitano, Quintanilla eta Arando, aurkezpenean. | M.B.

eskutik. 36 lagunendako 9 eguneko bi txanda egongo dira, uztailearen 3tik 11ra bitartean bata, eta 11tik 19ra, bestea.

12 eta 14 artekoek, berriz, Orion kanpatzeko aukera izango dute. Txatxilipurdik 16 urte daromatza kanpaleku hori antolatzen, eta aurten berrikuntzak izango ditu. Orioko Udal kanpinera joan

beharrean Orio eta Aia artean dagoen Zingira kanpinera joango dira. Osterantzean, ez dute udaleku gehiegi aldatuko, orain artekoarekin oso ondo joan zaie-eta. "Ez dugu udalekuaren itxura aldatuko. Uste dut azkeneko urteetan asmatu dugula ze klabe den gazteei gustatzen zaiena eta horretan jarraituko dugu", esan

zuen Lander Juaristi Txatxilipurdiko ordezkariak.

40 lagunendako bi txanda egingo dituzte, eta lau hezitzaile eta sukaldaria egongo dira gaztetxoekin. Lehen txanda uztailearen 1etik 11ra izango da, eta 11tik 21era, bigarrena.

14 eta 16 urte arteko gazteei dagokienez, Kosta ala Kosta izeneko udaleku ibiltaria egiteko aukera izango dute, uztailearen 5etik 16ra. Jardunek, Txatxilipurdik eta Pil-Pilean elkarteak elkarrekin bigarrenez antolatzen duten ekimena da.

Arabian hasiko dute ibilbidea, Otazan, eta Gipuzkoako kostaldera arteko ibilaldia egingo dute. Kostaldeko zein herritan amaituko duten ez dute aurreratu nahi izan. 30 lagunendako lekua dago eta besteak beste, "gazteen autonomia eta elkarlana bultzatzea" ditu helburu, Maite Quintanilla Pil-Pilean elkarteoko kideak aurreratu zuenez.

Izen-ematea zabalik dago

Hiru udalekuetarako izen-ematea martitzena ezker zabalik dago eta maiatzaren 11n amaituko da horretarako epea. Jardun, Txatxilipurdi eta Pil Pilean elkarteetan eman daiteke izena -Txatxilipurdik eskuorriak banatuko ditu eskoletan.

Prezioari dagokionez, 275 euro dira adin guztietarako udalekuak. Hala ere, euskara elkarteetako bazkideek eta familia ugariak merkeago izango dutela azpimarratu zuten.

Euskadiko Kutxak eta Ipar Kutxak batzeko bidea hasi dute

T.M. | ARRASATE

Euskadiko Kutxa eta Ipar Kutxa kreditu-kooperatibek bi entitateak integratzea helburu duen hizketaldi formalean prozesua abiarazi dute. Bi erakundeek igorritako oharrean azaltzen denez, helburua da kooperatibismoaren balore eta printzipioei eusten dien banka egiteko eredia bultzatzea.

Bazkideei dagokienez, bai batekoek zein bestekoek, eskubide eta betebeharrak izango dituzte eta entitate biek daukaten kaudimen, likidezia eta berankortasun neurri onak nabarmendu dituzte bategite arrakasturako bide berria.

Oharrean gehitzen dute, bategitea emanez gero, euskal kreditu-kooperatiba Euskal Herriko bigarren finantza-entitatea eta estatuko bigarren kreditu-kooperatiba bilakatuko da. Emandako datuen artean, EAEko 750.000 bezero baino gehiago kooperatibako bezero izatera pasatuko dira eta Nafarroan 110.000tik gora.

professional learning space

HOBETUZ-ek SUBENTZIONATUTAKO IKASTAROAK

Ikastaroa	Data	Orduak	Orduetgia
FINANTZAK			
Finantzak Ez Finantzarioentzat	maiatzaren 2tik 16ra	15 o.	al.-az. // 15:00-18:00
Kostuetara Sarrera	ekainaren 4tik 11ra	12 o.	al.-az. // 15:00-19:00
BIKAINASUNA KUDEAKETAN			
Enpresa industrialei zuzendutako Berdintasun diagnostikoa eta neurriak	maiatzak 23 eta 30	8 o.	az. // 14:30-18:30
MARKETINGA			
Marketing 2.0	apirilak 20 eta 27	16 o.	ol. // Egun osoa
CRM eta Marketing Esperientziala	maiatzak 4 eta 11	16 o.	ol. // Egun osoa
Salmenta Teknikak	maiatzak 21 eta 25	12 o.	al.-ol. maiatzak 21: 15:00-19:00 maiatzak 25: Egun osoa
Bezeroari zuzendutako arreta	ekainaren 4tik 11ra	12 o.	al.-az. // 15:00-19:00
Plan Komertziala	ekainak 13, 18 eta 20	12 o.	al.-az. // 15:00-19:00

INFORMAZIO GEHIAGO: MU ENPRESAGINTZA - MONDRAGON UNIBERTSITATEA
Ibarra zelaia, 2 // OÑATI - Gipuzkoa
Tfn.: 943 71 80 09 // migarzabal@mondragon.edu // www.mondragon.edu/muplus

Hipertentsioaz arituko da Alberto Montero medikua hilaren 26an eta 27an

Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuak *Ezagutu eta kontrolatu zure arterietako hipertentsioa* izeneko aurtengo bigarren osasun-ikasgela antolatu du. Hilaren 26an Arrasateko Kulturatan izango da, 19:00etan; eta 27an Aretxabaletako Arkupen, 19:00etan. Alberto Montero sendagileak emango ditu azalpenak.

Elgetako frontea ezagutzeko bisita gidatu gehiago

Domekan, hilaren 25ean, egingo dute hileko azkena (elebiduna). Apirilekoak izango dira: 1ean, 8an, 15ean eta 22an, euskaraz; eta 29an, elebiduna. 0-6 urtekoentzat doan da; 7-16koek bi euro ordaindu behar dituzte; eta nagusiek, 5. Ezinbestekoa da aurrez izena ematea: 943 71 89 11.



ENEKO AZKARATE

ZIGekoak Arrasaten elkartu dira

Eguaztenean down sindromea dutenen Nazioarteko Eguna izan zen, eta, horren bueltan, Zereginen Ikasketen Gelakoek (ZIG) topaketak egin zituzten Arrasaten. Oñati, Bergara, Arrasate eta Elgoibarko 50 bat gazte batu ziren. Plazan auresku inprobisatua egiteaz batera, Goienaren egoitzan izan ziren bisitan eta gazte txokoan mokadutxoia egin zuten.

Harrera familiak behar dira 7 eta 12 urte arteko umeendako

Aldundiak egiten du dei hori eta programa azaltzeko hitzaldia egongo da Arrasaten 27an

M.B. | ARRASATE

Babesgabe egoeran dauden adin txikiko haurren harrera programan partzeko dei egiten die Foru Aldundiak herritarrei. Egun, 15 familia behar dira 7 eta 12 urte arteko haurrak hartzeko prest daudenak.

Harrera familien programak jatorrizko familietatik banatu diren haurrei familia baten babes eta maitasuna izateko aukera eskaintzen die. Familia batek hartuko zain, adin txikiko hauek (69 guztira) erakundearen esku dauden pisuetan daude, beti ere Foru Aldundiaren tutoretzapean.

Familiak laguntza jasoko dute

Gaur egun 241 familia boluntariok 310 haur eta nerabe dituzte hartuta. Ia erdiak loturaren bat du adin txikikoekin, beste erdiak, aldiz, aurrez ez zuten inolako harremanik haurrekin. Edonola ere, Aldundiak

etengabeko laguntza profesionala bermatzen du haurren bizitzako alorretan ager daitezkeen gatazkak konpontzeko, jatorrizko familiarekin egiten diren bisitak barne. Harrera familia bakoitzak erreferentzia teknikari bat du. Era berean, Gizarte Politikako departamentuak zenbait laguntza ekonomiko eskaintzen ditu harrera familiek harrerak berak berekin dakarren gastua bakarrik beren gain hartu ez dezaten.

Hitzaldia, Arrasaten

Hori guztia kontuan izanda, Familia Hartzaileen elkarteak hitzaldi zikloak antolatzen ari da familia hartzaile gisa dituzten esperientziak kontatuz, jendea harrera familia izatera animatzeko.

Debagoiengan ere egingo dute hitzaldi bat. Arrasaten izango da, hilaren 27an, martitzena, Kulturaten, 18:30ean.



Aralarko, ezker abertzaleko eta EAKo ordezkariak Bergarako agerraldian. | A.T.

Ezker Abertzaleak, Aralarrek, EAK eta Alternatibak babestu egingo dute 29ko greba

"Beharrezkoa eta nahitaezkoa" deritzote murrizketei erantzuna ematea "maila guztietan"

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Debagoieneko Ezker Abertzaleak, Aralarrek, EAK eta Alternatibak "beharrezkoa eta nahitaezkoa" deritzote "PPren gobernuak krisiari aurre egiteko aitzakiarekin egiten ari den murrizketei erantzuna ematea". Erantzuna maila guztietan, gainera, "erakundetan eta arlo politikoan, baina baita kalean ere", martitzenean Bergaran egindako prentsurrekoan azaldu zuten. Gehitu zuten, Euskal Herrian eta

tzuna ematea". Erantzuna maila guztietan, gainera, "erakundetan eta arlo politikoan, baina baita kalean ere", martitzenean Bergaran egindako prentsurrekoan azaldu zuten. Gehitu zuten, Euskal Herrian eta

Debagoiengan badaude "greba orokorra bezalako herri mobilizazioak egiteko baldintza eta arrazoiak" eta "Espainiako Gobernuaren politika ekonomikoari aurre egin eta gizartea kolpatzen ari den krisi ekonomiko gainditzeko subiranotasun politiko eta ekonomiko aldarrikatzeko kalera irtetea beharrezkoa da" haien ustez. Hala, Euskal Herriak eman behar duen erantzuna, "pairatzen ari garen erasoaren tamainakoa" izan behar dela ulertuta, "babes osoa" eman diote ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE eta Hiru sindikatuek hilaren 29rako deitutako greba orokorrari.

Horrekin batera, egun horretarako gehiago sindikalak deituko dituen mobilizazioetan parte hartzeko dei ere egin zuten, baita "herriz herri antolatzen ari diren eren".

Alternatiba sozio-ekonomikoa

Mobilizatzeaz gain, lau indar politikoek ezinbesteko jotzen dute "benetako alternatiba sozio-ekonomikoa artikulatzea"; hain justu, "oinarrian burujabetza politikoa eta ekonomikoa izango dituen alternatiba eta eredu berri bateranzko bidea urratuko duena".

Hori horrela, "justizia sozialean eta eredu iraunkor berri batean oinarritutako Euskal Herria eraikitzea ahalbideetako duen alternatiba diseinatu eta eraikitze konpromisoa" ere hartu zuten lau alderdiek.

Hamaika artzainek jaso dute makila

Gomistegiko Artzain Eskolako hamabosgarren ikasturte amaierako ekitaldia egin zuten astelehenean Arantzazun. Hamaika ikaslek bukatu dituzte ikasketak eta guztiak jaso zituzten makila eta diploma.



AMAIA TXINTXURRETA

Amaiurrera egun pasa antolatu du 1512-2012 Nafarroa Bizirik taldeak

Hilaren 31rako antolatu dute, eta, Amaiurko gazteluarekin batera, Peruharri museoa ikustera ere joango dira. Bisita gidatuak izango dira, gainera. Prezioa 15 euro da -autobusa eta museorako sarrera; jatekoa norberak eraman behar du-. Izena emateko, deitu 943 08 19 53 zenbakira.



Izena eman eta aukeratu zure etxebizitza!

GASTEIZ BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK SALBURUAN

3 logela (90 m² erabilgarri)

garajea eta trastelekua **150.000 €**

2 logela (70 m² erabilgarri)

garajea eta trastelekua **120.000 €**

- HARRI NATURALEZKO FATXADA IKUSGARRIA
- 2013KO UDABERRIAN EMANGO DIRA



adania

T. 945 14 33 08 / ventavitoria@adania.es / www.adania.es

Nekane Jurado | Ekonomian aditua eta psikologoa

"Greba egiteko arrazoi asko daude, baina bat aipatuko dut: gure duintasuna defenditzea"

- ▶ Greba "berrasmatu" egin behar dela dio Nekane Juradok, eta eredu errotik aldatu
- ▶ Krisiaren nondik norakoak aztertu eta azaldu ditu berbaldi batean Bergaran

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Planifikazioko arduradun izan da 25 urtez. Gaur egun, ostera, liburuak idatzi eta berbaldiak egiten ditu han eta hemen; hark dioen moduan, "titiritero" lanetan, "utopia bat saltzen". Pont de Suer-tekoa (Lleida) jaiotzez, 9 urte zituela etorri zen Bizkaira. Murgian bizi da. 53 urte ditu. Bergaran izan zen eguaztenean hitzaldia ematen, *Krisiaren nondik norakoak* izenburukoa.

Martxoaren 29an greba orokorra. Zergatik?

Arrazoi asko daude, baina bakarra aipatu behar badut, gure duintasuna defenditzearen.

Ezertarako balio izango du?

Egun bateko grebax badihardugu, modu klasikoan ulertuta, egun bateko greba orokorra, bada, sistemak bereganatuta du, ez dio arazorik sortuko. Baina greba berrasmatu beharra dago.

Zer esan nahi duzu?

Lana dutenen pribilegio moduan saltzen dute greba, asmo txarrez. Baina ahaztu egiten zaigu prekarioan geroago eta jende gehiago bizi dela, edo tentsiodun asko pobrezia atarian daudela. Zergak, BEZa, gora eta gora doa, edo elektrizitatea geroago eta garestiagoa dela, edo osasun zerbitzu publikoa gero eta eskasagoa dela... edo gazteriaren zati handi bat, inoizko formazioz osatuena duena, langabezian dagoela... Greba hau lan-erreformaren baina harantzago doa. Mugimendu sozialek egin behar dute greba. Honek ezin du horrela jarraitu. Auzolan kolektiboa bultzatu behar da, greba egun bateko kontua izan ez dadin.

Lan-erreforma beharrezkoa da?

Kapitalarendako da premia-premia. Eta beste erreforma batzuk ere nahiko ditu. Kontua da kiebra egin duela orain arteko eredu ekonomikoak, gizarte ongizatean oinarritutakoak, nahiz eta hemen oso garatuta ez egon. Jakina, testuinguru honetan, esan dezaket greba ez dela beharrezkoa, iraultza behar dugu!

Posible da iraultza?

Premiazkoa da, ze kapitalak alde aurretik ezarritako bide batetik errotan baikaitu. Lan feudalismorantz errotan gaitu, Asiako lan merkatura. Iraultzak esan nahi du kapitalaren oinarritzko printzipio horiek hankaz gora jartzea komeni zaigula. Krisira errotan gaituzten instrumentu berak erabilia ez gara krisitik aterako. Orain arteko ideologia zalantzan jarri behar dugu. Aldaketa beha-

rezkoa da. Aberastasuna ezin dezakegu merkatuen esku utzi, herritarrena da. Merkatuei uko egin behar zaie.

Ongizate estatua kolokan dago?

Bai, erabat. 1997an egin nuen azterketa ekonomikoan nioen helburua dela ongizate estatua abolitzea. Oinarriak Maastrichteko itunean jarri ziren eta hiru fase zehaztu ziren. Orain, hirugarren fasean gaude. Ongizate estatua, mendebaldeko herrialdeek, kapitalismoak, Sobiet Batasunaren sozialismoari, Berlinerraino ailegatu zena, aurre egiteko erantzuna izan zen. Bloke hegemoniko hori behera etorri zenean, eta ezkerreko ideia-umezurtz geratu zenean, kapitala berrantolatuta egin zen.

Kapitalismo honek badu alternatibarik?

Ekonomia soziala. Baina horretaz dihardudanean ez dut esan nahi hemengo kooperatibez. Jendarteak ze behar dituen aztertu eta behar horiei modu endogenoan zela erantzun aztertzeaz dihardut. Ahalik eta modu autosufizienteen benetako beharrei erantzuteko.

Zein da azken ekonomia krisi honen errudun edo erantzule?

Kapitalak merkatu globalizatua lanean dihardu. Eta mundu horretan, Europan egon daitekeen babes maila, hezkuntza, osasungintza... beste toki batzuetan desginda dago: Ameriketako Estatu Batuetan... edo beste toki batzuetan inoiz ez da hori garatu. Hortaz, lehiakortasunik ezaz dihardutenean, lakra moduan hartzen dute. Eredu hori zaharkituta dago. Lisboako Itunean, 2010ean, ongizate estatuaren orde bestek kontzeptu bat ezarri zuten: norberak ordaindutako gizarte ongizatea. Ustez, jendarte heldua da gurea eta ez dauka aita Estatuaren babesik beharrik.

Defizita eta gastu publikoa murriztea da Europa osoan aplikatu nahi den politika. Hori da agindua. Hori da irtenbidea?

Esango balute: "Gizarte ongizatea murriztu behar da!". Bada, orduan, konturatuko ginatete eta erreakzionatuko genuke. Baina eufemismoak erabiltzen dituzte errealitatea ezkutatzeko. Sarrerak txikitzen badira, zerga politikean gehien dutenak sarituz, eta defizita handituz ez baduzu nahi, bada, gastuari eutsi beharko dizu, defizitari eutsi. Eta hortik dator hezkuntza, osasunean edo beste gizarte gastu batzuetan murriztea. Zein da kontsigna? Defizit publikoa murriztea. Oso ondo geratzen da hori.



Nekane Jurado, eguaztenean, Bergaran. | ENEKO AZKARATE

"Auzolan kolektiboa bultzatu behar da, greba egun bateko kontua izan ez dadin"

"Euskal Herria euskaldunondako errentan dagoen ondasuna da"

"Orain moneta ezin daitekeenez debalatu, soldatak debalutuz dira"

Baina hori udalek eta foru aldundiek ere egiten dute, baita ustez ezkerrekoak direnek ere...

Merkatuek agintzen dute eta merkatuek jartzen dituzte gobernu batzuk. Kartak agerian daude. Bilduri ere esango nioke, eta 2008an idatzi nuen, herri honek daukan arriskurik handienetakoa dela kupoa. Kontzertu ekonomiko dela-eta, Estatuari ordaindu behar dioguna. Arrisku aldekarrekoa da, gainera. Ze kupoak esan nahi baitu Estatuari ordaindu behar diogula, urtero, 6,24 Euskal Autonomia Erkidegoan eta 1,6 Nafarroan, transferitu bako kompetentziengatik. Ze geratzen da? Espainiako Estatuari dela dirutza ematen bankari, edo NATO ari dela berrarmatzen... Horretaz gain, bost milioi langaberi ordaindu behar zaie. Horiek guztiak dira transferitu bako kompetentziak. Madrilek gaur egun gastatzen duen %70 inguru da transferitu bako gastua. Kon-

tuan izan gure ogasunak gutxiago jasotzen dutela, baina, era berean, beste aldetik, Estatuari kupo bitartez berdin ordaindu behar diogula, aldekarrekoa delako. Kontuz, hortaz, ze euskal sektore publikoa kiebra egoeratik gertu baitago! Ogasunek jasotzen dutenen artetik, lehenengo, Madrili ordaintzen zaio; %70 Eusko Jaurlaritzak errotan du, eta geratzen dena da diputazioarendako eta udalendako. Joko araua aldatu egin behar da. Ze hutsa kudeatzen aritu beharko baitugu, bestela.

Lehiakorra izan behar dugula entzuten dugunean, zer datorkizu?

Beste inor baino lehiakorra izatea da saltzeko aukazuna beste inor baino merkeago saltzea. Lehiakorra izan naiteke botila bat ur saltzen, plastikozko botila egiteko inbaditu dudana herriaren petrolio badarabil; edo ura herritarrei lapurtzen badiet, pribatizatuz... Eta, ura botilaratu edota saldu behar duen horri, lau txakur handi ematen badizkiot. Hori da lehiakorra izatea. Eta produktibitate handitzeko modua da makinak erabiltzea. Teknologiaren esku dago produktibitatea. Ekonomia bat produktibagoa izango da eskulan gutxiagorekin gehiago produzitzen duenean.

Espainia zama?

Bai. Euskal Herria euskaldunondako errentan dagoen ondasuna da. Errentan ordaintzen dugun hori kupoa da, erabat injustua dena. Argi dago zergatik den garrantzitsua Euskal Herria, Kataluniaz gain, Espainiarendako. Badaude eredu alternatiboak, eta, horiek ezarri nahi baditugu, ekonomikoki erabat burujabeak izan behar dugu. Independentzia beharrezkoa da guretzat.

Euroa alternatiba ala zama da?

Euroa Alemaniaren diseinua da. Euroak markoa ordezkatzeko eta Europako Banku Zentralak Bundesbank. Alemaniaren neurria egindako moneta da Euroa; hau da, geure errealitate urrun dagoen errealitate batetik diseinatutakoa. Lan-erreforma eta euroa lotuta daude. Lehen, peze debalutatu zen. Orain, hori ezin daiteke egin. Egiten da lan kostuak debalatu. Patronalaren beharrei erantzuten die lan-erreformak, azkenean, kostu merkeagoko merkatuetara jotzen duela patronalak, etekin handiagoak edukitzeko. Moneta ezin daitekeenez debalatu, soldatak debalutuz dira.

Gaurisa Carsen, aukera apartak

Nissan autoak saltzen ditu Gaurisa Carsen prezio paregabeen; eta hainbat zerbitzu ere eskaintzen ditu | IRATI GOITIA

Iaz autoak saltzeko urte txarra izan zela esaten da. Hala ere, Nissan autoak saltzen dituen Gaurisa Cars kontzesionarioak %15 igo zituen salmentak azken urtean.

URTEBETE APIRILEAN

Datorren hilean, apirilean, urtebete beteko da Gaurisa Carsen Eibarren instalazioak ireki zituena, eta egiten duten balorazioa oso positiboa da. Honela azaldu digu Jose Luis Larrañaga gerenteak: "Gure lurraldean matrikulazioak %17,3 jaitsi diren arren, Gaurisa Cars kontzesionarioak Nissan autoen salmentak handitzea lortu du; zehazki, %15 gehiago 2011ko apiriletik 2012ko otsailera bitartean".

Hiru izan dira hori posible egin duten faktoreak: produktua, pro-

fesionaltasuna eta prezioa. Larrañagak adierazi du harrituta daudela Nissan ibilgailu guztiek (turismo, orotariko auto zein ibilgailu komertzial) izan duten onarpenarekin. Hain zuzen, Gaurisa Carsen argi dute euren emaitza onen gakoetako bat autoen kalitatea dela, eta beste bat, langileen profesionaltasuna. "Gaurisa osatzen dugun guztiok argi dugu bezeroenganako zerbitzuak oinarri izan behar duela. Horri dugun ezagutza tekniko gehitzen badiogu eta sektorea oso ondo kontrolatzen dugula kontuan hartuta, gure profesionaltasuna erabatekoa da", gaineratzen du Larrañagak. Hain zuzen ere, salmenta alorreko eta tailerreko langile guztiek jaso dute Nissanek ematen dituen teknikari espezialisten ziurtagiria, urtebeteko epea baino lehen.

PREZIO ERAKARGARRIAK

Edonork pentsa lezake Nissan markaren kontzesionario ofiziala izanik, eta kalitatea eta profesionaltasuna nortasun-ezaugarria izanik, prezioa ere horren araberakoa izango dela. Errealitatea, baina, oso ezberdina da. Saltzen dituzten autoen eta ordezeko piezen eta eskaintzen dituzten zerbitzuen prezioak oso interesgarriak dira; lehiakideenak baino txikiagoak. Hain zuzen ere, Larrañagak azaldu digu beste edozein kontzesionarioetan euren prezioa hobetzen badute eta bezeroek hori egiaztatzen badiete, euren "gehiago" jaisten dutela prezioa. Eta hau gaineratzen du: "Ezin dugu ahaztu gaur egun bizi dugun krisi egoera, eta horrexegatik eskaintzen ditugu aparteko prezioak tailerrean".

HAINBAT ZERBITZU

Bezeroen asebetetzea da Gaurisa Carsen baloratzen dutena, eta, hala, hainbat zerbitzu eskaintzen dituzte. Adibidez, ordezeko ibilgailua doan lehen egunean. Horrenbestez, ohiko mantenu eta azterketetan, bezeroa tailerrean joaten denean, autoa bertan uzten du eta kontzesionario berri bat hartzen du lanera, etxera edo behar duen tokira itzultzeko. Finantzazio eskaintzak ere badituzte %0ko interesarekin, eta, kontzesionarioetik erabat prest irteteko, asaguru departamentua ere badute Gaurisa Carsen.

Bestalde, azkenaldian modan jarri den *rent a car* zerbitzua ere eskaintzen dute. 60 ibilgailu dituz-



Jose Luis Larrañaga, bezero bati informazioa eskaintzen. | GAURISA CARS

te aukeran: turismo, furgoneta eta orotariko ibilgailuak. "Gure bezeroen beharretara egokitzen gara: asteburuko tarifa murriztuz, autoa itzultze eta hartzeko orduan erraztasunak eskainiz, bezeroei harrera eginez aireportuan...".

Enpresei zerbitzu berezia eskaintzen diete Gausakoei eta *rent a car* zerbitzua ere haien eskura jartzen dute. "Renting enpresa nagusienekin egiten dugun lan eta espezialistak gara enpresa bakoitzari egokien datorkion auto eta kontratu mota aholkatzen", dio Larrañagak.

AURREIKUSPEN EDERRA

Gaurisa Carsen gerentek aurreratu digu aurtengo urterako

aurreikuspen onak dituztela: "Kontzesionario berria gara eta hedapen fasean gaude oraindik". Eta gaineratzen du bezero asko poz-ozik daudela euren tailerrean egon ostean: "Askok esaten digute euren konfiantzazko tailer bilakatuko garela".

OTAOLA ETORBIDEA

Gaurisa Cars kontzesionarioa Eibarren dago, Otaola etorbideko 22. zenbakian. Instalazioetarako sarbidea oso erraza da. Bi aukera daude: Eibarko ingurubide berritik pasata edo A-8 autobideko Eibar-Ermuko irteera hartuta, hain zuzen ere. Bezeroenganako arreta zerbitzua eskaintzen dute 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 20:00etara.



Eibarren dagoen Gaurisa Cars kontzesionarioa. | GAURISA CARS

NISSAN NV400 BERRIA
16.410 €-tik hasita*

NISSAN NV200 1.5 DCI 85 CV FURGOIA
10.880 €-tik hasita*

SHIFT_the way you move



GAURISA

Otaola etorbidea 22 - Eibar 20600
tel.: 943 82 09 74

NV200: Kontsumo mistoa: 5,2 l/100km. CO₂ isurpenak: 137 g/km.
NV400: Kontsumo mistoa: 8,2-9,4 l/100km. CO₂ isurpenak: 218-249 g/km.

* NV200 1.5l dCi 85 CV (63 kW) NV85DFGC-2-12 bertsioiko Comfort furgoirako eta NV400rako PFF prezioa (BEZa, garraioa, eta Nissan Assistance ez daude barne. Sustapen-kampaina barne). Prezioak penintsularako eta Balearretarako dira baliozkoak, stockeko unitateetarako. NV400 beherapena eroslearen izenean ibilgailu bat berriz erosteko kanal pribatuko salmentetarako soilik izango da baliozkoa, beste salmenta-kanal batzuetarako edo baldintzetarako, Nissan kontzesionariora joan.

ZABALIK

MIKEL LEZAMIZ

http://goiena.net/iritzia/



Europa krisi osoan

Jende gehienak uste du Espainia, Grezia, Irlanda eta Portugal direla krisi ekonomikoan dauden herrialde bakarrak. Baina ia Europa osoa dago krisi ekonomikoan. Motorra Alemania da kanporako esportazioari esker, baina urte honetako ekonomiaren igoera %0,6 bakarrik izatea espero dute, esportazioa okertu egingo delako eta barne kontsumoa gelditu. Frantziaren egoera oraindik okerragoa da, %0,2 bakarrik igotzeko asmoa dagoelako.

Zer esanik ez dago Espainiako ekonomiaren egoera atzeraka doala abiadura bizian, eta Euskal Herriaren egoera ere ez da batere ona.

Baina larriena krisi soziala da. Ekonomiaz atzera eta aurrera gabiltza telebista, irrati, egunkari eta gure ahoetan, baina benetako arazoa gizartearen krisia da.

Europako ongizatearen gizartea erortzen ari da eta osasungintza unibertsala, doako eta kalitatezko hezkuntza, eta laguntza sozialak desagertzen ari dira. Zailtasun handiko eta itxaropenik gabeko gizarte distopikoa (utopiaren aurkakoa) sortzen ari gara eta jendearen, eta batez ere gazteen, etorkizun falta, arriskutsua izan daiteke ez baldin badaukazu itxaropenik, eta egunen batean denak saltatu lezake gizarte honetan.

Baina bestalde, zorionez, neo-kapitalismoaren balioak pikutara joaten ari dira eta diruaren eta kapitalaren boterea gutxitzen ari da. Lanak izan behar du boterea eta ez kapitalak. Hortik dator kigru bide positiboa gizartea hobetzeko eta pertsonaren balioa handitzeko. Eta gazteei ere aukera eman beharko diegu etorkizuneko gizarte orekatu bat eraikitzeko. Ni, behintzat, prest nago horretan laguntzeko.

Aintzane Oiarbideri erantzuna

Ander Lizarralde Lizarralde Oñati

Behin eta berriz eta alde guztietan atez atekoa demonizatzen zabilta, Aintzane.

Azken saiakera martxoaren 16ko GOIENAn.

Zikina, garestia, intimitatearen aurkako eraso... eta deabruaren asmakizuna.

Hala ere, gauza jakina da zein den deabruaren gustuko txokoa: sua dagoen lekua.

Eta zein hoiberik errauskailu bat baino.

Bai, Aintzane, aitortuko duzu edo ez, baina deabruari eskutik helduta zoazte zaborraren kontu honetan.

Gipuzkoako zaborraren kudeaketaren norabide guztia baldintzatuko zuen plana (PIGRUG, alegia) nork idatzi zuen?

ISRk.

Eta nortzuk dira ISRko bazkideak? Oficiales del Cemento Patronala, Cementos Lemona, Endesa, Aeversu eta abar.

Eta nork eraiki eta kudeatu behar zuen Zubietako errauskailua nagusiki? FCCk.

Galdeketa eske zabilta zutsuki, simulatuz herriaren interesak defendatu nahi dituzuela eta disimulatuz erakunde eta enpresa aberats horien esaneko leialak zaretela.

Bilduk ingurumenaren, osasunaren eta herritarren interesen alde egin duenean, hori demonizatu beharra dago.

Bosgarren edukiontzia Gipuzkoako hainbat herritan jarri duzue eta hori birziklapenaren aldeko aurrerapausotzat erakutsi duzue. 260.000 tonatarako (zaborraren %60 inguru) errauskailua inori ezer gabe jartzera zindoazten, eta hori "beste aukerarik ez zela geratzen" esanda bultzatu duzue.

AHTrekin bailara guztia txikitzen zabilta, baina hori "interes jenerala" da eta derrigor egin beharra dago.

GUTUNAK

Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta telefonoa. Gutuna helarazteko bideak dira: Oñati, Lizentziaduna, 20500 Arrasate | papera@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

Eta atez atekoa diktadura bateko inposizio onartezin ankerra bezala aurkeztu duzue.

Oso demokratikak zarete, Aintzane.

Bejondeizuela. Azkenik, Valle-Inclan idazlea aipatzen duzu eta nik gertuagoko erreferentziak eman nahi nituzke. Hiru zehazki:

1-Mikel Peruarenaren *Zeinek erre nahi ditu hondakinak?*

2-*Incineración y salud.* (Greenpeace 2001).

3) Alfonso del Val-en *Análisis crítico del PIGRUG.*

Herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte hiru testu hauek irakurtzera (Interneten oso erraz jaisten dira), uste baitu Valle-Inclan baino egokiagoak direla zaborraren arazoa ulertzeko.

Eskerrik asko

Aitor Biain Oñati

Alde batetik, Oñatiko udalbatzari eskerrak eman nahi dizkiot 12 urte igaro eta gero eskaerari kasu egin zaiolako, eta aurreko agintaldian EAJko alkate eta zinegotzi izan diren guztiei egindako akatsak erreflexiona ditzatela eskatzen diet.

Natra-Zahor eta Ceur artetik Berezaora doan bidean, Natra eta Ceurren artetik errepidea igarotzen den parean espalo bat edo zerbait egitea eskatzen nien eta EAJkoek bi marra margotu zituzten gora goazela ezkerrean, baina asko kosta eta gero egin zuten.

Oñek idatzi zorrotz bat

bidali behar izan zien, espaloia dagoen zati bakarrean ezin izaten nintzelako espaloian ibili, bidera atera beharra izaten nuen. Gutxi ikusten dudanez, kamioi batek ni harrapatzeko arriskua dakar horrek.

Horrela, 2010eko ekainean Osalane txosten luze zabal eta zorrotza egin ostean, 2010eko azaroan ez zuten ideia hoiberik izan, eta, Zaharren zaharberitze lanetarako, garabi izugarri handi bat bidearen erdian seinatu gabe eta segurtasun neurri minimoak betetzen ez zituena ipini zuten, gu, gutxituok, lurrera erortzeko moduan.

Baina, azkenean, heldu da entzun eta jaramon egingo didan norbait, pasabide hori ahal denik eta ondoen konponduta. Eskerrik asko, Mikel; *danke schön, sehr geeht Herr Biain.*

Eta bigarrenik, Zahorroko zaindari diren Julian eta Joserrari ere eskerrak, bere garaian Udalean ukatu zidaten laguntza emategatik pasatu ezinda gelditzen nintzenez.

Elgeta, 23:10...

Alex Labaien Elgeta

... txakur-zaunkak kalean.

Leihora gerturatu, eta... bi txakur!

Bat, gure etxe aurreko lorontzi handiaren ondoan.

Leihora zabaldu, eta... "txakurrá!"

Ospa egin du.

Txakurdunak?

Atzetik, berrikeretan, lasai, zabor-poltsa eskuan dutela.

Elgeta, 23:20.

... txakur-zaunkak kalean.

Leihora gerturatu, eta... txakurra!

Gure etxe aurreko lorontzi handiaren ondoan.

Gerturatu zaio txakurduna, eta lepokotik tira egin dio.

Berandu?

Ni, leiho ostean...

Begira...

Ospa egin du txakurra.

Txakurdunak, alde...

Atea zabaldu, eta kanpora atera naiz.

Paisaia-ri begira geratu naiz...

Lorontzi ondoan... putzua.

Ondoa, atzoko

oroigarria...

Hamar metrora, atzoko

bigarren oroigarria...

Bien tartean, joan den

astekoa.

Elgeta, 23:45.

Ordenagailua piztu.

Idatzi.

Ordenagailua emendatu.

Ohera, 00:15.

Juan Karlos Garitanori eta lagunei

Jose Mari Iturbe Lezeta Antzuola

40 urte atzera egin dugula?

Urtebetean atez ateko sistemarekin Antzuolan (2.160 biztanle) 2010ean baino:

-326.000 kilo zabor gutxiago bota ditugu zabortegira.

-179.530 kilo organiko bildu eta lurrera bueltatu ditugu.

-Bikoiztu egin dugu ontzi arinen bilketa kopurua.

-156 familiak (herriko familien %20k) autokonposta egiten dute.

-%32 birziklatzetik %82ra pasa gara.

-Hondakinen tratamenduan

42.000 euro gutxiago gastatu ditugu, eta, bilketa

garestiagoko izan arren, 33.000 euro, denera 9.000 euro

gutxiago kosta zaigu.

Zuen *ardura*-ri erantzunez, hondakinen kopuru totala

%15-20 tartean jaitsi da.

Plazaratu bosgarren edukiontzia duten herrien

datuak eta konparatu. Hobeak badira, eztabaidatzeko prest nago.

Batzuetan, atzera begiratzea beharrezkoa da, zu

eta ni jaio ginen Antzuolan,

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Aregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)


Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Zortza Martin, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Oñati, Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Legu Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale.
Difusioa: 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekarria.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

duela 60 urte, ez zen gaur egun beste hondakin sortzen; hortaz, badugu zer gutxitu, eta berrerabiltzeko aukera. Saiatu gaitezen.

Hondakinen inguruan, zoritxarrez, ez dago magia egiterik. Tarta osoa jarri behar da mahai ganean eta egun ditugun aukera nagusiak hauek dira:

1-Kontenedore bilketa + erraustegia + zabortegi toxikoa errauts eta filtroendako (ahaztu egin zaizue esatea zein herritan jartzeko asmoa zenuten?).

2-Atez ate + zabortegi txikiagoa, laurden bat.

3-Zero Zabor eta ez dugu ezer behar.

Zabor turismoari buruz, urrun joan gabe, joan zen larunbatean oñatiar talde bat etorri zen gure herrira, sistema bere abantaila eta arazoekin ezagutzerara.

Ateak zabalik daude denontzat. Etorri, ikusi, aztertu, galdetu eta ez egon Bohemiako argien zain, Aintzane.

Bukatzeko, ahalegin gehixeagorekin ondo egiten saiatzen diren antzuolarrak animatu eta eskertu nahi ditut!

Gizarte matxinada

Josu Balmaseda, Isabel Castro eta Xabier Barber (ESK sindikatuaren Batzorde Nagusiko kideak) Debagoiena

Martxoaren 29an greba orokor zabala egingo da.

Ahaleginak egin behar ditugu gizartearen alderdi garrantzitsu batengan ematen den haserrearen adierazpen publiko eta garbia izan dadin.

Egunez egun hedatuago dagoen pobrezia eta egunez egun ozenkiago plazaratzen ari den sumindura, antolaketa iraunkorra, koordinazio zabal eta etengabeko borroka bihur daitezen.

Hiritarrek protagonismoa kendu behar diete elite ekonomiko eta politikoen diskurtsoei. Bizi dugun egoera jasanezina delako.

Azken (?) Lan Erreforma, oraingo honetan PPren eskutik eman dena, bortitz-bortitza da; hamarkadatan hamaika izerdiren ostean enplegurik edo enplegurik gabe, besteen kontura lan egin edo bere konturakoak izan diren eta diren langileen eskubideen aurkako eraso hilgarria da lan erreforma hau.

Urte hauetan gizartearen gehiengoaren aurkako eraso instituzionalen zerrenda luzeari gehitu behar zaio, hauen artean pentsio eta negozioazio kolektiboarenak azpimarratu behar.

Lan erreforma honek, aurrekoek bezala, ez du enplegurik sortuko (are

gutxiago kalitatezko enplegua); aitzitik, bere ondorio kaltegarriak krisiaren ondorioei gehituko zaizkie.

Jasangaitza da Europako Banku Zentralak (EBZ) bankuei oparitu dien bilioi erdi euro, %1eko interesean, hauek muturreko egoeratan dauden pertsonak euren etxeetatik botatzen dituzten bitartean, etxebizitzarik gabe utziz, eta maileguak benetan behar dituztenei, hau da, jendeari, negozio txiki eta instituzio publikoei interes altuagoko maileguetara heltzea zailduz.

Lotsagarria da bankari, transnazionalen kudeatzaile eta antzekoen ezpalekoen urteko soldatak milioika eurotan neurtzea, Lanbide arteko Gutxieneko Soldata (LaGS) 600 euro hilean baino zerbait gehiago denean; pentsioak, langabezia-sariak edo oinarrizko errentak murrizten direnean; eta enplegua izanik 600, 800 edo 1.000 euro hilean kobratzen dituztenak daudenean, azken hauek *zorionekoak* lirateke.

Ez da onargarria osasungitzan eta hezkuntza publikoetan egiten diren murrizketak, edo babes sozialerako esparruetan ematen direnak (oinarrizko errenta edo gutxieneko diru-sarrerak, zainketa aringarrietako elkarreak...), euskara edo kulturan... eta hau ematen den bitartean, diru publikoekin, gure diruekin, alegia, gizarte interes eskaseko azpiegituratzarretara bideratzen ari dira (Abiadura Handiko Trena horren paradigma, baina egon gehiago badira), edo boterean den kasta politikoaren estatus ekonomiko eta soziala mantentzera.

Banku handiek eta hauen akziodun eta zuzendari ahalguztidunek, nahiz eta guri asko kostatu, pertsonak baino askoz gutxiago balio dute (benetako balorean eta ez eurotan).

Beraz, zergatik biztanleriaren ongizatearekiko lehentasuna eman lukurari eta ez-legitimo zor publiko edo pribatuaren itzultzeari?

Martxoaren 29an, sindikatuok, gizarte mugimenduek, murrizketez eraginduriko pertsonen erakundeek, gehiengo sozialak, kaleak hartuko ditugu.

Ekoizpena, beharrezkoak ez diren zerbitzuak, garraioak eta abar gelditu behar ditugu... eta kalea aldarri bihurtu.

Amorrua borroka izan dadila eta borroka tresna bat gizarte eraldaketarako.

Berdintasunezko gizarterako bidean, ingurumen-mugak errespetatuko duen ekoizpen-modu baten bidean, herri libreekin, ondasunaren banaketa lortu egin behar da (zerga-erreforma sakona, Tobin tasa finantza transakzio

guztiei, zerga-paradisu guztien itxiera...) eta lanen banaketa (enplegua, pertsonen zaintza eta etxeko lana).

Noizko 35 orduko lanaldia legez?

Edo aparteko orduen ezabapena?

Edo benetako txanda-kontratuen berreskuratzea?

Lortu, eta ez eskatu bakarrik, ez baitigute emango ez baditugu behartzen.

Krisia dago, bai, krisi ekonomikoa, ingurumenekoa, politikoa eta sistemikoa.

Bizitzeko beste era baten argi-aizkorria izan dadila, kolektiboagoa eta ez hain indibidualista; maitasun eta zaintzen kontsumitzaileagoa eta ez gauzena; berdintasunezkoa gizon eta emakumeen artean; solidarioa pertsona eta herrien artean...

Bi hitzetan, boterearen adar desberdinek, behin eta berriro, irakatsi dizkiguten balore faltsuetatik libre ("hainbeste duzu, horrenbeste balio duzu"), eta aberatsa berreskuratutako baloreetan, gure baloreetan, alegia.

Badira arrazoiak soberan. Jarraipena eta irmotasuna falta zaizkigu.

Bidea korapilatsua ager daiteke eta irtenbidea ez ziurra.

Baina ekimenak euren eskuetan jarraitzen badu, hondamena ziurra da.

Alternatibarik hoberena borroka da.

Egin dezagun martxoaren 29a egun historikoa izan dadila, lantegietan zein kaleetan, eta egun horren ostean ekin diezaiogun parte-hartze, antolaketa, batasunaren bideari.

Ez da garaia itxoiteko eta bere kabuz egoera eraldatzen den zain egoteko.

Gizarte matxinadarako garaia da, hitzen zentzurik hoberenean: gizartearen gehiengo hori matxinatu dadila eta mundu hobe bat posible den kontzientzia har dezala (dezagun), Euskal Herrian ere.

Eta ikus dezala (dezagun) oraina eta etorkizuna gure eskuetan daudela, honela nahi izanez gero eta hauek lortzeko borrokatuz gero.

Atez ate, negozio berriren bat?

Juan Karlos Garitano, Maria Ubarretxena, Ibon Arrupe eta Juan Ramon Mendieta (Arrasateko EAJ-PNVren Udal Taldea) Arrasate

Etxeko zaborra modu honetan eratzen da:

-%30-40, organikoa.
-%20-25, papera eta kartoia.
-%15-20, plastikozko ontziak.
-%5-10, beira.
-%10-20 errefusa (fardelak, konpresak, fibrak, etab.).

Honek esan nahi du birziklagarria dena %80-85era ailegatzen dela.

Aldiz, Alemaniako Berdeak alderdi ekologistak zabaldutako informazioari esker, zera dakigu, ingurugiroari begira bakarrik justifikatua dagoela %70 birziklatu edo konpostatzea eta beste %30a energia sortzera bideratu behar dela.

Zabortegeiak jokoz kanpo geratzen dira. Energia garbia erabiltzearen aldekoak dira.

Dagoen teknologia hoberena erabiltzearen aldekoak dira.

Plastikoetan, adibidez, Alemanian %20 bakarrik birziklatzen da eta gainontzekoa energia sortzera bideratzen da.

Ez dugu ahaztu behar herrialde honek hamarkadak daramatzala birziklatzen eta mundu honetan gu baino askoz aurrerratuagoak daudela.

Honez gain, europar direktibak legez exijitzen du 2016. urterako generatutako zabor guztien %60 birziklatu edo konpostatu egin behar direla eta geratzen den %40arekin energia sortu behar dela. Zabortegietara ez litzateke ezer bota beharko.

Momentuan Debagoienean daukagun sistemarekin, 2010ean sortutako zabor guztien %45 birziklutzera heldu ginen, bosgarren edukiontzia kontuan izan gabe.

Horrek esan nahi du bosgarren edukiontzia ipiniz gero (+%30-40), erraz pasako genukeela europar legeak agintzen duen %60ren birziklapen tasara, eta, horretaz aparte, Europako herrialde aurreratuenen mailan kokatuko ginateke.

Ez dugu inolaz ere ahaztu behar %40 energia sortzera bideratu behar dela, eta hau zaborra erretzean lortzen dela.

Orduan, zergatik hainbesteko premia eta interes atez ateko sistema ezartzeko eta bosgarren edukiontziari boikota egiteko?

Ezker abertzalea egon da azken urteetan Mankomunitatean agintean eta ez du behatz bakar bat ere mugitu bosgarren edukiontzia ipintzeko.

Gainera, organikoen edukiontzia ipini den lekuetan boikoteatu egin dute; adibidez, Aretxabaletan.

Bilduk erabaki du gehiengo absolutua daukan Gipuzkoako 34 herrietan atez ateko sistema inposatzea:

-Azterketa exhaustiborik egin gabe.

-Bideragarritasun plana osatu gabe: kostuak, tasak, etab.

-Herritarrentzat ezeroso eta garestia dena.

Ze arrazoi dago ezker abertzaleak atez atekoarekin daukan obsesioaren atzean?
Negozio berriren bat?
Bilduri exijitzen diogu gardentasuna eta inposizio gutxiago.

Elkartasuna da gure indarra, M-29an denok kalera!

Lander Olazabalaga Leiza Arrasate

Badira jadanik urte pare bat *krisia* hitza denon ahotan dabilela. "... *krisia nabaria da, EREan daude, delako enpresa itxi dute, egoera okerrera doa, oraindik txarrena etortzear dago...*".

Bankuek eta inbertsio agentziek bultzatu omen dute mundua egungo egoerara, eta guk, herritarrok, langileok, ordaindu behar ditugu ondorioak.

Krisiaren erantzule nagusiei ardurak eskatu eta beren jarduera espekulatzailea epaitu beharrean, "egoera kritikoa" lehengo hartara itzularazteko, lehen neurri gisa diru publikoa injektatu zitzaien bankuei. Gure dirua, alegia.

Europako Banku Zentrala (EBZ) banku publiko bat da, Europako hiritarren zergekin hornitzen delako, baina ez du banku publiko baten papera betetzen.

Banku pribatuei izugarrizko dirutzak ematen dizkie.

Bankuek, aldiz, betiere beren bezeroengan pentsatzen, noski, beste herrialde batzuetako kanpo zorra erosi dute, interesak handituz espekulatu eta etekinak ateratzeko asmoz.

Lotsagarria eta inmorala. Egoera nahasi honetan Mariano Raxoi iritsi da Moncloara ate handitik.

Erreforma Laboral berria izango da hartuko duen lehen neurrietako bat.

Krisi egoera erabiliko du erreformaren arrazoi gisa, baina krisia ez da arrazoia, patronalaren boterea era neurrigabean handitzeko aitzakia baizik.

Lan erreforma berri honekin, langileek urteetan borrokatuz lortu dituzten eskubideak jasotzen dituzten konbenioak ezerezean geratuko dira.

Enpresariak ez du zertan konbenioa bete, eta lan baldintzak nahi eran aldatu ahal izango ditu.

Erregulazio espedienteak, EREak, ez dira lan agintaritzatik pasa beharko.

Hau da, enpresariak bere irabazi/galera aurreikuspenen arabera ezarri ahal izango ditu, langileen kaleratzea guztiz erraztuz.

Administrazio publikoan ere murrizketak ezarri dira; eta hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak dira kaltetuenak.

Gizarteari zuzendutako oinarrizko zerbitzuak izanik, langileen lan baldintzak *10. orrialdean, jarraipena*.

9. orrialdeak dator.

okertuz gero, zerbitzuen kalitatea ere okertuko da.

Erreforma berri honek langileen eta langabeen arteko ezberdintasuna areagotuko du, bazterketa eta biztanleriaren txiroitzea ekarritz.

Lan baldintzen prekarizazio honek gazte, emakume, langabe eta etorkinengan izango du eraginik handiena.

Kontratu mota ezberdinak sortuko dira, non langileek ez duten soldata duin bat izango, debalde kaleratuak izan ahalko dira, aldikako kontratuak nahi beste aldiz kateatu ahal izango dira, ETTEk eskumen gehiago izango dute enplegu zerbitzu publikoak pribatizatuz...

Izugarria izango da lan baldintzetan emango den atzerapena.

Datorren martxoaren 29an greba orokorra egitera deitzen dute sindikatu ezberdinek.

Badaude sobera arrazoi kalera irten eta erreforma honi ezetz esateko.

Sindikatu, kolektibo, alderdi politiko eta gizarte eragile ugariak babestu dute deialdia.

Utz ditzagun siglak alde batera eta batu gaitezen gure haserrea eta ezadostasuna adierazteko.

Krisia globala bada, erantzunak ere globala behar duelako izan.

Herritarren elkartasuna izan behar delako gure indarra, aurpegira barre egiten digun boterearen aurrean.

Lantegietatik, ikastetxeetatik, komertzioetatik, auzoetatik herrira, eta herriatik herrialde ezberdinetara zabaldu beharreko elkartasuna.

Zero Zabor, bai ala ez?

Aitor Lizarralde Aia

Oñati

Atez atekoaren inguruan sortzen ari den eztabaidaren inguruan nire hausnarketa konpartitu nahiko nuke.

Lehenengo eta behin, sistema honen aldeko eta aurkakoen iritziak alderatu nahiko nituzke, nirea gerorako utziz.

Laburtuz, aldekoen artean, sortzen den hondakinen portzentaje handia (%85-90 inguru) sailkatuta batzen dela eta honek, batzen dena birziklatuta, errauskailuaren beharrik ez izatera garamatzala.

Aurkakoen iritziak, aldiz, sistema hau oso garestia izateaz aparte, zikina eta jendea behartzea dela diote eta euren autua bosgarren edukiontzia litzateke.

Eta nik diot: arazoaren muinera al doaz aurkakoak? Zero Zabor filosofiarekin ados al daude? Zero Zabor filosofiaren oinarrietako bat zirkularra izatearena da; hau

da, ez du mundua mugagabea balitz bezala hartzen eta baliabideak ez dira alferrik galtzen. Nola lortzen da hori?

Bi betebeharrak ditugu:

-Ekonomian sartzen diren materialak berreskuragarriak izan daitezten neurriak jarri behar dira. Arauak eta legeak diseinu egoki horri begira egin behar dira.

-Ekonomia zirkuituan sartu diren materialak berreskuratzeko neurriak hartu behar dira. Hori bermatzeko bilketa sistema efektiboak jarri behar dira indarrean. Horrela zikloa ixtea lortzen da.

Azken helburu hau lortzeko ez dut atez atekoa ez den beste bilketa sistemarik ikusten, baina aurka daudenak gauza berdinez hitz egiten al dabilta? Ez dute aipatzen, baina, zergatik ez dute esaten bosgarren edukiontzia errauskailuaren beharra dakarrela?

Eta horrela bada, prest al gaude errauskailua gure bailaran jartzeko? Eta berau eraikitzea merkea al da?

Herri galdeketa egitea ere eskatzen da eta badirudi arazoa herri galdeketa bera dela, baina, berau egin beharko balitz, ze galdera egin beharko litzateke? *Zero Zabor filosofiarekin ados* bata eta, *bosgarren edukiontzia bai eta errauskailua ere bai*, bestea? Eta azken hau non? Gure bailaran? Ez! Gure bailaran ez! Gure bailaran bosgarren edukiontzia eta Zubietan inguruan bizi direnak izorra daitezela! Beraz, nire autua Zero Zabor filosofia aurrera eramatea litzateke, horretarako atez atekoa martxan jarritz.

Gipuzkoako Saskibaloiko Federazioari

Aitor Aranzabal

(Euskal Herrian Euskaraz) Bergara

Martxoaren 17an, Astigarragan, Astigarraga taldeak eta Soraluze BKE taldeak jokatuak partidan gertatutako salatu nahi dut.

Saskibaloiko partida honetan gertatutako falta baten ondoren, Soraluze BKE taldeko jokalaria bat epailearengana hurbildu zitzaion azalpen eske, euskaraz noski.

Hara non, epaile honek "a mi háblame en castellano" esan zion, modu ez egoki baten; honetaz gain, eta euskaraz zuzentzearen, teknika bat pitatu zion.

Baina kontua ez da hor amaitzen; partida amaitu bezain laster, jokalaria berriz joan zitzaion azalpen eske eta, hara non, epaile hau mahaira hurbildu eta jokalaria horren fitxa kentzeko eskatu zuen, honek dakarren guztiarekin.

Epaileari euskaraz zuzentzearen, Soraluze BKEko jokalaria honi saskibaloian jokatzeko fitxa kendu diote (federazioak kontraktorik esaten ez duen bitartean).

Hau guztia partidako aktan idatzita dago, eta bai Soraluze BKEk eta federazioak berak ere badute gertakari honen eta akta honen berri.

Hau guztia azalduta, gogor salatu eta deitoratu nahi dut saskibaloiko epaile honek izan zuen jarrera.

Ez dakit noren ardura izango den hau guztia aztertzea, baina Gipuzkoako Saskibaloiko Federazioari zuzentzen natzaio, horrelako kasurik berriz gerta ez dadin beharrezko diren neurri guztiak hartzeko eta epaile honi, hizkuntza eskubideen aurka egiteagatik kontuak eskatzeko.

Bada garaia gure herrian, Euskal Herrian, euskaraz bizitzeko dugun eskubidea onartua eta bermatua izateko.

Euskara, informazioa eta teknologia

Aitor Urrutia

Eskoriatza

Badira zenbait egun, daukagun informazio zurrumbilo guztian, jakin ahal izan genuela Foru Aldundiak informazio eta komunikazio teknologietan euskara sustatzeko dirulaguntzak ikaragarri jaitsi dituela.

Hain zuzen ere, 2011ko 507.601 eurotik, aurtengo 299.934 eurora. Batez beste, %41.

Izan ere, gobernatzea tokatzen denean erabakiak hartu behar izaten dira, eta erabaki horiek dira hoberen azaltzen dizkigutenak zeri ematen zaion lehentasuna.

Honen arabera, ez dirudi euskara eta teknologia egungo Gipuzkoako Foru Aldundiaren lehentasunen artean daudenik.

Baina, hala ere, ez pentsa Bilduko Foru Gobernuak horren erantzukizuna hartuko duenik.

Ez.

Oraingoan ere errudunak beste batzuk izango dira: krisia, EAJ, Lehman Brothers, neoliberalismoa, errepresioa, auskalo zer.

Eurak ez dira erantzule ezta euren erabakiak hartzen dituztenean ere.

Hori bai, kontraesanaren irudia garbitzeko, bihar edo etzi, Martin Garitano berbera ikus genezake, adibidez, *Informazioa, teknologia eta euskara jalgi zaitezte elkarrekin plazara* esan dezakeen pankarta baten atzean.

Hau ote ziklo berriaren estilo berria?

Non dago orain aintzazko hainbeste ordu eman dizkigun

abangoardiaren Fronte Kulturala?

Non, aurpegi ezagun bat burutzat izango duen gure intelektual konprometituen manifestua?

Non, horrelako kasuetan, bandera espainola instituzioetatik kendu gabe eta euskararen arlo honetan dirulaguntzak nabarmen jaisten dituenarentzat *Bildu español* esango duen pintada?

Euskara, informazioa eta teknologia gure herriaren etorkizunerako ezinbesteko hiru zutabe direla argi dago. Nortasuna, oraina eta geroa.

Informazioak orainean proiektatzen duen euskarazko nortasunaren teknologi geroa. Horri murriztu dio dirua Bilduk.

Atez atekoa

Lourdes Idoiaga

(EAJ-PNVko zinegotzia)

Oñati

Ados nago Jabi Altuberekin, zabor-bilketa sistemaren inguruan gertatzen ari den eztabaida onerako dela dioenean, neure ustez ere denok birziklatu behar dugulako, eta asko, gainera; baita egungoa hobetu eta Zero Zabor filosofiaren alde egin ere, nahiz eta hitzak dioena ezinezkoa den, helburua bera ona baita.

Kontsumo ohiturak aldatu behar ditugu, batetik, eta, bestetik, asko eta ondo birziklatu.

Bilketa-sistemari dagokionez, guk bosgarren edukiontzia alde egiten dugu, baina birziklatzeko erabateko konpromisoa bultzatuz, ez bosgarren edukiontzia kalean jarri eta kitto eginda.

Etkez etxe joanez, edukiontzi hori erabil dadin sustatu behar da, familiak kontzientziatu eta konbentzitu, birziklatzea sarrituz eta arduragabekeria zigortuz, eta abar.

Hau da defendatzen dugun eredu eta konbentzitura gaude European birziklatzean lortzen diren mailarik onenak lor ditzakegula.

Galdeketa buruz berriz esan behar da bosgarren edukiontzia aldeko erabakia hartu zeneko plenoan, Zero Zabor plataformaren eta ezker abertzalea/Bilduren aldetik, behin eta berriz eskatu zitzaigula galdeketa egiteko, nahiz sistema familientzat borondatezkoa zen.

Beraz, orain sistema derrigorrezkoa izanda, koherentzia hutsagatik, zentzuzkoa iruditzen zaigu Gobernura iritsitako Bilduk eta Zero Zabor taldeak orduan eskatzen zuten gauza bera eskatu eta egitea; berritot, koherentzia hutsagatik.

Jakina, plenoetako erabakiak beti dira bidezkoak

eta demokrazia parte-hartzailearen ondorio dira, baina, jakina, kasu guztietan, bai lehen eta bai orain.

Demokrazia eta justizia soziala, Euskal Herriak erabaki du: inposaketarik ez!

Jose Ramon Kortabarría

(LAB sindikatuaren izenean)

Bergara

Aspalditik egin nahi zutenari ekin diote krisiaren aitzakiaz: eredu osoa aldatu.

Hiru urtetako murrizketa eta erreformen ostean, nahikoa ez dela esaten digute, helburua ez delako inoiz izan zulotik ateratzea.

Helburua langileon kontura betikoak are gehiago aberastea da.

Eta bide honetan ez dute amore emango.

Azken lan erreformarekin, botere osoa eman diete enpresariei nahi dutena egiteko, langileekin ezer adostu behar izan gabe.

Honek miseria baino ez digu ekarriko, lan baldintzak kaskartu eta soldatak jaitea.

Eta gainera, ez du enplegurik sortuko. Eskubide sozialak ere erasotzen ari dira: murrizketak osasun eta hezkuntzan, pentsiodunen pobretzea, beharrian gehien dutenei prestazioak ukatzea, etxe barik uzten dituzten familiak...

Pribatizazioa eta negozioia da bidea, ordaindu ahal dituenak soilik ordainduko ditu zerbitzuak.

Luxuzko produktu bihurtzen ari dira orain arte eskubide unibertsal zirenak.

Itxurazko demokrazian bizi arren, inposaketaren bidez burutu dute jokaldia: botere ekonomikoak erabaki eta politikariek bete, Madrilen, Iruñean eta Gasteizen.

Herritarrok boterea berreskuratu behar dugu erabakiak geuk hartzeko, eta ez kapitalak.

Gure herriko egoera politiko, sindikal eta sozialak bide propioa jorratzeko aukera zabaltzen digu.

Beste eredu ekonomiko eta sozial bat eraiki behar dugu, lanaren eta aberastasunaren bidezko banaketan oinarritua, baina hori ezinezkoa da hondamendira garamatzen Espainia honetan; ezinezkoa da enpresari morroi izatea erabaki duten gobernu honen menpe.

Bertako eta Euskal Herrirako alternatiba eraikitzea goaz, inposaketatik aske.

Martxoaren 29an argi utziko dugu.

Saso berri bat hastera goaz.

HERRIAK

ARETXABALETAKO



San Martin Kofradiako batzordeko kideak. Martitzenean herritarren zalantzak argitzeko gertu izango dira kultura etxean, 18:00etan. | JOSETXO ARANTZABAL

"Zerbitzua hobetzearekin batera bazkide berriak lortu nahi ditu San Martin Kofradiak"

- ▶ Hileten gestioa egitea da kofradiaren zeregin nagusia
- ▶ Martitzenean kultura etxeko bigarren solairuan hitzordua

EDU MENDIBIL | ARETXABALETAKO

Kofradia bitxia da Aretxabaletako San Martin Kofradia. Hileten gestioa da haren egitekoa. Baina, askok uste dutenaren kontra, ez dauka zerikusirik elizarekin. Aseguru etxe pribatu batek eskaintzen dituen antzeko zerbitzuak eskaintzen ditu.

Gaur egun, zortzi lagun dira kofradiako batzordea osatzen dutenak: Ibon Agirre, Gorka Etxabe, Oier Etxebarria, Olaia Etxenausia, Iraide Iturbe, Ramon Iturricastillo, Mireia Olabe eta Mertxe Ziardegi. Zerbitzua hobetzea eta bazkide berriak egitea da haien helburua. "Gaur egun,

hileta batek eragin dezakeen zerbitzu minimoa eskaintzen du San Martin Kofradiak Funeraria Arrasate enpresaren bitartez. Gero 500 euroko diru-laguntza bat ematen dugu, norberak egindako gain zerbitzuei aurre egiteko. Guztira, 1.500 euro". Urteroko kuota kofradiako bazkide bakoitzeko 20 euro da. Hala ere, kofrade berriek alta emateko zenbateko bat ordaindu beharko lukete, kasuan kasu.

Onurarik gabeko elkartea

Irabazi asmorik gabeko elkartea da Aretxabaletako San Martin kofradia: "Beste aseguru etxeekin alderatuz gero, gu askoz ere

merkeagoak gara, ez baitugu kofradian onurarik bilatzen. Adibide moduan, 40 bat urteko bikote batek, bi semerekin, kofradian 80 euro ordaintzen du urte-

Zortzi lagun dira kofradiako batzordean; bilera deitu dute martitzenerako, kultura etxean

ro eta aseguru etxe batzuetan 200 eurotik gora ordaindu beharko lukete". Esan bezala, bazkide berriak lortzeko *kanpainan* dira kofradiako batzordekoak: "Familia asko identifikatu ditugu beraien gurasoen onurapean daudenak kofradian, nahiz eta familia propioa eratu duten. Ez daude datuak eguneratuta, eta kanpaina hau aprobetxatu nahi genuke datu guztiak eguneratzeko. Zortzi urtetik beherako seme-alabek ez baitute sarrerako kuotarik ordaindu beharrik izango". Aretxabaletara bizitzera etorri diren pertsonen ere zerbitzu honen berri eman nahi

diere, kofradiako kide izatearen onurak azaltzeko.

Zerbitzuak gaurkotu

Esandako moduan, zerbitzuak gaurko egoerara egokitzea da helburuetako bat. Besteak beste, ekitaldi zibilak abian jartzeko gestioak egiten dihardute azkenaldian: "Udalak badu arlo horretan ordenantza bat, hiletak Felix Inurrategi parkean egitea jasotzen duena, eta megafonia zerbitzu bat ere eskatu dugu horiek burutu ahal izateko. Eta, horretaz gainera, aprobetxatu nahi dugu komentatzeko litekeena dela aurtenguriko zerbitzua eskaintzen digun Arrasateko ehorztetxeak Aretxabaletan irekitzea zerbitzua. Horixe da asmoa, behintzat".

Bilera irekia martitzenean

Datorren martitzenean, hilaren 27an, 18:00eta, kultura etxeko bigarren solairuan izango dira, informazioa jaso nahi duen edonori laguntza emateko asmoz eta bazkide berriak harpidetzeko asmoz. 18:00etatik 20:00etara izango dira herritarrei zalantzak argitzeko gertu, eta parte hartzeko gonbidapena egin diete kofradiako batzordeko kideek herritarrei.

Era berean, San Martin Kofradiarekin interesa dutenek ere e-postaz eska dezakete informazioa: getxabe@arteman.org.

Pribatutasuna zaintzea lehentasun izango da Gizarte Ongizate Sailaren egoitza berrian

- ▶ Nafarroa etorbidean izango luke egoitza berria, Zerrajerako etxeen behe-barruetan
- ▶ Orain proiektua idazteko lanak bukatzen dabilta; Udalaren asmoa da uztailean ateratzea lehiaketara

UBANE MADERA | ARRASATE

Udaletxetik Nafarroa etorbidera lekuz aldatu gura du Udalak Gizarte Ongizate Saila. Hain justu ere, Zerrajerako etxeen behe-barruetara eraman gura du zerbitzu hori, 470 metro koadro dituen lokal batera. "Lokala Udalarena da, eta ospitale-anbulatorio-Udaltzaingoaren ondoan dagoenez, leku oso egokia iruditzen zaigu Gizarte Ongizate Sailarendako", adierazi du Amaia Larrañagak, Ongizate Saileko zinegotzi arduradunak.

Lokal berriarekin hainbat helburu lortu gura dituzte, baina orokorra da zerbitzua erabiltzen duten erabiltzaile "kopuru handiari kalitateko zerbitzua" eskaini gura izatea.



Zerrajerako etxeetako behe-barruak Udalarenak dira, eta oraindik hutsik eta itxita daude. | UBANE MADERA

Pribatutasuna

Bada, kalitate horren barruan, Udalaren lehentasunetako bat da zerbitzu horren pribatutasuna bermatzea, kontuan hartuta, zein izaten den Gizarte Ongizate Sailaren erabiltzaileen profila. "Askotan egoera larriaren dauden herritarrek etortzen dira Gizarte Ongizate Sailera eta lehentasun

handia da haien pribatutasuna zaintzea. Izan ere, gaur egun, zerbitzuko langile guztien aurrean egin behar izaten dute harremana Ongizate Saileko langileekin. Lokal berrian, berriz, bulego itxiak egingo dira, eta modu horretan, erabiltzaile bakoitzak harreman bakarra izango luke dagokion

-Gizarte Ongizate Saileko langilearekin", azaldu du Amaia Larrañaga zinegotziak.

Irisgarritasuna

Bestalde, egoitza berriak beteko duen beste lehentasun bat irisgarritasun egokia bermatzea da. Kontuan hartuta askotan zailtasu-

na duten erabiltzaileak joaten direla Ongizate Sailera laguntza eske, ba hori ere Udalak kontuan hartu gura izan duen ezaugarria da.

Kasu horretan, gaur egun Gizarte Ongizate Saila udaletxearen goiko solairuan dago, hirugarrenean. Lokal berrian, berriz, kalearen maila berean egongo

ONGIZATE SAILA DATUTAN

ZERBITZUAK	ERABILITZAILEAK
Zabalik dauden espedienteak	2.726
Larrialdietarako laguntzak	223
Etxez etxeko laguntzak	165
Araoak dituzten familietan interbentzioak	31

ITURRIA: GIZARTE ONGIZATE SAILA

da, beraz, erabiltzaileek ez dute batere oztoporik izango bertara iristeko.

Laster zabaldu gura

Asmoak asmo, baina, egoitza berria itxita eta obretan hasi barik dago. Arrazoia da proiektua idazten dabilzala. "Egoitzaren ezaugarrien planoak lantzen dabilta arkitektoak. Gure asmoa da, ahal bada, uztailean obrak lehiaketara ateratzeko moduan izatea, eta ea 2013an bukatzerik badugun, ahalik eta lasterren zabaldu ahal izateko. ahal bada 2013an bertan", aurreratu du Amaia Larrañagak, "ze guretako lehentasun handia dauka proiektu horrek", gaineratu du.

Aurten 20.000 euro bideratuko ditu Udalak proiektuaren hasierako pausoak emateko.

Ludoteka ibiltaria mozorro eta guzti, San Andres auzoan, bihar

Txatxilipurdi elkartearen ludoteka ibiltaria San Andres auzoko Bedoñabe Herri Eskolara iritsiko da bihar, zapatua (10:30ean, umeak; eta 12:30-13:30, haur eta gurasoak). Oraingoan, auzoko txikiendako jolas erraldoiak prestatu dituzte, eta mozorroak egiteko aukera ere egongo dela iragarri dute. Gainera, haur bakoitzak nahi duena egin dezake ludotekako materialarekin: pailazo, tigre edo pirata izan zapatu goizean besterik ez bada. Antolatzaileek San Andresko haur eta guraso guztiak gonbidatu gura dituzte ludotekara.

Herri eskolako hiru eraikinak lotzeko mendi irteera berezia

Arrasate Herri Eskolak hitzordua egin du bihar, zapatua, mendi irteera berezia egiteko. Herri eskola sortu zeneko 10. urteurrena ospatzeko ekimenen barruan kokatu dute biharko irteera. Eta euren helburua da eskolaren hiru eraikinak lotzea mendi irteera horrekin. Honako ibilbidea egingo dute: Herriko plazatik irten (09:00)- Bedoñabe-Erguin-Meatzerreka-San Kristobal-Mojategi eta Musakola (13:00). Azken horretan hamarretakoa jango dute (norberak eraman beharko du), eta musika eta sorpresak izango direla iragarri dute.



NEREA BAENA

Bigarrenean ere, gustura asko 84koak

Bigarren aldiz elkartu, eta 1984an jaiotako kinto ospakizuna egin zuten joan den martxoaren 17an, zapatua, argazkian azaltzen den gazte-koadrila horrek. "Primeran" pasa zuten eguna, eta zela ez, "horrelako asko izatea" espero dute. Oroitzapenerako argazkia ateratzeko ere aprobetxatu zuten tartetxoak.

URKULU
ILE APAINDEGI MISTOA

Zabaldu berria!

ESKAINITZA BEREZIAK:

Orraztea	10 €
Moztea	10 €
Kolorea ematea	11,50 €
Tratamendua ematea	3 €

Gizonentzako ile-moztea	8 €
Umeentzako ile-moztea (10 urtez beherakoak)	5 €

Zerrajerara 1, behe 3 • Arrasate • 698 72 44 71

arbolapeta
beinke
arrasate

BASATI
TABERNA
943 71 17 68

Udalak eta Ibai Artek lankidetzak hitzarmena sinatu berri dute

Arrasateko Udalak 31.000 eurorainoko ekarpena egingo dio Ibai Arteri

MIRYAM GALILEA | ARRASATE

Udalak eta Ibai Arte Merkatarien Elkartek lankidetzak hitzarmena sinatu dute, Udalak egingo dion diru ekarpenarekin elkarrekin Ekintza Plana egin dezan.

2007an Arrasaten bi merkataritza-ekipamendu berrien irekiaren eragina merkataritza sektorean azterketa egin zuen IKEI enpresak Arrasateko Udalarentzat, eta, hark diotenaren arabera, herriko txikizkako merkataritzako zenbait sektorek gastu-ihes nabarmena izaten dute; besteak beste, pertsonentzako ekipamenduan %46,9ko gastu-ihesa eta etxerako ekipamenduan %40,5ekoa.

Gastu-ihes horien kausak eragile desberdinen ondorio izan daitezke: beste merkataritza-gu-neetako eskaintza zabalagoa delako; kontsumo-ohiturak aldatu direlako; komunikazio-bideen

hobekuntzak... Faktore horiekin guztiekin, lehiakortasun-maila gora doa, eta gero eta ohikoagoa da merkatu potentzial beragatik hainbat merkataritza-gunetako eskaintzak lehian aritzea. Eragile horiek guztiek udalerriko denda txikietan eragin negatiboa izan duen errealitate berri bat deskribatzen dute.

Ibai Artek, 2012ko ekitaldirako, 2011 Merkataritza Dinamizazioan programaren bidez merkataritza teknikari baten laguntza du, sektorea suspertzeko ekimenak antolatzen. Elkartek Udalarik 2012rako Ekintza Plana aurkeztu zion otsailean, ekimen zehatz hauek eta ekitaldian zehar irten daitezkeenak egiteko: Merkemerkakua 2012, Arrasate bizirik aldizkaria, Merkataritza Berdearen Astea, Gabonetako kanpaina eta Ibai Arte txartela; eta bestelako ekimen puntualak: baserriarren

azokak, ardo bira eta Harreman tonbola, besteak beste.

Erakunde biek dagoeneko hitzartu dute Ekintza Plana egiteko Arrasateko Udalak 31.000 eurorainoko ekarpena egingo diola Ibai Arteri. Laugarren urtea da horrelako ekarpen bat jasotzen duela elkarrekin; oraingoan, aurrekoan baino 3.000 euro gehiago.

Aldi berean, Ibai Artek konpromisoa hartzen du 2012ko Ekintza Planeko ekimen guztiak egiteko; ekimen berririk edo aldaketarik egonez gero, Ibai Artek Udalarik azaldu beharko dio.



Inazio Azkarragaurizar, alkatea, eta Gabino Iartza, Ibai Artekoak. | MIRYAM GALILEA

Batzarkide berriak

Bestalde, Ibai Arte elkartearen azkeneko batzarrean lau batzordekide aldatu zituzten: Gema Arantzabal (Jose Arantzabal), Oskar Vitoria (Oskar Vitoria Bitxitegia), Ezequiel Gomez (Lora-

tegi) eta Antxon Abarrategi Dominguez (Hemen) sartu eta Eneritz Garasa (Ekobai), Miren Lasagabaster (Lasagabaster), Ikerne Heriz (JIFH) eta Eleonora Dulfova (Txuntxurunberde) irten dira, hain zuzen ere.

Une honetan 57.000 euroko defizita eragiten du autobus urbanoak

Defizit hori Arrasateko Udalak hartzen du bere gain

UBANE MADERA | ARRASATE


2011n Arrasate barruko urbanoaren erabilera %0,6 handitu zen. Hala ere, bidaiari kopurua "oso gutxi" igo dela uste du Arrasateko Udalak. Eta uste hori datu ekonomikoek indartu egiten dute, ezen, gaur egun, 57.000 euroko defizita eragiten dio-eta urbanoak Arrasateko Udalarik.

Gauzak horrela izan arren baina, Arrasateko Udalak zerbitzu publiko horri eusteko asmoa du. Hori bai, Inazio Azkarragaurizar alkateak joan den astean Goiena tbn iragarritako moduan, Udalak urbanoaren egoeraren azterketa egiteko asmoa dauka, beharrezko ikusten badu, urbanoaren erabilera egokitzeko.

Urbanoaren bidaiari jaitsiera igogailu publikoen irekierak eragin duela uste dute.

Urte hasiera hobea

Edozelan ere, 2012ko urte hasiera ez da horren beltza izaten ari urbanoarendako. Urtarrila eta otsaileko datuen arabera, hurre-



nez hurren 5.000 eta ia 3.000 bidaiari gehiagok erabili dute. Ikusi egin beharko da, beraz, zein den zerbitzuaren garapena. Adituen arabera, hiruzpalau urte beharko dira ikusteko zelakoa izango den garapen hori.

Iazko datuak

Bien bitartean, 2011k utzi dituen datuak honakoak dira: 149.895 bidaiarik erabili zuten urbanoa; egunero 500 bidaiarik batez beste. Egunik "arrakastatsuen" egubakoitza da, eta hilabeterik arrakastatsuen, berriz, iraila.

Arrasateko Egoitza Kristau Bautista inauguratuko dute etzi, domeka, San Andres auzoan

Azken hiru urteotako egoitza (Pablo Uranga kalekoa) txiki geratu zaiela-eta, Arrasateko Egoitza Kristau Bautistak berria egokitu du San Andres auzoan (2. zenbakia, A1 pabilioia). Bada, etzi domeka, inauguratu egingo dute, 19:00etan. Helburua da "Jaungoikoari esker ematea hasiera berri honengatik". "Kantuak, dantza eta hausnarketa izango dira, eta bukatzean, otordutxo", iragarri dute; eta ekitaldian parte hartzeko gonbitea egin diete arrasatear eta inguruko. 30 bat fededunek osatzen dute kongregazio hori gaur egun.

Eslu: amoniako bako tinduak erabiltzen lehenengoetakoak dira Arrasaten

Maria Luisa eta Estela Perez Palma ahizpek sortu zuten Eslu (Estela-Luisi) ile-apaindegia eta edertze aretoa orain dela 36 urte. Olarte kalean dute negozioa gaur egun.

Ile-apaindegia jendez beteta aurkitu dugu Esluren eskaintzaren bila joan garenean. Izan ere, Luisi ugazabak nabarmendu duen moduan: "Bezere berriez gain, zabaldu genuenetik datozen bezeroak ditugu, oso fidelak, adin askotarikoak, eta horrek asko lagundu digu krisiari aurre egiten".

Lehen mailako markak ile-apaindegia baino gehiagoda Eslu, estetika zerbitzua ere eskaintzen du-eta (09:00-12:00 eta 14:30-19:00). "Depilazioa, maki-lajea, bonbilla bereziak erabiltzen dituzte den manikura (15 egunean irauten du), eta nabarmenduko nuke lehen mailako markekin lan egiten dugula, horien artean L'oreal markarekin".



Gema Perez, Jone Maeztu eta Estela eta Luisi Perez Palma.

“Negozioa zabaldu genuenetik guregana datozen bezeroak ditugu, oso fidelak. Adin askotarikoak dira, eta horrek asko lagundu digu krisiari aurre egiten.”

Amoniako bako tinduak

Horrekin lotuta, tinduak emateko azken berrikuntzak erabiltzen dituztela azpimarratu gura izan du Luisik: "Inoa tinduak erabiltzen ditugu: amoniakoa kendu eta olio erabiltzen dute. Tinduetan egindako aurkikuntza garrantzitsua

izan da, ileari eta, batez ere, buruko ile-larruari ez diolako kalterik egiten. Orain 15 egun irten den Inoa berriarekin ere lanean gabilta dagoeneko. Nik uste dut Arrasaten lehenengoetakoak izango gara tindu horiek erabiltzen".

Etengabeko formazioa

Eta tinduez gain, orokorrean, euren lanerako berrikuntzak oso kontuan hartzen dituztela kontatu du. Azken moden berri izateko, urtero egiten dituzte formazio ikastaroak: "Madrilan, Mediterraneoan, Bilbon..."

ILE APAINDEGIA

Olarte 18, 20500 Arrasate Tel.: 943 79 37 88

ZALDIBAR

EMAITZAK (KOPA)

Dublin-Abokajarro	1-6
Dribling-Aldatz	5-2
McAwen-Iritz	3-5
AT.Betrayer-Portaboleiros	7-1
Fidel & Discipulos-Iluna	3-4
Aston Birra-Ekartz	8-1
Iluntz-Lasagabaster	2-4

SAILKAPENA (KOPA)

A TALDEA	P	J
1 Abokajarro	3	1
2 Dribling	3	1
3 Iritz	3	1
4 Sonografos	0	0
5 McAwen	0	1
6 Aldatz	0	1
7 Dublin	0	1
B 1. TALDEA	P	J
1 AT Betrayer	3	1
2 Iluntz	3	1
3 Fidel & Discipulos	0	1
4 Portaboleiros	0	1
B 2. TALDEA	P	J
1 Aston Birra	3	1
2 Lasagabaster	3	1
3 Iluntz	0	1
4 Ekartz	0	1

PARTIDUAK

MARTXOAK 24, ZAPATUA

11:00 Dublin-Iritz / Antolatzaileak

12:00 Abokajarro-Lasagabast. / Antola.

17:30 Finala / Antolatzaileak.

A multzoko kopako partidu erabakigarriak, asteburuan

Kopako lehenengo kanporaketak jokatu ostean, A multzo taldeendako bigarren jardunaldiko partiduak datoz. Multzo hori denez handiena, gainontzeko multzoetako taldeek atsedean hartzeko aprobeztatu dute.

MUK kanpoan jokatuko du Biok Zerbitzuak taldearen kontra

Joan den asteburuko garaipen garrantzitsuen ostean, MUK sailkapenean garaipen bat gehiago duen Biok Zerbitzuak taldearen kontra jokatuko du bihar Ordizian (18:00). Joan den asteko garaipen garrantzitsuen ostean, kanpoan irabaztea aurrerapauso galanta litzateke.

Eskolarteko Abesbatzen Topaketa egingo dute bihar, 25. aldiz

la 200 ikasle-irakaslek Uarkape pilotalekua hartuko dute, 18:00etan

UBANE MADERA | ARRASATE

25 urte daramatza Arizmendi Ikastolak Eskolarteko Abesbatzen Topaketa antolatzen; horrexegatik aurtengo hitzordua berezia izango da. Batetik, omenaldia egingo diete abesbatzen topaketa bultzatu zuten pertsoneri. Eta bestetik, aurtengo topaketa bera ere desberdina izango da.

Kantua eta omenaldia

Bihar, zapatua, 18:00etan zabalduko dituzte Uarkape pilotalekuko ateak topaketarako.

Egitaraua hasteko, Oñatiko Txantxiku Ikastolako 3. eta 4. mailako 27 kantarik *Kili-Kili bat* (Eguzkitza-Imanol) eta *Goazen!*

(Haurrock) abestiak kantatuko dituzte. Eta haien ostean, Arizmendiko Almen eta Gaztelupe guneko Bigarren Hezkuntzako 45 kantarik *Ilun* (Musika: Joselu Rz de Gordo/Hitzak: Xabier Olasso) eta John Lennon-en *Imagine* abestiak kantatuko dute.

Horren ondoren, berriz, omenaldia egingo dute. Hain zuzen ere, 25 urteotan Eskolarteko Abesbatzen Topaketa bultzatu duten 11 lagunek Arizmendi Ikastolaren esker ona jasoko dute.

Ipuin musikala

Azkenik, ostera ere kantuek hartuko dute Uarkape. Lehenengo *Jostailugilea* izeneko ipuin musi-

kala taularatuko dute ehun ikasle baino gehiagok.

Labur esanda, jostailuak egiten dituen arotz baten istorioa kontatzen du Josu Elberdinen (Pasaia, 1976) *Jostailugilea* lanak. Eta hori taularatzen jardungo dute Arrasate-Eskoriatzako Arizmendiko gunetako ikasleek. Goikobalu Abesbatzak ere parte hartuko du ekimen horretan. Eta aipatzekoa da, baita ere, ipuinean erabiliko dituzten atrezzo eta dekoratuak ikasleek eurek egingakoak direla.

Kantu berezia

Topaketaren amaierako ekitaldi modura, berriz, ekimenean par-



Bihako omenaldia jasoko duten kideak, plazan. | UBANE MADERA

Arkada Social beste istorio batekin dator, sorterrira

Etxekoek gaur, egubakoitza, egingo dute kontzertua; bihar 69 Revoluciones madrildarrak izango dira

U.M. | ARRASATE

Ratz-zinger (Bilbo), Los 440 (Arrasate) eta Arkada Social (Arrasate) taldeek kontzertua egingo dute gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean (sarrera: 5 euro).

Berritasunez betetako kontzertua izango da. Batetik, Los 440 taldeak debuta egingo duela. Bestetik, 2006an Arrasaten eta inguruko herrietan zorame-na eragin zuen Arkada Social talde mitikoa bueltan datorrela. Eta azkenik, Arkada Socialek

berak atzo (eguna) bertan argitaratutako *Beste istorio bat* disko berria aurkeztuko duelako herrian.

Bestalde, kontzertuaren beste berezitasunetako bat izango da Mikel Arriaran Arkada Socialeko gitarrak-jole berriarendako Arrasateko lehen kontzertua izango dela.

Abesti mitikoak

Gaurko zuzeneko "ondo" antolatu nahian dabilzala kontatu du

Hodei Beitiak, Arkada Social taldeko abeslari eta baxu-joleak, euren estiloa den "zuzeneko indartsua" ekartzeko asmoa dutela, besteak beste. 18 bat abesti joko dituzte: "Disko berriak sei kantu berri ditu; beraz, gainontzeko guztiak abesti mitikoak" izango direla gaineratu du musikariak.

Gaurkoaren ostean, beste lau kontzertu hitzartuta dituzte arrasatearrek. Besteak beste, maiatzaren 26an Arrasaten jardungo dute Beste Bat peñaren jaian.

Bihar, Madril-Arrasate

Bestalde, bihar, zapatua, 69 Revoluciones madrildarren (Taxi eta Sex Museum taldeetako kideak izandakoak) eta Arrasateko Convicts taldeen txanda izango da, 22:30ean hasita. Sarrera bost euro da.

OMENALDIA JASOKO DUTENAK

Abeslari eta zuzendariak:

Isa Gallastegi.

Itziar Aranburu.

Mapi Fernandez.

Amaia Aspiazu.

Gurutze Uribarren.

Mariasun Berezibar.

Arantza Uriarte.

Loli Ordoki.

Antolatzaileak eta beste:

Arantza Galdos.

Ramon Loiti.

Edurne Erauskin.

te hartu duten ia 200 ikasleek Amaia Pagaldai eta Hirune Iribekaposek topaketaren 25. urteurrenaren harira egindako kantu berezia abestuko dute.

Sarreraren %25 Lodosara

Eskolarteko Abesbatzen Topaketarako sarrerak hiru eurotan izango dira salgai. Aldez aurretik erosi behar dira: 12:00etatik 13:00etara edo 17:00etatik aurrera.

Sarrera horien bitartez batuko duten diruaren %25 Lodosako Ibaialde Ikastolara bideratuko du Arizmendi Ikastolak.

Edozelen ere, abesbatzetan parte hartuko dutenei aldez aurretik eman dizkiete sarrerak.

Minbizia eta heriotza oinarri, 'Harezko ipuinak' lanean

Gaur egun gizartean tabu diren bi gai landu behar ditu Markeliñe antzerki taldeak (domekan, 17:00etan) *Harezko ipuinak* izeneko haurrendako ikuskizunean. "Zaila egiten zaigu gai hauetaz normaltasunez mintzatzea. Umorearekin tratatzeari buruz, zer esan. Ezinezkoa! Iraingarria! Umeentzako antzerki lan bat honi buruz asmatzea, desegokia! Gure intenzioa ideia hauek apurtzea da".

Musika, txotxongilo, magia eta bestelako efektuekin lagundutako antzezlan da Markeliñe Amaia Udal Antzokian taularatuko duena.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosa-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.

- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsoneri laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Restaurante
UGARAN
Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56



Auzo-alkateak, trikitilariak eta antolatzaileak lrala kalean. | UBANE MADERA

Erramu-zapatua: txartelak salgai daude bazkarirako

400 lagunendako lekua egingo dute Udal Pilotalekuan martxoaren 31n, 14:30ean

UBANE MADERA | BERGARA

Osintxu, Ubera, Angiozar, Basalgo eta Elorregiko auzo alkateen eta herriko trikitilarien babesarekin aurkeztu dute aurtengo Erramu-zapatuko herri bazkaria.

Ekimen herriko horren izaeraren erakusle izan da aurkezpen prentsaurreko hori: "Azoka eguna izatean, auzotarrak ere etortzen dira, baita auzo-alkateak ere; askotariko jendea dator, eta hori da polita", adierazi du Beñat Iñarrak, antolatzaileetako batek.

Eta jende askok parte hartzen duen seinale da txartelak salgai jarri orduko hasi direla erosten. 12 eurotan taberna hauetan eskura daitezke: Hamaika, Deportibo, Euxebio, Bule, Ariznoa, Kortazar eta Frontoian.

Txotx eta kalejira

Egitarauari dagokionez, sagardo kupel bik (txotx egiteko) lagundutako menu gozo askoa iragarri dute. Eta amaitzeko, "hainbat musikariek egun horretarako sortzen duten txarangaz lagunduta", kalejira.

Martxoaren 29a: goizean piketeak eta arratsaldean manifestazioa izango dira

ENKO AZKARATE | BERGARA

Bergarako Greba Asanbladak hainbat ekimen bultzatu ditu egunotan, martxoaren 29ko greba egunari begira. Batetik, martitzenean, "greba-batzarra" egin zuten eta bultzagileek aitortu dute "oso emankorra" izan zela.

Greba egunean zer

Besteak beste, martxoaren 29ko egunaren nondik norakoak adostu zituzten: goizean pikete informatiboak; 09:30etan kalejira

plazatik hasita; eguerdian hiri-buruetan manifestazioak eta 19:00etan manifestazioa Bergarako plazan.

Elkarretaratzea eta hitzaldia

Eguaztenean, berriz, elkarretaratzea egin zuten Ibargarain, lelo hau erabilta: *Murrizketak danoi eragiten doskue, martxoak 29 greba orokorra*. Ondoren, Nekane Juradok ekonomian aditua den psikologoak, berbal dia egin zuen.

Atez atekoaren gaineko hiru mozio aztertuko dituzte asteleheneko osoko bilkuran

Mozioak izango dira protagonista Bergarako Udalak astelehenean, hilaren 26an, 19:30ean, egingo duen osoko bilkuran. Hiru mozio atez atekoaren gainekoak dira: PSE-EEK, EAJk eta Bilduk aurkeztutakoak, hain zuzen ere. Zaborraren kudeaketaren gaineko eztabaida izango da osokoan. Alderdi bakoitzak bere ikuspuntua defendatuko du. Gainera, beste hainbat mozio eta puntu aztertuko dituzte. Guztira, 20 gai jaso ditu idazkariak osokoaren zerrandan.

San Joxepeko presidente kargua utziko du Arrondok

Zazpi urteren ondoren erretiratuen zuzendaritza batzordea utziko du; batzarra, hilaren 28an

MIREIA BIKUÑA | BERGARA

San Joxepe erretiratuen elkarteak urteko batzar orokorra egingo du hilaren 28an, egoitzako aretoan. Lehen deialdia 16:30erako da eta bigarrena, 17:30erako.

Hainbat puntu landu eta onartuko dituzte. Aipagarriena zuzendaritza batzordearen berritzea izango da. Hamar kide ditu batzordeak eta bi aldatuko dituzte. "Berez, lau kideri tokatzen zaigu batzordea uztea, baina bik jarraitzea erabaki dute. Hori horrela, bi kide berri bakarrik aukeratu beharko ditugu", esan digu San Joxepeko presidente Carlos Arrondok.

Presidente berria

Behin zuzendaritza batzordea osatu ondoren, euren artean aukeratu beharko dute presidente berria. Izan ere, Carlos Arrondok zuzendaritza batzordea eta presidente kargua utzi egingo ditu. "Zuzendaritza berria osatzen dutenen artean aukeratu beharko dute presidente berria", dio.



Carlos Arrondo. | GOIENA

Zazpi urteren ondoren presidente izateari utziko dio, eta "gogoa" baduela esan digu: "Deseatzen nago. Zazpi urte gogor izan dira. Erreleboa emateko ordua dela uste dut. Ilusioarekin hartu nuen kargua, baina gerora ikusi dut, ez dela erraza erretiratuen elkarteko presidente izatea. Asko exijitzen dutenek, ez dute ezer egiten. Ordu asko dira. Zapatue-

tan eta domekatan izan ezik, egunero neukan lana elkartean", esan digu.

Dena den, presidente kargua utzi arren, kolaboratzaile moduan lanean jarraituko duela esan digu: "Aurrerantzean lasaiago ibiliko naiz. Zuzendaritzako kide ez naiz izango, baina laguntzaile moduan gongo naiz".

Txosten ekonomikoa

Urteko ohiko batzarrean beste hainbat puntu ere adostuko dituzte; besteak beste, 2011ko txosten ekonomikoa eta 2012rako ekintzen egitaraua. "Diru kontuen gaineko txostena eginda daukagu, eta bazkideei erakutsiko diegu. Gainera, urteko ekintzen zerranda ere badaukagu. Proposamenak dira, baina bazkideen oniritzia behar dute", dio Arrondok.

Oraingoz, ekintzen egitaraua zirriborroa besterik ez da. "Guk ekintza guztietarako datak ipini ditugu, baina aldaketak egon daitezke urtean zehar", esan digu Arrondok.

LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK EZAGUTUZ

"Lanbide Heziketako praktikek lan-mundua ezagutzen laguntzen dute; gero zerekin topo egingo duzun jakiteko aukera duzu"

Rosa Maria Casado Dopazo arrasatearra goi mailako Administrazio eta Finantza Heziketa zikloa ikasten ari da, lehenengo mailan, 50 urterekin eta ilusio handiz. Horra heltzeko, ordea, ibilbide luzea egin behar izan du. **Urte batzuk daramatzazu ikasten. Zergatik erabaki zenuen ikasten hastea?**

Urte askoan lana eta familiako negozioan idazkari lanak bateratu ditut. Lanak behera egin zuenean, zerbait egitea pentsatu nuen. Ez nituen jarraitu nahi gaztetan bukatu gabe utzi nituen Elektronikako ikasketak, eta behetik gora hasi nintzen.

Zein ibilbide jarraitu duzu Lanbide Heziketako goi mailako ziklo bat egiteko?

Miguel Altunan ofimatika ikastaro bat egin nuen, eta handik Helduen Heziketa Zentrora joan nintzen. DBHko titulua eta unibertsitateko 45 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu nuen. Iaz, goi mailako heziketa zikloetarako sarbide-proba egin nuen.

Zergatik Lanbide Heziketa eta ez unibertsitatea?

Nik nahi nuena zen gauza motz eta praktikoa. Lanbide Heziketako prak-



tikek lan-mundua ezagutzen laguntzen dute, eta gero zerekin topo egingo duzun jakiteko aukera duzu.

Zer eman dizu Lanbide Heziketako?

Asebetetze handia da nire adinean ikasketak jarraitzeko gai naizela ikustea. Gainera, ikaskide gazteen artean egotea egokitu zait, eta oso pozik nago. Bestalde, urte askoan lanean egon ondoren, alabak berriro hasi ditu ikasketak.

Ikasketak bukatzerakoan lanean hasteko asmorik badaukazu?

Zikloa egiten hasi arte lanean eta ikasten jardun dut, baina orain ikasketetan zentratuta nago. Ez nabil ikasten lan egiteko, erronka hutsa da. Ez dakit lanik aurkitzeko balio duen, gazteak ni baino askoz prestuago daudelako.



LASTER LANBIDE HEZIKETAREN AZOKA GUREAN!

Formazio eskaintza
Enplegu zerbitzuak
Ekintzaileentzako zerbitzuak
Tailer eta hitzaldiak
Esperimentuak eta lehiaketak...

- **NORENTZAT?** Ikasle, langile eta langabetuentzat. Formazio edota lan bila dabilenarentzat.
- **Zein gairen gaineko hitzaldi edo tailerrak egongo dira?** Atzerrian lan egiteko aukerak, Lanbide ziurtagiriak, Lanbide Heziketako esperientziak, Ekintzaile gazteen esperientziak, eta lana bilatzeko elkarriketak nola prestatu, besteak beste.

- **APIRILAK 19 eta 20; Kulturate; Arrasate**



www.facebook.com/goiazdebagoiena



DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA

Miguel Sagastume 'Urkiko Magoa' | Soinu-jolea

"Habanan, egunero goizeko hirurak arte jotzen genuen"

Debagoieneko musika eskolen kontzertuan 'Urkiko Magoa'-ri omenaldia egingo diote gaur

EDU MENDIBIL | BERGARA

Atzo bertan 81 urte egin zituen Miguel Sagastumek eta gaur, egubakoitza, Debagoieneko musika eskolen kontzertuan omenaldia jasoko du Santa Marinan, 20:00etan. Soinu-joleen artean erreferente bat izan da *Urkiko Magoa*; ezkontzak, erromeriak edota Kubako gauak alaitu ditu. Habanan, Tropicana kabareteko orkestran jardun zuen 1950eko hamarkadako hasieran. Izenak eta fetxak ahazten hasia dela diosku Sagastumek, baina jardun eta umore oneko gizona da, Eibarko hizkerari eusten diona. Medikuak soinua jotzea debekatu zion orain dela hiru bat urte, gehiegizko *zigorra* musika barruan daramanarentzat. Elkarriketaren amaieran, 46 urtez alboan duen Lucchini soinua atera, eta *Lágrimas negras*, *Siboney* eta *Mi casita de papel* kantuen doinuak eskaini dizkigu.

Zure lehenbiziko soinua gogoratzen dugu, Miguel?

Bai, horixe! Larrinaga y Gerrini markakoa zen eta 3.900 pezeta ordaindu zuen aitak, txahal baten prezioa.

Aitak bultzatu omen zintuen soinua jotzera...

Aitari asko gustatzen zitzaion, bai, eta soinu diatonikoa jotzen zuen hark, baserrian genuen tabernan gehienbat. Pianoa ikasten ere ibili nintzen lau urtez eta ondoren, 13 urterekin-edo, Bergarara etorri nintzen; Miguel Gonzalez Bastidak ematen zizkigun eskolak, Arruriagako Acedo-Loiolako etxean. Handik atera eta askotan gaurko Danok-Bat elkartearen tokian zegoen sagardotegira joaten ginen, sagardoa edatera eta sardinak jatera.

Eta gaztetan joan zinen Kubara...

Gernika aldean eta asko ibiltzen nintzen, ezkontza eta erromeriatan eta halako baten, Tropicana bazkideetako bat, euskalduna bera, ezagutu nuen. Hark egin zidan Habanara joateko proposamena.

19 urte bete gabe nituen artean, eta aitari baimena eskatzeko esan nion. Izan ere, soldadutza egin behar nuen... Azkenean, aitak baimena eman zidan eta agiriak lortzeko orduan soldadutza Habana-ko Espainiako enbaxadan egin beharko nuela agindu zidaten. Amarekin joan nintzen Kubara eta 31 egun egin genituen barkuan Habanara heltzeko, pentsa...

"13 urterekin Eibartik Bergarara etortzen nintzen soinu eskolak jasotzera"



Habanan, Tropicana kabareteko orkestrako bi kiderekin.



Bergarako ospakizun baten, 1963. urte aldera, San Martin plazan.



Miguel Sagastume, *Urkiko Magoa*, 46 urtez izan duen soinuarekin. | E.M.

"60 urteren ostean, Bebo Valdes agurtu nuen Donostian, Kursaalaren"

Ikustekoa izango zen Kuba urte haieran...

Estatu Batuetatik jende asko etortzen zen, han jokoa debekatuta zutelako. Montmartre, Sans Souci eta Tropicana ziren kabaret ezagunenak. Tropicanan hiru orkestra ziren eta gurean 23 musiko ginen; egunero goizeko hirurak arte jotzen genuen. Eguenetan jai izaten genuen eta askotan arrantzan egitera joaten ginen. Eskuarekin otarrain mordo bat hartutakoa naiz ni han... Euskaldunak ere baziren, tardean zetan jokatzaren pilotariak. Habanako Euskal Etxean asko ibiltzen ginen.

Bebo Valdes ezaguna ere zurekin jardun zuten Tropicanan, ala?

Bai, oso jatorra da eta pianista bikaina, hura eta haren semea ere bai, Chucho. Mutikoa zela ezagutu nuen Chucho Kuban... Orain dela bizpahiru urte etorri ziren biak Donostiara, Kursaalera, eta kamerinotan elkar agurtzeko aukera izan genuen. Chucho eta nire etxekoak harrিতa Bebo eta biok aspaldiko kontuak gogoratzen hasi ginenean...

Egon zara inoiz Kuban berriz?

1954an bueltatu ginen Kubatik eta 1959an ezkondu nintzen Bergarara. 1984an, zilarrezko ezteiak bete genituenean, emaztea eta biok ospakizun bidaiara egin genuen. Baina hegazkinen greba tarteko, ezin izan genuen Mexikotik Kubara pasatu eta ez naiz Kubara bueltatu ez... Acapulcon geratu behar izan genuen, eta zera esaten zidaten: hobe zela Kubako lehengo oroitzapenekin geratzea, ondorengoak ez zuelako zerikusirik nik ezagututakoarekin. Ondo gogoan dut oraindik Habanako katedraletik gertu, O'Reilly kalean, genuen etxea. Alaba nagusia eta haren senarra egondakoak dira.

Grabazioak badituzu etxean?

Bai, neuk etxean grabatutakoak gehienak. Mordo ba ditut. Orain, medikuak aginduta, ez dut soinua jotzen. Lana eta autoa hartzea debekatu didate... Lana, oster, ez, e? Hau da hau!



OHARRAK

URAREN KULTURA BERRIA, GAUR AROZTEGIN

Uraren Kultura berriaren inguruko ekitaldia ospatuko da gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan, 19:30ean. Iñaki Antiguada, EHUko hidrogeologia katedradunaren aurkezpenaren ondoren, Javier Martínez Gil hidrogeologoa *La nueva cultura del agua* hitzaldia egingo du. Jarraian, Montse Castilla kantariaren saioa izango da. Ekitaldira hurbiltzen direnek liburu orogarrria jasoko dute. Ondoren, luntx-solasaldian parte hartzeko aukera izango dute, 21:30ak aldera. Era berean, Ingurumen Astearen barruan, *Ibaiak eta Uraren kultura berria* erakusketa ikusgai dago Aroztegin, domekara arte.

SAN MARTZIALGO KANTINARAKO ESKAERAK

Uztailaren Iean San Martzialgo kanpan irekiko den kantina eta jarriko den txosnaren esplotazioa adjudikatzeko baldintzak kaleratu ditu Udalak. Bergarakoak izan eta irabazi asmorik ez duten kultura edo kirol elkarteek, talde herrikoiek eta elkarte benefikoek aurkez ditzakete eskaerak. Maiatzaren 30era arte jaso dituzte eskaerak udaletxean.

DIPUTAZIOKO UDALEKUAK: IZEN-EMATEA, GAUR ARTE

Udaleko Gazteria eta Hezkuntza zerbitzuetatik jakitera eman dute Diputazioak antolatzen dituen udalekuetan izena emateko epea gaur, egubakoitza, amaituko dela. Udalekuak 7-13 urte bitarteko neska-mutikoei zuzendutakoak dira eta txandak euskaldunak eta elebidunak izango dira. Edozein argibidetarako kultura etxeko Gazteria eta Hezkuntza zerbitzura jo dezakezue, bulego orduetan, edo bestela hango 943 77 91 60 telefono zenbakira deituta.

1982AN JAIOTAKOEN BAZKARIA HILAREN 31N

1982an jaiotakoek bazkaria egingo dute Erramu Zapatuan, martxoaren 31n. Agorrosingo tabernan izango da bazkaria eta aurrez 25 euro ordaindu behar dira Caja Ruraleko kontu honetan: 3008 0198 27 2475491219. Bazkari egunean 12:00etan elkartuko dira Bule tabernan.

ARTISTAK ETA HERRI BARRUKO ERAKUSLEIHOAK

Udalak egitasmo bat jarri du abian alde zaharrean hutsik dauden lokal komertzialen erakusleihoak Bergarako artisten artelanez dotoretzeko. Informazioa jaso ahal izateko zuzendu Beart herriko artisten elkartera (635 71 32 69 telefono zenbakia) edo kultura etxera (943 77 91 58). Izen-ematea astelehenera arte, hilaren 26ra arte, dago zabalik.



Gosari bereziak

09:00etatik zabalik!

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitarakoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

Eneko Ioldik jantzi du Soralucoeko lau t'erdiko txapela

Final parekatuan 22-15 irabazi zion Bixintxo Bilbaori

XABIER URTZELAI | BERGARA

Afizionatu mailan ia guztia irabazi duen pilotari osoa eta gaztetasun eta freskotasunaz kategoria horretan geroago eta protagonismo handiagoa izaten dabilena izan ziren aurrez aurre, Soraluco sariko lau t'erdikoan: Eneko Ioldi eta Bixintxo Bilbao zein baino zein gehiago.

Partidua indartsu hasi zuen Ioldik, sakeaz min egiteko gaitasun handia du, eta konturatu orduko 4-0 zen aurretik. Bilbaok, baina, garaiz erreakzionatu zuen (4-4). Bixintxok ikusgarriago jokatzen du, azkarrago, nerbioaz. Ioldi ez da horren ikusgarria, baina denean moldatzen da ondo, eta seguru jokatzen du. Eta finalan ondo erabili zituen bere aldeko armak. Ioldik 11-9koa egin zuenean aprobetxatu zuen sakez berriro ere min egiteko, azken tantoetan Bixintxo ondo zebilelako sakearen aurrean erantzuten. Lau tantoko aldea hartu zuen (13-9), baina Bilbaok ez zuen amore emateko asmorik (13-11).

Partiduaren erdialdean etorri ziren tanto politenak, tanteo luzeak bikain amaituta; inork ez zuen alderik hartzen (16-15),



Eneko Ioldi, txapelarekin, Soraluco enpresako ordezkariarekin. | X.U.

baina ordurako Bilbaok egin zuen partiduko azken tantoa. Elkarriz estropezu egin eta Ioldi lurrera joan zenean epaileak *buelta* eman zuen, eta badirudi ipurdiko horrek Ioldi esnarazi zuela (17-15). Handik aurrera, batek bakarrik asmatu zuen partidua errematzen, gerriko gorria zeramanak (22-15).

Mugurutza hirugarren

Finalaren aurretik Jakak eta Ander Mugurutza bergararrak jokatu zuten hirugarren sailkatzeako partidua. Erraz irabazi zuen Mugurutzak (22-8), Jakari kosta egin zitzaion partiduan sartzea, edo Mugurutzak ez zion sartzen utzi; txapelketa ederra egin du etxeko pilotariak.

ENEKO IOLDI
TXAPELDUNA

"Kosta egin zait partidua irabaztea, sufritu egin dut dezente"

Ioldik eta Bilbaok final estua jokatu zuten martitzenean, azken tantoetara arte bietako inork ez zuen abantailarik hartu markagailuan.

Duela bi urteko arantza aterata?

Bai, orduan Onsaloren kontra galdu nuen txapelketako finala, eta irabazi egin dut orain, oso pozik nago.

Txapelketa ona egin duzu.

Oso balorazio ona egiten dut gustura ibili naizelako. Gainera, Bergarako antolatzaileek urtero-urtero oso ondo hartzen gaituzte, eta pilotalekua ere eszenatoki aparta da. Finala, bestalde, oso parekatua izan da; kanpotik ez dakit zelan ikusi den, baina kontrarioak ondo estutu nau.

Ospatzeko asmorik?

Hasteko, gaur afaltzera joango gara antolatzaile eta beste pilotariekin.



X.U.

ANDER MUGURUTZA
HIRUGARREN SAILKATUA

"Pena da ez dela ikusleendako partidua izan"

Txapelketa ona egin du pilotari bergararrak, 60 pilotari inguruk hasi zuten torneo, eta Mugurutza hirugarren sailkatu da.

Lan ona, nahiz eta azken partidua ez den nahi moduko ikusgarria izan.

Ez, Jakaren benetako maila azken tantoetan erakutsi duena da, baina Arratibelen kontrako partiduan ere antzerako zerbait gertatu zitzaion, kosta egin zitzaioala partiduan sartzea. Ni oso pozik nago egin dudana txapelketarekin, eta gaurko joko mailarekin. Pena ikusleendako ez dela partidua polita izan.

Aurrekoan komentatu moduan zure maila erakustek arduratzen zintuen.

Bai, hotz hasiz gero erraza delako Jakari pasa zaiona pasatzea, eta gatzik gabeko partidua jokatzea. Pozik geratu naiz.



X.U.

Pazkoetarako kartel lehiaketa deitu du Udalak

Lanak apirilaren 24rako aurkeztu behar dira, kultura etxean; irabazleak 400 euro jasoko ditu

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Udalak Pazkoetarako egitarauaren azala ilustratzeko kartel lehiaketa deitu du. Lehiaketan edozein pertsonak har dezake parte, eta 400 euro jasoko ditu irabazleak, nahiz eta hutsik ere gera daitekeen epaimahaiak gutxienezko kalitatez ez dagoela uste badu. Lanak kultura etxean aurkeztu beharko dira apirilaren 24ko 13:00ak baino lehen.

Bete beharreko baldintzak

Parte hartzeko bete beharreko baldintzei dagokionez, kartelek 24x34 zentimetroko neurria izan beharko dute, eta formatu bertikala. Aurkezteko moduari dagokionez, kartelok paperean inprimatuta eta kartoizko oinarri baten gainean aurkeztu beharko dira. Era berean, kartelaren kopia digitala CD batean ere aurkeztu beharko da. Teknikaren kasuan, librea erabili ahal izango da, baina ezinbestean honako testua eroan beharko du: *Pentekoste jaiak 2012 Bergara*.

Lanak originalak izan beharko dute, egileak berak sortuak, argitaratu gabeak eta beste lehia-

keta baten inoiz aurkeztu gabeak. Udalak plagioa izan den zantzurik ikusten badu, sortutako kalte aurrean kalte-ordainak eskatu ahal izango dizkio plagiaren egileari.

Lanak aurkezteko modua

Aurkezteko moduari dagokionez, kartelek ez dute egilearen nortasuna agerian utz dezaketenez ez edukiko. Atzealdean lelo bat dutela aurkeztuko dira, eta, gutun-azal itxi batean, leloa kanpoan eta egilearen datuak barruan jarriko dira. Era berean, gutun-azal itxi horretan ondorengo dokumentua ere sinatu beharko du kartelaren egileak: *Nik, (egilearen izen-abizenak) eta NAN zenbakia (zenbakia) dudanak, zin egiten dut kartel lehiaketa honetara aurkeztutako lana originala dela, eta beste lehiaketaren batera inoiz aurkeztu gabea (egilearen sinadura).*

Epaia aditzera ematen den egunean jakinaraziko da epaimahaia nortzuek osatu duten. Bestalde, Udalak egoki ikusiz gero, aurkeztutako kartel guztiek inoiz erakusteko antolatuta ahal izango du.

Bergarako Orfeoia udaberriko kontzertua egingo du domekan

M.B. | BERGARA

Bergarako Orfeoia udaberriko kontzertua egingo du domekan, hilaren 25ean. 19:00etan izango da, Mariaren Lagundi-ko elizan.

Musika erromantiko alemaniarra izango da egitarauaren ardatza. Hala, emanaldiaren lehenengo partean, Felix Mendelssohnen *Lauda Sion Salvatoren Op. 73* abestuko dute.

Obra horrek zazpi mugimendu ditu eta aipatzekoa da lehenengo bostak koruak egingo baditu ere, seigarrena soprano bakarlarriak egingo duela (Nere Ibarra) eta zazpigarrena,

koruak laukotearekin batera; soprano (Nere Ibarra), altu (Kristin Larrañaga), tenore (Juan Ignacio Etxaniz) eta baxu (Karlos Etxaniz) laukotearekin, hain justu ere.

Bigarren zatian, Brahms

Kontzertuaren bigarren zatian ere Alemaniako musika erromantikoa izango du ardatz Bergarako Orfeoia emanaldiak. Hori horrela, Johannes Brahmsen *Zigeunerlieder Op. 103* obra abestuko dute.

Emanaldian Eli Mendiartek jardungo du pianoan eta zuzendari lanetan, berriz, Aitor Biain oñatiarra arituko da.



Bergarako Orfeoia, kalean egindako emanaldi batean. | GOIENA

Kantu jira eta afaria gaur, Jardun euskara elkartearekin

Jardun elkarteak kantu afaria eta kalejira antolatu ditu gaurko, egubakoitza, azken urteetan egin duen moduan. Kalejira 20:00etan abiatuko da, San Martin plazatik. Afaria, berriz, 21:30ean izango da, Artatse elkartearen. Txartelak eskura daitezke Arrano eta Ariznoa tabernetan eta Jardunen bulegoan, 15 eurotan (12 bazkide izanez gero).

Kantu afariaren helburu nagusia giro alai euskal kantuak bultzatu eta haien transmisioa ziurtatzea da.

Bihar, Sant Celoniko eta Bergarako musika eskolen kontzertua

Sant Celoniko (Bartzelona) musika eskolak eta Bergarako kontzertua egingo dute bihar, zapatua, 20:00etan, Santa Marina parrokiaren. Bi eskolen arteko elkartrukearen fruitu da kontzertua. Kataluniarrak gaur, egubakoitza, etorriko dira, eta, asteburua emango dutenez hemen, herria ezagutzeko aukera izango dute anfitrioiak antolatutako ekintzei esker. Bergararrak, berriz, maiatzaren 4tik 6rako asteburuan joango dira hara.

Gazte topaketak: askotariko eragile soziopolitikoak elkartzeko gunea

- ▶ 'Tantaz, tanta... olatua' eguna ospatuko dute bihar, zapatua, ETEOn
- ▶ "Gazte sentitzen den" edonor gonbidatu dute ekintzetara

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Oñatiko Gazte Topaketan antolatzaileek "aldarrikapenerako" eguna antolatu dute: *Tantaz, tanta...olatua* izenarekin topaketak egingo dituzte bihar, zapatua, ETEO zaharreko eraikinean. "Herriko gazteek herri mugimenduak lantzen dituen gai soziopolitiko ezberdinen inguruan

duzen iritzia aztertuko dugu: iritzi ezberdinak ditugu, eta iritziok elkarbanatzeko gune erosoak lortu gura dugu, egunerokotasunean edo arlo pribatuagoetan lantzen diren gaiak kalera atera eta kolektibitatean landu gura ditugu. Denok dugu zeresana", esan dute Gazte Topaketaren antolatzaileek.

Hori horrela, hainbat ekintza egingo dituzte bihar, zapatua. 10:30ean harrera egingo diete ekintzetan parte hartuko duten gazteei eta 10:45ean egunerako dituzten helburuen aurkezpena egingo dute. 11:00etan *Ingu berba?*, hausnarketarako gunea zabalduko dute. Parte-hartzaileak talde txikitik banatuko dituzte.

Bideoak, galderak, esaldiak eta bestelako materiala erabiliz talde bakoitzak ideiak paper batean idatziko ditu. Antolatzaileek ekarpen guztiak jaso, eta, 14:00etako bazkariaren ondoren, kafe tertulian, ondorioak eta etorkizunerako proposamenak landuko dituzte; besteak beste, Euskal Herria, emakumearen egoera,

ingurumena, lan mundua eta etxebizitza landuko dituzte. Solasaldia bukatzen dutenean trikitipoteoa eta Oñatiko musika taldeen kontzertua izango dute.

"Gaztetasuna sentimendua da"

Oñatiko Gazte Topaketak ETEO zaharreko eraikinean egingo dituzte. Zergatik ETEOn? "Eraikina hutsik dagoelako, eta, herriarena denez, erabilera bat eman behar zaiola uste dugulako. Gainera, ekintzetara etorriko den jende *uholdea* biltzeko leku aproposa da", diote.

Antolatzaileek gazte sentitzen diren herritar guztiak gonbidatu dituzte. "Gaztetasuna sentimendua da. Herrian gazte sentitzen den edonor etor daiteke. Oñatiko gazteon arteko hartu-emanak nolakoak diren jakin gura dugu. Harreman sare erraldoia sortu gura dugu", esan dute.



TXOMIN MADINA

'Basogintza herrijorran' abian

40 bat herritar elkartu ziren herri onurako basoen gaineko hausnarketa egiteko lehen batzarrean. Udal ordezkarien eta basozainaren azalpenak entzunda, taldeka bildu eta lanean hasi ziren. Hurrengo batzarra hilaren 26an egingo dute, eta Foru Aldundiko bi ordezkari gonbidatu dituzte.

Zea Maysen kontzerturako sarrerak salgai daude herriko tabernetan: Akerren, Bogan eta Xagun

Zea Mays taldeak hilaren 30ean egingo duen kontzerturako sarrerak salgai ipini dituzte herri hiru tabernetan; hain justu ere, Bogan, Akerren eta Xagun ipini dituzte salgai, sei eurotan. Aiora Renteriak, Asier Basabek, Ruben Gonzalezek eta Iñaki Imazek *Era* diskoko lanak eskainiko dituzte Oñatiko gaztelekuan, 23:00etan.

Rockaina gasteiztarrek zuzeneko egingo dute Antton tabernan gaur, egubakoitza, 20:00etan

Rockaina taldeak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza, Antton tabernan, 20:00etan. *En el aire* bigarren diskoa aurkeztuko dute. Oinarri sendoak, gitarra doinu bortitzak, riff izugarri eta iradokitzaileak eta luxuzko kolaboratzaileak ditu lan horrek. 2006an lehen diskoa kaleratu zuten. 11 abesti ditu eta rockaren, punk-rockaren, pop-rockaren edo rap-rockaren arteko zirrikietatik ateratako kaleko kronikak bildu dituzte.

'Invisibles': Thailandia hizpide duten formatu handiko erretratuak ikusgai kultura etxean

Ilunpetan argazki taldeak antolatuta, Javier Gil madrildarrak *Invisibles* erakusketa ipini du ikusgai kultura etxean. Apirilaren 4ra arte egongo da ikusgai, 18:00etatik 20:00etara arte. Asiako hego-ekialdean, oro har, eta, zehatzago, Thaiandiak bizi duen hazkunde geldiezineko aktoreak erakusten ditu: aire zabalean aurpegia estalita lan egiten duten herritarren irudiak, hain zuzen ere. 13 erretratu ipini ditu.

'Milakolore' udalekuetan izena emateko epea: hilaren 26tik apirilaren 4ra arte

Interesatuak 65 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutxan

M.B. | OÑATI

Milakolore udalekuek egin dute lehen urratsa. Uztailearen 2tik 27ra (10:00-13:00) egingo dituzten udalekuetarako izena emateko epea astelehenean, hilaren 26an, zabalduko dute. Interesatuak 65 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutxan apirilaren 4a baino lehen. Neska-mutikoei asteon jaso dituzte izena emateko orriak ikastetxeetan. Orri hori beteta egin behar da ordainketa. Hori eginda, haurra matrikulatuta geratuko da.

4 eta 10 urte arteko neska-mutikoak onartuko dituzte: txikiak 2008an jaiotakoak eta nagusienak 2002koak.

ETEo zaharreko eraikinean

Milakolore udalekuak hirugarren urtea beteko du aurten. Iaz egingo duen moduan, haurrak ETEO zaharreko eraikinean utzi eta jaso beharko dira. Adinaren arabera banatuko dituzte, eta adin-tarte bakoitza kolore batekin identifikatuko dute. Talde bakoitzak gela bat izango du.

Iaz, 314 neska-mutiko egon ziren udalekuetan, eta haiek zaintzen 35 begirale.



lazo udalekuetako umeak ETEO aurreko zelaian | AHT

Zaintza zerbitzua

Iaz egingo duen moduan, familia eta lana uztartzeko helburuarekin, zaintza zerbitzua eskainiko dute udalekuetako koordinatzaileek. 07:30etik 10:00etara arte udaleku irekietan parte hartuko duten haurrek dute zaintza zerbitzua erabiltzeko aukera. Zaintza zerbitzua udalekuekin koordinatuta egongo da. Planifikazio berbera izango dute biek ala biek.

Bada, zerbitzu horretaz baliatu gura dutenek udalekuetako

izen-emate orriarekin batera entregatu beharko dute zaintza zerbitzuko izen-emate txartela, hilaren 26tik apirilaren 4ra arte. Horren ondoren, zaintza zerbitzua kudeatuko duen AHK-ko kideak jarriko dira gurasoekin hartu-emanetan ordainketa epea zehazteko.

Zaintza zerbitzua erabili gura dutenendako kuotak dira: haur batengatik 99 euro, bi haurrengatik 175 euro eta familia ugarietan, hirugarren haurra doan.

Udaberriko kontzertuak antolatzeko emanaldi berezia

M.B. | OÑATI

Jose de Azpiazu musika eskolako neska-mutikoei emanaldi berezia egingo dute etzi, zapatua, 19:00etan, Santa Ana antzokian. Kontzertua debalde da herritar guztiendako.

Pelikuletako soinu bandak

Emanaldian musika eskolako bi taldek parte hartuko dute: haize eta triki-pandero taldeek. Haize

taldeak hiru filmetako soinu bandak (*Jurassic Park*, *Piratas del Caribe* eta *James Bond*) eta Cold Playren *Viva la vida* joko ditu. Moldaketak Bixente Ibarrondok egin ditu eta Lorea Gomez izango da zuzendaria.

Ondoren, triki-pandero taldeak hartuko du lekukoa. Jaione Intxaustiren zuzendaritzapean *Irlanda* (Kepa Junkera), *Arrozako zolan* (Aire ahizpak), *Krabe-*

linak, *Albiztur* eta *Pagotxueta* (herrikoiak) eta Gontzal Mendibil eta Xabier Solanoren kantu bana joko dituzte.

Udaberriko kontzertua

Bestalde, hilaren 26an udaberriko kontzertua egingo dute musika tailerreko ikasleek Santa Anan, 18:30ean. Kontzertu horretarako, gonbidapenak hartu behar dira musika eskolan.

EZKONTZAK 2012

**Egun berezian,
menu berezia**

**Argazki
erreportajeak**

**Eraztunak eta
bitxiak**

**Opari merkeak eta
praktikoak**

**Baietza emateko,
itxura paregabea**

**Gonbidatuendako
garraioa eta hotela**

**Trajea, soinekoa eta
barruko arropa**

**Bidaietan bereziena,
ezteietakoa**



ANE IDIGORAS - BEGIRA

MAKATZETA
Erretoria

*On egin deigula janak
kalterik ez edanak*

ARRAZOLA-ATXONDO (Bizkaia)
Tel.: 94 658 29 31
kontaktua@makatzeta.com
www.makatzeta.com



Ezkontza eguneko menuen garrantzia

Dastatzeko menuetan erabakitzen dute bikoteek ezkontzako menua | AMAIA TXINTXURRETA

Ezkontza egunean berebiziko garrantzia hartzen du menuak. Gure bailaran eta inguruan jatetxeek euren eskaintza zabalena jartzen dute ezkontza behar direnen eskura.

DASTATZEKO MENUA

Ezkontza eguna baino lehen, ezkontzideek eta haien gurasoek dastatzeko menua izaten dute jatetxeetan. Bertan, jatetxe horrek eskaintzen dituen platerak probatzen dituzte, gehien gustatzen zaizkienak aukeratu eta ezkontza eguneko menua egiteko.

PREZIOAK

Menuen prezioa jatetxeen eta aukeratutako plateren arabera da. Batzuetan, pertsonako 90 eurotik beherako menuak izaten dituzte eta 130 euro ingurura arteko menuak ere badaude.

Etxe Aundi: "Lehen platerak, gure espezialitate"

Askotariko eskaintza daukate ezkontzetako menuetarako Oñatiko Etxe Aundi jatetxean: menu klasikoak eta modernoak konbinatzen dituzte.

Euren ezaugarri nagusia da lehen plateretan oso eskaintza oso zabaldua dutela: plater ugari, berritzaileak eta desberdinak. "Beti saiatzen gara zerbait desberdina egiten, pentsatzen dugulako lehen plateretan dagoela menuaren barietatea", esan digu Etxe Aundiko buruak, Margarita Romarizek, eta gaineratu "etxean" elaboratzen dituztela jakiak. Antzara-gibela lonbardekin oso plater ona dela esan digu, desberdina, berezia eta testura ezohikoa duena.



Antzara-gibela lonbardekin (Margarita Romariz, Etxe Aundiko burua). | AT.



Txerri-hanka takoa saltsan sagar testurekin (Juan Flamarique, Arantzazu hoteleko sukaldeko burua). | AT.

Arantzazu Hotela: "Produktu onak, leku paregabe"

"Produktu freskoak eta denboraldikoak eskaintzen ditugu, eta, gainera, leku paregabean; Arantzazuko Santutegiaren ondoan eta jantokian bista ederrekin", horixe esan digu Juan Flamariquek, Arantzazu hoteleko sukaldeko buruak. Sukalde tradizionalako jakiak gaur egungora egokituta eskaintzen dituzte, ukitu moderno eta berritzaileekin, eta menu barietate zabaldua dutela esan digu Flamariquek.

Euren espezialitateetako bat hau da: txerri-hanka takoa saltsan sagar testurekin. Eta euren ekoizleengan konfiantza "guztia" dutela esan digu sukaldeko buruak.



ARETXABALETA



60 urte baino gehiago

Arkauz zure etxea da.



ARRASATE



ARETXABALETA FAGOR banatzaile ofiziala



ARETXABALETA expert banatzaile ofiziala


Sastrería Mujika

Presta zaitez ezkontzearako!
Trajeak neurrira egiten ditugu



Argazki gehiago Facebooken: [ttiki.com/35686](https://www.facebook.com/ttiki.com/35686)

Barrenkale 1 • Tel.: 943 76 29 91 • BERGARA





Lanperna eta txangurrua labean (Carlos Gulin, Makatzetako burua). | A.T.

Makatzeta: "Kalitate bikaina bermatzen dugu"

Atxondon (Bizkaia) dagoen Makatzeta jatetxean produktuen kalitatea asko baloratzen dutela esan digu Carlos Gulin jatetxeko buruak. "Oinarri moduan zortzi menu ditugu guk, eta horietatik aukeratzen dituzte gure bezeroek"; horrela, euren menu propioa sortzen dute, betiere ezkontideen beharretara egokituta eta menu klasikoak eta modernoak konbinatuta. Bada, Makatzetako espezialitatea da onddoak salteatuta plantxan egindako foie freskoko xflarekin. Txangurru-entsalada eta bogabante-entsalada ere asko eskatzen dituzte, eta arrainak "bikain" egiten dituztela esan digu Gulin jatetxeko buruak.



Ahatea laranja-saltsan (Koldo Lasa, Bergarako Lasa jatetxeko burua). | A.T.

Gure Ametsa: "Beharretara egokitzen gara"

Gure Ametsa jatetxeko burua Marisa Bolinaga da, baina azken urteotan alaba Josune Ibabek eramaten ditu jatetxeko ezkontzak. Bezeroaren beharretara egokitzen direla azaldu digu Ibabek: "Ezkontideek eskatzen digutenera moldatzen gara. Ezkontza bat kontratatzen dutenean, eurena da jatetxea". Bazkari edo afariez gain, mokaduak, barra librea... denetarik eskaintzen dute. "Goizeko zortzietan txokolatea txurroekin ere eman izan dugu". Plater klasikoak eta modernoak konbinatzen dituzte, eta ezkontzetan pertsona bakoitzak erabakitzen du okelan zer jan: antxume erreka edo solomilloa.



Bakailao-entsalada epela, barazki salteatuekin (Josune Ibabek, Gure Ametsako ezkontzen arduraduna). | A.T.

Lasa: "Etxean egiten ditugu menu guztiak"

2009. urtean Gipuzkoako bankete onenaren saria jaso zuen Bergarako Lasa jatetxeak. Ezkontzetako menuetarako eskaintza zabala daukate bertan. Koldo Lasa jatetxeko buruak hauxe esan digu: "Dagoeneko etxeko plater tipiko egin dira batzuk, beste toki batzuetan eskaintzen ez dituzten platerak dauzkagu eta kalitate bikainarekin lan egiten dugu". Plater klasikoak eta modernoak konbinatzen dituzte eta plater "izarra" da onddoak papillote eran berro-saltsarekin, eta orein gisatua ere eskaintzen dute. Lasak nabarmendu digu etxean lantzen dituztela menu guztiak; ogitik hasi eta gozoetaraino.



Begira
argazkilaritza

Zure ezkontzako argazkiak

Ilargi plaza 1, Aretxabaleta
tlf: 943 53 49 45-637 26 26 86



*Lentzeria
eta
Korseteria*

Bidebarrieta kalea 19
Tel.: 943 78 34 44
OÑATI



Originaltasuna nagusi argazkiak egiterakoan

Egungo joera da zahartuta eta hutsik dauden tokiak erabiltzea ezkontzetako erreportajeak egiteko | MIRIAN BITERI

Ezkontza eguna gogoan izateko argazki bilduma bezalakorik ez dago; egun horretako irudiak ikustearekin milaka oroitzapen etortzen dira burura, eta hortaz, ezkontzearen daudenak garrantzi handia ematen diete argazki bildumei. Aretxabaletako Begira argazki dendako Ane Idigorasek bat egiten du horrekin. Horren harira, debagoiendarrek "denetarik" eskatzen dutela dio: "Irudiekin egindako ezkontza eguneko laburpentxo moduan eskatzen dute; hain justu ere, jantzen hasten direnetik elizatik irteten direnara arte eskatzen dute bereziki. Beste batzuek jatetxean ateratako argazkiak ere nahi izaten dituzte".

Dena dela, gaur egun gero eta bikote gehiago dira ezkontza eguneko "oinarrizko" irudiak ateratzen dituztenak, eta bidaiatik etorri ostean, gainerakoak ateratzen dituztenak. Oinarrizkoetan sartuko liriteke elizkizun edo udaletzeko ekitaldiarenak eta gertukoekin ateratakoak. Honako dio: "Bidaia ostean, egiten dutena da ostera ere jantzi, eta bikotearen erreportajea ateratzen dugu lasai, inongo presa barik. Ezkontzarekin estresatuta egoten dira ezkongaiak, eta hortaz, irudi horiek geroko uztea eskatzen dute askok".



Ezkongaien irudia asko zaintzen da. | ANE IDIGORAS - BEGIRA



leku eta egun ahaztezinak

- Barruko terraza irekia, kokteletarako eta dantzaldietarako egokia, baita erretzailleentzat ere.
- Zure ezkontza ETXE AUNDIn ospatzen baduzu, hainbat opari izango dituzu.
- 100 eta 170 gonbidaturendako jangelak ditugu.



**Etxe
Aundi**

Jatetxea-Hotela**

Torre Auzo 9.

OÑATI (Gipuzkoa)

Tel.: 943 78 19 56

www.etxeaundi.com



900 eta 1.500 euro artekoak

Askotariko aurrekontuak dituzte Begiran: "900 eurotik hasita, 1.500 eurora artekoak dauzkagu. Eskatzen den erreportajearen tamainaren arabera aldutzen joaten da diru kopurua: argazki eta saio kopuruaren arabera. Krisiak baldintzatu du hori, erreportaje txikiagoak eskatzen dira orain", dio Idigorasek.

Bestalde, bezeroendako deskontu bereziak ere badituela azaldu digu: hain justu ere, datorren urtereko erreserbak egiten dituztenek %10eko deskontua izango dute. Aurtengo abuztua baino lehen dendatik pasatzen direnei aplikatuko diete deskontu interesgarri hori.

MODARAKO JOERA

Bilduma modernoak eskatzen dituztela ere esan digu. Horren harira, gaineratu du bikote askok etxea dekoratzeko erabiltzen dituztela horretan agertzen diren hainbat irudi, horien tamaina handituz. Idigorasek honakoa dio: "Moda alorrera jota ateratzen dira gaur egun argazki bildumak; eta bereziki, album digitalak saltzen ditugu, horietako batzuetan, gainera, iruzkinak sartzea eskatzen digute". Koloreari dagokionez, zuri-beltzean nahiz koloreetan eskatzen direla nabarmendu du.

Argazkiak ateratzeko kokapenari ere garrantzia handia ematen diote argazkilariek zein bikoteek. Originaltasuna bilatzen dute guztiek: harrobiak, hutsik dauden etxe zaharrak. Argi dauka Begira argazki dendako arduradunak: "Okerren dauden tokiak gustatzen zaizkit niri".

Argiztapenean aldaketak

Begirako Ane Idigorasek berrikuntzen gainean egin digu berba. Orain arteko joera argazkiak flash barik ateratzea bazen ere, gaur egun estudioko argiztapena kalera erateko ohitura zabaldu dela dio, irudiei "beste bolumen bat" emateko. Horren harira, honakoa dio: "Argiztapena da, hain justu, azkenaldian gehien aldatu dena. Urtean lauzpabost ikastarotan parte hartzen dut eta horietara AEB-etako argazkilariak izaten dira eta han nola egiten duten lan azaltzen digute".

Horrekin batera, argazkiak ateratzeko lekuetan ere urteroko aldatzen joaten direla aipatu du. Klasikoa ez da erooten.

Lan egiteko moduz ere egin du berba: "Bikoteak pantaila batean nik ordura arte egindako lanak ikusten ditu, musikaz lagunduta. Besteak beste, ditudan albumak erakusten dizkiet, tamaina eta argazki kopuru ezberdinetakoak daude-eta. Jarraian, aurrekontua ematen diet, etxean lasai aztertu dezaten. Interesatzen bazaie eguna erreserbatzeko deitzen dute. Gehienetan ezkontza egunean bertan geratzen gara, batzuk aurretik erreportajetxo bat egitea eskatzen badute ere".

Bestalde, albumak jasotzeko epeen gainean aldaketak daudela dio. Lehen, laborategiek hiru bat hilabete behar zituzten entregatzeko. Lan egiteko sistema aldatu egin da, eta Idigorasen esanetan, gaur egun, hilabete batean etxean izango dute ezkonberriek: "Bidaia-tik bueltan argazkiak aukeratu eta albuma egiten dugu".



Emakume, gizon eta umeentzako ezkontza opariak

Kale Zaharra 3. Oñati. Tel.: 943 78 28 14.
mizke@euskalnet.net www.mizke.com



Eder-eder jar zaitetz, egun ahaztezina bizi izateko

Ezkonberriendako programa pertsonalizatuak

- Aurpegi eta gorputz zaintzeak
- Esku, bular eta bizkarren tratamenduak
- Manikura eta pedikura
- Solariuma
- Masaje neuro-erlaxagarria

AG
Amagara

Erdiko kalea 54 behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09

Gure eskaintzak
kontsultatu
konpromiso barik.

Aliantza, maitasunaren sinbolo iraunkorra

Urre zurikoa da gaur egun gehien erabiltzen dena; eraztun soila edo harribitxiekin | MONIKA BELASTEGI

Ezkontza eguna bizitza osorako oroimenean geratzen den unea da, baina ez bakarria. Oroitzapenarekin batera, bada iraunkorra den beste elementu bat: aliantza. Gaur egungo gizartean, ia guztia horren azkar iraungitzen den honetan, "aliantza betirako" dela azpimarratu du Arrasateko Zubiaga bitxi-dendako Elena Fernandez nagusiak: "Balio simboliko handia izatearekin batera, bizitza osoa irauten du eta belaunaldiz belaunaldi ere laga daiteke".

ASKOTARIKO ESTILOAK

Gaur egun gehien erabiltzen den aliantza mota urre zurikoa da. Hori da "gazteek nahiago dutena" Elena Fernandez esanetan "urre zuria, bera bakarrik ala brillanteren batekin". Hala ere, forma eta estilo askotarikoak daude; urre horiarekin zein beste material batzuekin konbinatutakoak, esaterako.



Emaztegaia perladun belarritakoak eta orratza erakusten. | GOIENA

AHOLKULARITZA ERE BAI

Ezkontza egunean eder egotea da ezkontideen helburu nagusietako bat eta horretarako jantzi egokia, orrazkera egokia, makilaia egokia... aukeratzea oso garrantzitsua da. Baina

Garrantzitsua da eder egoteko bitxi egokiak aukeratzea



Urre zuria bakarrik, horiarekin konbinatuta eta brillanteekin. | GOIENA

horiek bezain garrantzitsua, da emaztegaia bitxi egokiak aukeratzea.

Elena Fernandezek garbi dauka: "Soiltasuna oso garrantzitsua da, ez da komeni oso apainduta joatea. Egoki aukera-

tutako belarritako batzuk nahikoa dira". Hain justu, aholkularitza ere egiten dute Zubiagan: emaztegaia soinekoaren argazkiarekin dendara joanda, bitxi-rik egokiak aukeratzeko lagunduko diote.

Momentu eder guztietan

Zubiaga

Maalako errabala 5 • ARRASATE • 943 79 19 25

Opari merke eta praktikoak

Asko dira ezkontza bat gogoratzeko detaileak; ezkongaiak bereziki zaintzen dituzte gonbidatuendako opariak | MIREIA BIKUÑA

Postre garaian, eta kafea hartu ondoren, oparitxoak banatzen dituzte ezkongaiak. Orain dela urte batzuk, purua ematen zieten gizonetzkoiei eta oparitxoak emakumezkoiei. Egun, oparia jasotzen dute biek ala biek.

Ezkontza eguna gogoratzeko opariak izaten dira: ezkongaien izenekin eta ezkontzaren egunarekin. "Azken urteetan opariak bilakaera izan dute: kandelak, aterkiak, ardoa, giltzatak, abanikoak, boligrafoak, manikurak eta beste daude aukeran. Urtez urte gauza berri gutxi egiten dituzte, baina daudenak ondo saltzen dira", esan digu Oñatiko

Mizke dendako Maribi Igaratuak.

Ezkongaiak, baina, oparia aukeratzeko orduan bi gauza eskatzen dituzte: "Praktikoa edo erabilgarria izatea, eta merkea. Azkenean, gonbidatu asko badira, opari asko egin behar dira".

MIMO HANDIZ


Aurten modan egongo diren opariak zeintzuk izango diren? "Emakumezkoendako kandelak, fularrak, poltsak zintzilikatzeak, aterkiak... Gizonezkoendako, giltzatak, xanpaina, boligrafoak...", dio Igaratuak.

Ezkongaiak "mimo handiz" aukeratzeko dute euren eguna gogoraraziko duen oparia.



MANIKURA EGITEKO

Emakumeendako opari dotorea da. Manikura egiteko beharrezkoak diren gailuak ditu barruan. Goiko argazkikoek bota itxura dute, baina beste forma batzuetakoak ere badaude.



ABANIKOAK

Azken urteotan modan dagoen oparia. Askotariko kolorekoak daude, eta emakumeendako opari aproposa da. Koloretako abanikoak loretxo batzuekin eta lazoarekin apaindu ahal dira.



KANDELAK

Emakumeendako beste aukera bat kandelak dira. Forma eta kolore askotarikoak daude. Goiko irudikoak, plater eta guzti. Baina, badaude beste kandelak batzuk txikiagoak, banaka edo binaka oparitzeko.



GILTZATAKOAK

Gizonezkoendako zein emakumezkoendako oparia izan daiteke. Gainera, forma askotarikoak daude, handiagoak eta txikiagoak. Giltzatak kaxarekin opari egiten dute, eta oso praktikoa da.



XANPAINA

Gizonezkoendako oparia da. Xanpaina izan daiteke, baina baita ardoa edo koñaka. Bestalde, ron, ginebra eta whisky botila txikiak ere opari egin daitezke. Ardoa gorria edo beltza izan daiteke. Gustura hartzen duten oparia da.




ATERKIAK

Azken urteotan modan dagoen oparia da aterkia. Opari praktikoa eta dotorea. Aterkiak txikiak dira, poltsak eramateko modukoak. Kolore deigarriak dituzte, eta marrazki ezberdinak. Emakumezkoendako opari aproposa da.



Gipuzkoako bankete-jatetxe onenaren Mas Gastronomia 2009 saria.



250 lagunentzako jantokia
Gustua eta luxua denon eskura

LASA jatetxea

Ozaeta jauregia
Tel.: 943 76 10 55
BERGARA

www.restaurantelasa.es

Baietza emateko, itxura paregabea

Itxura edertzeko aukera ugari dituzte Debagoieneko estetika zentroek | TXOMIN MADINA

Hasiera baten, ezkontzera doan bikoteak bizitzan behin bizi izango du egun handia, eta, hala, nork ez du nahi egun horretan inoiz baino itxura hobea izan? Ezkontza egunean eder egoteak, baina, aurreko hilabete, aste eta egunetan hainbat prestaketa egitea eskatzen du: *peeling*-ak, masajeak, manikura

eta pedikura, depilazioa, kolore apur bat hartzea... Tratamenduok ez dira ezkontideendako bakarrik; lagun eta senideendako ere aproposak dira, batez ere amaginarreba bihurtuko direnendako.

HIRU HILABETE AURRETIK

Noiz hasi ezkontza egunerako prestatzen? Arrasateko Amagara estetika zentroko Maite Agirrearen

esanetan, aurpegian, eskuetan, eskotean eta bizkarraldean orbanak dituzten neskek ezkontza baino hiru hilabete aurretik hasi daitezke argi pultsatu bidezko laserrarekin orban horiek tratatzen. Hilabete eta erdi lehenengo, oxigenazio eta hidratazio zikloi ekitea izan daiteke jarraipena. "Horrekin argia eta distira eman diezaiokegu aurpegiari", dio Agirrek.

Gorputza hidratatzeko orduan, karitezko estalkiak egitea da aukera aproposena, Oñatiko Guztiz Eder estetika zentroko Arantzazu Txintxurretaren esanetan: "Horrelako estalkiek gorputza hidratatzeko balio dute, eta, zentroan ez ezik, etxean ere komeni da egitea". Estalkiak, baina, ez dira hidratatzeko bakarrik egiten, *peeling*-aren bidez azal zaharra

kentzeko ere balio dute. Kasu horretan, estalkiak normalak izan daitezke, baina baita azukrezkoak ere, esaterako. Adituen aholkua da, gainera, *peeling*-a izatea egingo den lehen gauza, ondorengo tratamenduetarako azala ezin hobe izateko.

EGUN HANDIAN, BELTZARAN

Ezkontza egunerako eta ezteibidaiarako beltzaran egotea izaten da ezkontideen nahi ohikoenetako bat, eta, horretarako, solariumak izan daitezke aukera aproposa. Zenbat saio eta saio horien iraupena norberaren azalagintzen du. Berez azal beltzaranekoak bagara, hamabost minutu inguruko dozena erdi saiorekin nahiko izango dugu. Oso azal zuridunak bagara, bestalde, hamar minutuko hamar hamabost saiorekin nahikoa izan dezakegu.



Orbanak kentzen laguntzen du argi pultsatu bidezko laserrak. | AMAGARA



Ondo aplikatuz gero, edozein azalendako da aproposa. | AMAGARA


Azaleko orbanen aurka, argi pultsatua

Adinaren edo eguzkia era ez egokian hartu izanaren ondorioz, ez dira arraroak izaten azaleko orbanak. Haien kontrako tratamendu berritzaileenetako bat argi pultsatu bidezko laserra da. Ezkontza aurretik hiruzpalau hilabete lehenago aplikatzea da gomendagarriena. Orban dagoen lekuan krema bat ezartzen da, eta, horren ostean, argi pultsatu bidezko laserra aplikatzen zaio. Ondo aplikatuz gero ez du bigarren mailako eraginik; tratamendua, gainera, azal tonu guztiendako da aproposa eta ezkontideen amandako, aukera ezin hobea.

Milaka urte dituzten harriak, erlaxazio iturri

Harri hotz eta beroen bidezko masajeak modan jarri dira azkenaldian, erlaxatzeko modu paregabea dira-eta. Harri beltz basaltikoek jatorri bolkanikoa dute eta energia eta mineral dosi handiak dituzte. Nukleotik muskulu zein nerbio ehunetara eta barruko

organoetara beroa bidaltzen dute. Harri hotz ozeanikoez, bestalde, ezaugarri antiinflamatorioak dituzte, zirkulazioa aktibatu eta estresa kentzen laguntzen dutenak. Ezkontzaren egun handira orekatuta eta erlaxatuta heltzeko aukera paregabea.




Ezkontzara erlaxatuta heltzen lagun diezagukete harriek. | GUZTIZ EDER



OSPATU ZURE EZKONTZA DEBAKO AISIA HOTELEAN ETA HAUXE JASOKO DUZU OPARI

- Autobusa doan zure gonbidatuentzat
- 2 ordu DJarekin
- Afalosteko mokaduak barra librean
- Deskontu handiak **argazki erreportaje**an (ezkontzarako doaneko gonbidapenak barne)
- Suite Junior motako **logela** eztei-gauerako (edo bonu baliokidea) + "**Jarri Galant**" pack termala

Markiegi 6
943 60 80 52
deba@aisiahoteles.com



Eskaintza hori 100 gonbidatutik gorako ezkontzarako da. Gonbidatu gutxiagorekin, galdetu hotelean baldintza eta opariei buruz.

Estresa eta urduritasunak ez dira inoiz itxura onaren lagunak izan; eta, askorentzat, eginbehar gutxi izango dira ezkontza bat antolatzea bezain estresagarriak. Horregatik, ezkontza egunaren bezperan edo bizpahiru egun lehenago, masaje on batek sekulako onura ekar diezaiokete gure itxurari. Dela harri bolkanikoekin egindako masajeekin, dela hidromasajeekin, ezkontzaren prestaketen zurrunbiloan eten txiki bat egiteak asko lagun diezaguke lasai egoten.

ETA SENARGAIEK, ZER?

Ezkontzetan protagonista nagusiak emaztegaiak izan ohi diren arren, horrek ez du esan gura senargaiendako aukerarik ez dagoenik. Orain arte ikusitako tratamendu gehienak neskendako eta mutilendako izan daitezke aproposak. Amagarako Maite Agirrearen esa-

netan, azaleko orbanak izan daitezke gizonezkoek zaindu beharreko puntu garrantzitsuenetako bat, eta azala argitsu izateko dermoabrasio bidezko esfoliazioa izan daiteke konponbideetako bat. Depilazioa da mutilendako beste tratamendu ohikoetako bat, batez ere begitarteko depilazioa.

Gutziz Ederreko Arantzazu Txintxurretaren iritziz, gizonezkoak ere gero eta gehiago joaten dira estetika zentroetara: "Depilazio aldetik ukitu bat edo beste egitera etortzen dira; solariumera akaso ez hainbeste, eguraldi ona egiten duenean mendian edo kanpoan gainekoa kenduta ibiltzeko aukera handiagoa dute-eta".

Egun handian eder ez egoteko aitzakia gutxi dago, beraz. Eta ez da ahaztu behar estetika zentroek ezkontideendako opari moduan ere eskaintzen dituztela tratamendu horiek guztiak.



Adituek manikura eta pedikura frantsesa gomendatzen dituzte ezkontza egunerako. | GOIENA

"Karitezko estalkiek hidratatu egiten dute"

"Argi pultsatu bidezko laserrak orbanak kentzen ditu"



Solariumak, eguzki faltari aurre egiteko zerbitzuak. | TXOMIN MADINA

Eguzkirik hartu barik, beltzaran

Ezkontza egunean beltzaran egoteko hondartzara joateko astirik (edo eguraldi aproposik) izan ez badugu, solariumera joatea izan daiteke beltzaran egoteko aukera erosoetako bat. Gure azalaren arabera, saio gehiago edo gutxiago eta luzeagoak edo motzagoak komeniko zaizkigu. Azal zurikoak bagara, saioak ahalik eta azkarren hastea komeni da.

Eskuak eta oinak ere, dotore

Eskuek protagonismo berezia izaten dute ezkontzetan, besteak beste, bertan jartzen delako eraztuna. Gaur egun manikura egiteko orduan dauden aukerak asko diren arren, adituen aholkua da manikura frantsesa egitea, sinplea baina era berean elegantea. Oinetako moduan sandaliak baditugu, gainera, oinekin gauza bera egitea da aholkua.

Gure Ametsa
Gatzetxea

943 71 49 52
Leintz Gatzaga

ezkontzetarako areto handi eta erosoak
aperitiboendako terraiza
sukaldaritza zaindu eta paregabea
aurrekontu guztietarako menuak



Guztiok batera joanda festa giroa pizten da

Geroago eta gehiago autobusean joaten dira ezkontzetara, eta hori oso eroso da guztiendako | SERGIO AZKARATE

Puntuen sistema indarrean sartu zenetik hona, argi dago geroago eta jende gehiagok kontratatzen duela autobus zerbitzua ezkontzetarako, hainbat arrazoiengatik.

Bada, Leintz Garraioak enpresako Lydia San Martinek argi dauka horren arrazoa: "Jendeak geroago eta gehiago zaintzen du alkoholaren kontua. Abantailak, baina, askoz gehiago dira; izan ere, autobus zerbitzua kontratatuta, aparkatzeko arazo gutxiago egoten dira, esate baterako, ermita txikietan edota jatetxean bertan". Alde horretatik, Arantzazuko Santutegia hoteleko Brigik esan digu aparkaleku zabala daukatela hotelaren ondoan: "Basilikaren ondoan egonda, aparkatzeko ez da arazorik izaten, leku zabala dago-eta".

Edozelan ere, kontzientzia kontua ere aipatzen du San Martinek: "Kontuan hartu behar da jendea kontzientziatuagoa dagoela eta ezkontza egunetan ez gida-zea erabakitzen duela. Gainera, azkenaldian, Zirkulazio Sailak areagotu egin ditu kontrolak eta isunak, eta, edanez gero, bada-kigu zer gerta daitekeen".

Bada, horrek eragin zuzena izan du mota horretako ekitaldi-dietarako autobusak eskaintzen dituzten enpresetan. "Geroago eta jende gehiago animatzen da



Senar-emazteak eta gonbidatuak autobusean, festa bizian. | GOIENA

aurrekontuak eskatu eta kontsultatzen mota horretako zerbitzuendako", gaineratu du San Martinek.

Horrez gainera, "nor bere autoan joan beharrean gonbidatu guztiak autobusean elkarrekin joanda, festa giroa, nolabait, piztu egiten da; izan ere,

Azkenaldian, areagotu egin dira kontrolak eta isunak

aspalditik elkar ikusi barik zudenak batzen dira, lehengo pasadizoak gogoratzeko aprobetxatzen dute... Horrekin lortzen dena da guztiak batzen direla, eta, konturatu ere egin barik, beste aldarre eta animo batekin joaten direla ezkontzara. Pentsa, txikitik ere denok batera joaten ginen ibilaldietara-eta; halako sentazio bat sortzen da", azpimarratu du San Martinek.

AUKERA ZABALA

Zalantza barik, hotelak edo jatetxeak aukeratzeko orduan Debagoienean eskaintza zabala dau-

kagu, eta gutxi erabakitzen dute Debagoienetik kanpora joatea. Horixe bera onartu digu San Martinek: "Arlaban inguruan, Arrasaten eta Oñati aldean ibiltzen gara gehien, Arantzazura bidean. Izan ere, bailara honetan oso eskaintza zabala dago; hala ere, badira hiriburuetara-eta joan nahi izaten dutenak: Gasteizera eta Itziarko gainera, esaterako".

Bestelako zerbitzuei dagokienez, Brigik diosku askotarikoak eskaini edo bideratzen dituztela Arantzazuko Santutegia hotelean: "DJak, loreak, sauna umel eta sikua..."

Hotelean, denetarik

Arantzazuko Santutegia hotelaren mezua argia da: "Zuen ezkontza eguneko amets guztiak burutzeko prest dagoen paregabeko lekua da".

Egunean bertan dena ondo irten dadin, erosotasun guztiak dituzte eskura ezkongaiak: "Bi edo hiru logela uzten dizkiegu, baita aurreko egunetik ere, arropa eta bestelakoak bertan izateko eta azken orduko ukituak eman ditzaten", diosku Brigik.

Paraje ederrak dira hotela aukeratzeko beste arrazoiak: "Arantzazuko leku paregabean dago, bista ederrak ditu. Gainera, ezkongaiak aukera daukate koktela Gandiagan egoteko, eta hango bistak ikaragarriak dira, benetan politak. Azken baten, gure helburua da bikoteak egun ahaztezina pasatzea".

A, eta gonbidatuak ere poz-oz irten daitezke ezkontzatik: "Bonu bat zozketatzen dugu, eta tokatzen zaionak aste bukaera bat dauka gure hotelean (bi pertsonarendako), mantenu-erdiko erregimenean".



Guztiz Eder Estetika Zentroa


Plazera biontzat

ESKAINITZA BEREZIA:

Aurpegirako tratamendua, peeling-a gorputz osoan eta hidratazioa: 90€

- Ezkontza aurretiko masaje erlaxagarria harri bolkanikoekin
- Manikura eta pedikura aromaterapiaren bitartez
- Era guztietako depilazioak • Solariuma

Zerbitzurik onena gure bezeroen esku



Kale Barria 29, behea (Orbea etxea, parke aldetik) 20560 Oñati Tel.: 943 78 01 46



Leintz Garraioak, urbano zerbitzuaz gain, txangoak, ezkontzak, sagardotegiak e.a.

LEINTZ GARRAIOAK S.L.
Musakola, 20 (Pereda)
20500 ARRASATE

Tel.: 943 71 27 07 / Faxa: 943 79 14 19
Posta-e: leintzgarraioak@leintz.com
www.leintz.com



Betiko trajea da erabiliena

Ezkontza egunean traje beltza izaten da gehien erabiltzen dutena gizonetok; kolore gutxi sartzen dute | ARANTZAZU EZKIBEL

Jantziak garrantzi handia izaten du ezkontza egunean. Ondo jantzi-ta joatea beharrezkoa izaten dute senar-emazteek. Soineko eta traje bereziak aukeratzen dituzte. Emakumeen kasuan, ez soinekoa bakarrik, barruko arropak ere garrantzi handia izaten dute.

Oñatiko Kuttun mertzeria-dendako Asun Arroioak azaldu du marfil koloreko barruko arropak eramaten dituztela emaztegaiek: "Ez dira zuriak izaten, marfil kolorea eramaten da gehien. Tirante bako bularretakoak eskatzen dituzte; izan ere, eskotedun soinekoak

janzten dituzte ezkongai askok". Gainera, bularretakoak betegarriekin eramaten dituzte "bularra jaso eta politagoa" izateko. Emaztegai batzuek korset modukoak ere eramaten dituztela gaineratu du. "Beheko aldean tanga eramaten dute eta saiatzen gara galtzarian (liga) zerbait urdina sartzen", dio Arroioak. Emaztegaiek soinekoa aukeratzen dute lehenengo eta soineko horren arabera aukeratzen dute gero barruko arropa.

Ohiko soinekoarekin janzten ez diren ezkongaiak ausartagoak direla azaldu du: "Horiek ere barruko arropa berezia eramaten dute ezkontza egunean, eta kolore gehiago sartzen dute".

GIZONEZKOEK, TRAJEA

Gizonezkoek betiko trajea eramaten dute. "Txaleko eta guzti, dena konjuntuan eramaten dute", azaldu du Bergarako Mujika dendako Trini Olabarriak.

Gehien saltzen dena traje beltza dela esan digu, eta detaile grisak edo metalizatuak izaten dituztela. "Hemen, ezkongaiak eleganteak izaten dira, baina apalak". "Kolorerik ez dute erabiltzen. Badaude koloretako txalekoak oso politak direnak baina ez dituzte eramaten", azaldu du. Horren harira gaineratu du granate edo berde koloreko txaleko horiek gehiago janzten dituztela aitabixiek: "Ausartagoak dira eta burdeos koloreko osagaiak janzten dituzte, adibidez".

Lebita erdiak desagertu egin direla gaineratu du Olabarriak: "Moda italiarra eramaten da, txaketa motzak eta estuak", azaldu du. Italiarrak hemengoak baino ausartagoak direla dio.



Eskotedun soinekoak erabiltzen dira asko. | ROSA CLARA



Bularretakoa eta kuleroa. | SELMARK



Kortseak. | SELMARK

TIRANTE BARIK Eskote handiko soinekoak eramaten direnez tirante bariko bularretakoak janzten dituzte ezkongai askok. Bularretakoak betegarriekin izaten dira gehienetan.



Gris koloreko gorbatak. | MUJIKA



Gorbata detailearekin. | MUJIKA

METALIZATUAK Traje beltza izaten da ia bere osotasunean ezkongaiak eramaten dutena. Kolore gutxi sartzen dute. Osagaiak eta trajearen detaileak grisak edo metal kolorekoak izaten dira.



Traje beltzak eramaten dituzte ezkongaiak. | MUJIKA

Swarovski kristala

Gizonezkoen trajeetan swarovski kristala modan dagoela azaldu du Mujika dendako Trini Olabarriak: "Detaileak eramaten dituzte, gorbaketan, mahuketan...". Kristalezko perlatxoak izaten dira detaile moduan eramaten dituztenak, adibidez, gorbaketan. "Detaile txikiak izaten dira, ez dira kristal asko eramaten, baina bai ukitu bat emateko beste. Swarovski ukitua izaten da", gaineratu du Olabarriak.

Gizonezkoetan traje beltza izaten da gehien eramaten dena, eta detaile grisak eta metalizatuak. Traje beltz horren osagarri moduan kristalezko detaileak eramaten dituzte gizonezko batzuek. Detaile dotorea izaten da.

Finantzaketa kuota pertsonalizatuak



SIMS
SERVIMASA

Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO

Gogoan izateko bidaia

Mimo eta kontu handiz antolatzen dute ezkongaiak eztei-bidaia | MIREIA BIKUÑA

Maletak hartu eta 15, 20 edo 30 egunean munduko beste puntara joateko aprobeztatzen dute ezkonberriek bidaia. Munduko beste puntara diogu, hemen dituzuen adibideek hori erakusten dutelako: Buenos Aires, Iguazu, Thailandia, New York, Kanada, San Frantzisko, Hollywood, Las Vegas...

Argi dagoena da behin hegazkina hartuta hainbat leku ikus-teko aprobeztatzen dutela.

HONDARTZAN ERE BAI

Gehienek bidaia kulturalak egin arren, bikote batzuek hondartzan, hotel dotoreetan, lasai-lasai egoteko egun batzuk hartzen dituzte: Cancun, Acapulco, Dominikar Errepublika, Kanariar Uharteak, Kuba...



Iker Zabaleta eta Ainhoa Legaristi, elefante gainean. | AINHOA LEGARISTI

Bangkok zorotik, lasaitasunera

Iker Zabaleta eta Ainhoa Legaristi oñatiarrak Thailandian egon ziren. "Gure asmoa Siria eta Jordaniara joatea zen, baina errebolta hasi eta planak aldatu genituen. Bangkok hasi eta *tourra* egin genuen iparraldera. Bangkok zoramena da, eskerrak Thaiandiako gainerako lekuak lasaiagoak diren. Hegoaldeko irla baten egon ginen, Ko Phi Phin: hondarra zuri-zuria eta ura gardena. Ikusgarria hondartza, eta bidaia osoa!".



Ariane Arruti eta Oskar Maiztegi, Brooklyngo zubian. | OSKAR MAIZTEGI

Manhattango bizimodu azkarra

Oskar Maiztegi eta Ariane Arruti bergarrek New York aukeratu zuten. "Manhattanen genuen hotela, eta hango bizimodua ikusgarria da, oso azkarra. Munduko lurralde askotariko pertsonak aurrera eta atzera, egunaren 24 orduetan. New York, berriz, ikusgarria da, askotariko kulturak batu eta kontraste asko dituen hiriburua da. Duda barik, gomendatzeko moduko lekua".




Dani Gillegi eta Amaia Irizar, Ottawan, lore artean. | DANI GILLEGI

AEBetik Kanadara

Maitte Irizar eta Dani Gillegi bergararrak AEBetako ekialdean eta Kanadan egon ziren. "Hamar egun New Yorken egin genituen: Times Square, Empire State, Wall Street, Soho, Rockefeller Center... Ondoren, Philadelphia, Washington, Toronto eta beste hainbat leku bisitatu genituen *tour* baten. Kanadan bukatu genuen eztei-bidaia: Ottawa, Quebec, Montreal...".

New Yorketik Hollywoodera

Amaia Igartua eta Mikel Aranburu oñatiarrak ere AEBetara joan ziren. "New Yorken hasi genuen eztei-bidaia, eta ondoren mendebaleko kostaldera joan ginen: Los Angeles, Hollywood, Las Vegas, San Frantzisko, Yosemite eta Gran Canyon bisitatu genituen. Bidaia mundiala izan zen, gomendatzeko modukoa. Oso polita".




Mikel Aranburu eta Amaia Igartua, San Frantziskoko zubian. | M. ARANBURU



Amaia Agirre eta Iñigo Arzelus, Perito Moreno atzean dutela. | AMAIA AGIRRE

Perito Moreno eta Iguazu

Iñigo Arzelus eta Amaia Agirre bergararrak Argentinan egon ziren. "Buenos Aires gure kontura ikusi genuen, eta ondoren irteerak egin genituen: Valdes penintsula, Calafate, Salta eta Perito Moreno, besteak beste. Iguazuko ur-jauziak Argentinatik eta Brasildik ikusi genituen. Patagonia osoa autoz zeharkatu ondoren, Bariloche eta Ushuaia ikusi barik geratu ginen".



Zuen ezkontza eguneko amets guztiak burutzeko prest dagoen paregabe leku

H* arantzazu**
arantzazuko santutegia hotela

180 gonbidaturendako jangela.

Arantzazuko auzoa 8 | OÑATI | 943 78 13 13
www.hotelsantuariodearantzazu.com

Eskoriatza da Debagoiengan gutxien birziklatzen duen herria

Debagoieneko Mankomunitatearen datuen arabera, %30,12 birziklatzen da

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Pil-pilean dago Eskoriatzako Udalean eta baita herrian ere hiri hondakinen gaia. Joan den astean Udalean egindako osoko bilkuran, Ezker Anitza taldeak aurkeztutako mozioa onartu zuten, alderdi horren eta Bilduren aldeko botoekin. Ezker Anitzak, besteak beste, "informazio egiazkoa zabaltea herritarrei" eta hiri hondakinak tratatzeko eta, hortaz, jasotzeko, "alternatiba guztiak mahaiaren gainean" jartzea proposatu zuen.

Bilduk horren gaineko prentsa-oharra kaleratu du asteon. Udalak Zero Zabor filosofiarekin bat egiten duela eta, horren harira, datozen hilabeteotan hainbat neurri eta ekintza garatuko dituela iragarri du, Debagoieneko Mankomunitatearekin batera: batetik, hondakinak murrizte eta berrehabiltze aldera hainbat proiektu martxan jarriko direla aipatu du, hala nola autokonpost kanpaina edo ontzi berrerabilgarrien banaketa; bestetik, kontzientziazio eta komunikazio kanpaina egingo dute.

Atez atekoarekin, %65eraino Bilduren esanetan, gaur egun, Eskoriatzan sortzen den hondakinen %30,12 bakarrik birziklatzen dira; Mankomunitateak eskaintako datuen arabera, bailaran gutxien birziklatzen duen herria da. Horren harira, gogorazi du zabor poltsaren ia erdia hondakin organikoak direla, eta horiek gaika biltzea "ezinbestekoa" dela.



Datorren urteko irailean helduko da atez atekoa herrira. | GOIENA

Horrela, %30etik %65eraino igoztea dela asmoa eta birziklatze tasa handienak bermatzen dituen biltza sistema atez atekoa dela nabarmendu du.

Auzoz auzo batzarrak

Atez atekoa "inposizioa" dela esaten dutenei ere erantzun nahi

izan die. Horren harira, azaldu du herritar guztiei zabalduko zaiela informazioa. Beñat Herce alkateak honakoa esan du: "Eztabaida-guneak sortuko dira eta auzoz auzo ibiliko gara. Hondakinen kudeaketa egun nolakoa den eta honek sortutako arazoei nola aurre egin azalduko dugu".

Berbaldiak martitzen eta eguaztenean

Eskoriatzako Zero Zabor taldeak hitzaldiak antolatu ditu datorren asterako Udalaren laguntzarekin. Martitzenean, hilak 27, Zaborra: *guk sortu, guk kudeatu* berbaldia egingo dute, euskaraz; eta eguaztenean gaztelaniaz egingo dute, *Basura: nosotros generamos, nosotros gestionamos* lelopean. Ibarraundi museoa izango dira batzar horiek, 19:00etan.

Zaldibar antzokirako herritarren iradokizunak jasoko dituzte gaur arte

M.B. | ESKORIATZA

Zaldibar antzokiko bigarren faseko lanak hasi baino lehen, horri buruzko eta haren kudeaketari buruzko ideiak eta ekarpenak egiteko aukera dute eskoriatzarrek gaur arte, egubakoitza. Hiru bide dituzte horretarako: kiroldegian, liburutegian eta udaletxeko jarri-

tako postontzietan; 943 71 46 88 telefono telefono zenbakian, edo komunikazioa@eskoriatza.net helbide elektronikoan.

Bigarren faseko proiektua onartu berri dute Udaleko Kultura batzordean, eta asmoa da apirileko osoko bilkuran onartzea; aurretik jasotako ekarpenak aztertuko dituzte.

Udalbatzak zinegotzi guztiekiko errespetua eskatu du

Hilaren 15ean, Bergaran, Eskoriatzako Udaleko EAJ, PSE-EE eta Ezker Anitzeko zinegotzien lan politikoarekiko "errespetu falta" erakusten zuen kartela agertu zen. Hori dela eta, udalbatzak "gaitzespen osoa" azaldu du halako ekintzen aurrean, eta "errespeturik handiena" eskatu du.

"Guztion artean"

Atez atekoa ezartzeko erabakia maiatz amaierako osoko bilkuran eztabaidatuko dela jakinarazi, eta ordura arte hitzaldiak eta herri batzarrak deituko dituztela nabarmendu du. Horren harira, honakoa dio: "Atez ateko sistema ezartzeko erabakia hartuz gero, eta Mankomunitateetik definitutako plangintza jarraituz, 2013ko irail inguruan ezarriko litzateke gure herrian". Alkatearen arabera, hilabete asko daude aurretik "guztion artean" sistema erabakitzeko; hain justu ere, egutegia, ordutegia, kokalekuak, larrialdi-guneak, landa-guneetarako biltza-guneak eta bestelakoak.

Parte-hartze prozesua azaldu ostean, atez atekoaren sistemaren aurkako beste hainbat mezu "alarmistaz" ere jardun gura izan du. Zikina dela esaten dutenei honakoa erantzun die: "Eskoriatzan lurpeko edukiontzia asko ustelduta daude, ezin dira garbitu eta arratoiak daude. Lur azpian dagoen zaborra ez dugu ikusten, baina arazoa hortxe dago".

Kostuak murriztuko dira

Atez atekoaren sistema hori garestiagoa dela ere gezurtatu du. Hondakinen kudeaketa integrala hartuz gero, merkeagoa dela aipatu du. Horren harira, esan du gaika biltzearen kostuak handiagoak badira ere, sailkatuta batzeak hondakinen tratamendurako kostuak "asko" murriztuko dituela. Horrez gain, bildutako material handitzeak horien salmentatik datozen sarreraren igoera ere ekarriko duela esan du.

Azkenik, deserosoa dela ere arbuia du Bilduk. Gogorazi du orain ere zaborra ateratzeko ordutegiak eta ordutegiak daudela, eta, lehenik birziklatuz gero, "oso erraza" dela.

NIRE USTEZ

NESTOR ARANA



Hiru txerri txerriak

Azkenaldian askotan entzun, irakurri eta ikusi dugu atez ateko zabor biltzetaren inguruan. Badirudi atez atekoak hainbat desabantaila dituela: batetik, azpiegitura berriak behar ditu; eta bestetik, herritarrei ardura handiagoa eskatzen die, bai zaborrak antolatzeke eta bai zaborrak kalea ateratzeko ordutegiari dagokionez. Orain arteko sistemak ardura gutxiago eskatzen du, baina birziklatzeko gaitasun txikiagoa du.

Azken egun hauetan bankuek jarrera egokien protokolo bat ateratu dute. Badirudi orain bankuek jarrera arduratsu bat hartzeko protokolo bat adostu dutela. Hori bai, gurean itzeleko eragina izaten ari den finantza krisi bat sortu ondoren, eta honen ondorioz familia asko etxe eta lan gabe utzi ondoren.

Ikusi dezakezuen kasuetan, lehenago edo geroago, jarrera arduratsu bat agertzen da. Txerri txerri ipuinean, adreiluzko etxea egin zuen txerri txerri hasieratik jarrera arduratsu bat hartu zuen; besteek, aldiz, ez. Ingurumenaren kasuan, noiz hartu behar dugu jarrera arduratsua? Zein mundu utzi nahi diegu gure seme-alabei?



Iban Nikolai, didjeriduarekin. | IBAN NIKOLAI

Didjeridu emanaldi dantzagarria dago gaur gauean Inkernun

M.B. | ESKORIATZA

Iban Nikolainen eskutik australiar aborigenen kulturatik datorren didjeridu izeneko haize-instrumentua ezaguna egin da azkenaldian Debagoiengan, eta gaur, egubakoitza, Inkernu tabernan zuzenean ezagutzeko aukera egongo da. Nikolaik berak emanaldi dantzagarria egingo du, 22:30ean.

Orain dela 15 urte Londrese- ra egindako bidaia batean eza-

gutu zuen Nikolaik didjeridua, eta, hasiera batean, bere kabuz ikasten hasi bazen ere, geroago, eskoletan eta tailerretan parte hartu zuen European eta Australiar zehar.

Didjeridua 40.000 urtetik gora dituen tresna da. Termitek naturalki zulatutako enbor huts bat da, eta zulotik putz eginda behe-soinu bat ateratzen da. Ez daude bi didjeridu berdin; nork bere soinu propioa du.

OHARRAK

UDALEKUAK: IZEN-EMATEA

Diputazioak 7-13 urte bitarteko haurrendako antolatutako udalekuean izena eman daiteke gaurko 15:00ak baino lehen, kultura etxean.

SASKIBALOI PARTIDUA

Kadeteen saskibaloia partidua dago gaur kiroldegian, 20:15ean. Arizmendi Eskoriatza taldea Oiarso Renteriarren kontra lehiatuko da.

KENPO TXAPELKETA

Euskadiko eta Gipuzkoako III. kenpo txapelketa jokatu dute bihar, zapatua, herriko kiroldegian. Goizean izango da, 10:00etatik 14:00etara.

TAILERRA ETA AFARIA

Ekintza interesgarria dute bihar, zapatua, herriko gaztelekuan. Sukaldaritza tailerra izango da, 18:00etan, eta gertatutako jakiak jango dituzte gero, afaritan.

SOROSPEN IKASTAROA

Martitzenean, hilak 27, *Nola jokatu larrialdi kasu ohikoetan. Lehen sorospenak* berbaldia egingo dute kultura etxean, euskaraz, 18:30ean.

BIKOTEENDAKO TAILERRA

Eguaztenean, martxoak 28, *Bikoteko gatazkak, krisia edo aukera* tailerreko azken saioa egingo dute, kultura etxean. 18:00etan hasiko da.

Ana Bolinaga | Alkatea

"Zabaltzear dago kiroldegia, eta inguruan ez da izango halakorik"

Datorren urtean atez ateko zabor batze sistema jarriko dutela aurreratu du, galdeketarik gabe

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Ilusioz eta poztasunez hartu zuen alkate ardua Ana Bolinagak, eta, martxoaren 9a ezker, jardun osora dago udaletxean. Gai asko eta mardulak darabil, gainera, esku artean: kiroldegi berria, zabor batzea, Txarapeako etxeak... Goiena telebistako *Harira* saioan izan zen martitzenean, eta guztiaren berri eman zuen.

Dagoeneko jardun osora alkate...

Bai; oposizioak gainditu nituen eta hor ibili naiz eskolako lanak eta Udalekoak bateratzen. Sei hilabete gogorak eta astunak izan dira, baina laguntza izan dut, gurasoena eta lagunena, eta beti egin dut aurrera.

Kiroldegia zein fasetan dago?

Zabaltzear. Aurreko egunean izan nintzen bertan arkitekto eta eraikitzailearekin, eta azken ukituak geratzen dira egiteko. Eraikitzaileak emandako planaren arabera, apirilean bukatuko dute, eta maiatzerako aurreikusten dugu zabaltzea. Baliteke hasieran beharrezan bukaeran izatea, baina maiatzean izatea espero dugu.

Herritarrei kiroldegia erakusteko asmorik baduzue bisita gidatuak antolatuta, esaterako?

Ez dakit zabaldu aurretik edo ostean, baina bai, herritarrek ordaindu aurretik ikusteko aukera izango dute.

Kudeaketari dagokionez, erabakirik hartuta duzue?

Kudeaketa integralaren aldeko apustua egin genuen, jakinekua da hori. Proposamenak aztertuta eta baloratuta dauzkagu, astelehenean, hain zuzen, eta, puntuazio baten arabera, badugu irabazlea. Baina osoko bilkuran erabaki behar da, datorren astelehenean.

Zelako tarifak izango ditu kiroldegi berri horrek?

Esandako moduan, hori kudeatuko duen enpresa astelehenean hartuko dugu eta orduan jakingo dugu hark proposatutako tarifak zeintzuk diren. Makina bat aldiz esan dut ez direla izango merkeak, batez ere parekatzen baditugu

ingurukoekin; baina egia da ez direla izango lekuz kanpokoak ere, kontuan hartuta punta-puntako zerbitzua eta ekipamendua eskainiko dituela.

Zer egongo da kiroldegian?

Kalitatea, hitz larriz esanda. Zer den hori? Funtzionala izatea, eroso, esanguratsua, herrikoa, kirol jarduera ugari dituen, arreta zerbitzu pertsonalizatua, igerilekua, spa-gune zoragarria, Euskal Herriko rokodromo onena, punta-puntako instalazioak... Aretxabalekoa oso ona izango da, eta ez dago inguruan horrelakorik.

Datorren urtean atez ateko zabor batze sistema iritsiko da Aretxabaletera?

Bai, beste udalerriekin batera atez atekoa ezarriko da: hiri hondakinen kudeaketa sistema onena. Eta hor badauzkagu datuak: Antzuolan, %82; Hernanin, %78; Oiartzunen, %75; eta Usurbilen, %88. Nik uste dut aretxabaletarrok ere arduraz jokatu eta marka horietara iritsiko garela. Iruditzen zait errespetu falta galanta dela

politikariek esatea herritarrek zaborra eramaten dutela alde batetik bestera. Nik ez nuke hori esango, ezta esperoko aretxabaletarrengandik. Badakit kezka eta zalantzak daudela, badakit beldurra dagoela, eta badakit beldurraekin ez dela ondo pentsatzen. Baina ezagutzen ditut aretxabaletarrek, eta, behin kezka eta zalantzak argituta, beldurra uxatuta eta informazio egokia emanda arduraz jokatuko dutela uste dut, eta markak hautsiko ditugula. Seguru asko, egongo da "satelite" bat, baina horrek ez du deskribatzen gainerako herritarren jokaera.

Aretxabaleta badu berezitasun bat eta da bosgarren edukiontzia hondakin organikoendako. Zenbat hondakin jasotzen duzue?

6.000 kilo inguru hilabetean; baina beste datu bat eman gura dut: martxoaren 1etik 6ra, Antzuolan, 8.860 kilo organiko jaso zituzten. Alde ederra.

Eta herritarrei galdetuko diezue atez ateko zabor batzea gura duten?



Ana Bolinaga alkatea martitzenean *Harira* saioan. | ENEKO AZKARATE

Uste nuen errauskailuaren inguruan galdetuko zenidala; badirudi hori ezin dela galdetu... Gertakariak denboraren lerroan jarrita esango dut errauskailua erabaki zutela herritarrekin kontsultatu barik, AHT bezalaxe. Gainera, bi horien aurka milaka sinadura jaso ziren eta ez zituzten kontuan hartu. Hortaz, Bilduri eskatzea erreferenduma euren sekula egin ez dutenean, iruditzen zait manipulazio kanpaina baten barruan dagoela. Erreferendumik ez da egongo, eta azalduko dut zergatik. Zaborra arazo bat da guztiondako. Baina gutxi batzuekiko negozio borobila ere bai, diru iturri borobila; gerrak legez. Hau da behin eta berriro ezkatzen dabilzana. Zergatik ez dute indartu orain arte bosgarren

edukiontzia erabilera; guk egin behar dugu orain hori? Guk badugu proposamen bat mahai gainean eta da atez atekoa. Hortaz, zaborra arazo bada eta batzuekiko diru iturri, garbi dagoena da birziklatzea ezinbestekoa dela. Ez da egin beharreko pauso bakarra, baina bai garrantzitsua. Eta herritarrek birziklatzera behartu behar ditugu, gura badugu inguru osasungarri bizi. Hori eskubide bat da, eta eskubideak ez dira galdetzen. Zein da birziklatze tasa handienak lortzen dituen kudeaketa sistema? Atez atekoa. Pausotxo bat ematen dugu honekin, pauso garrantzitsua ingurune osasungarri horren alde, eta politikariek hori sustatu eta bermatu behar dute.

Edukiontzia marroia zergatik ez da gehiago bultzatu?

Guk ezin dugu erantzun, orain arte horren alde egin dutenek, EAJK eta PSE-EEK, erantzun beharko lukete. Guk badugu gure proposamena: atez atekoa.

Otsalean onartu zenuten udal aurrekontua eta %28ko jaitsiera izan du; hala eta guztiz, gustura onartutako horrekin?

Ez dira gure gustuko aurrekontuak, beste egoera batean bagina beste batzuk onartuko genituzkeen; baina haxe da errealitatea. Pozik, xemaiko zemaiko begiratu eta guztion artean adostutakoak direlako. Eta bi helburu lortu ditugu: gure zorra ez handitzea eta Aldundiarekin dugun zorra itzultzea dagokion epean.

Orduan, inbertsio berrietarako diru gutxi duzue?

Oso gutxi. Iturri gorri pilotalekua konponduko dugu, Gipuzkoa plazako parkea ere bai, eta Oro auzora doan errepidea. Lau urte ditugu eta mailegurik eskatu barik proiektuak egingo ditugu: Murubide

HERRITARRAK ALKATEARI GALDEZKA

Kiroldegiaren irekieraren data asko eman dituzue, zergatik?

"Uste dut ez dagoela ondo informatuta edo ez duela jarraitu kontua. Guk garbi azaldu ditugu zeintzuk izan diren eraikitzaileen planak eta bertan zehazten dira datak; eta obrako zuzendariak emandako dokumentazioa gardentasunez azaldu dugu. Horren arabera, guk aurreikusten dugu noiz izan daitekeen irekiera. Eta uste dugu prozesuaren nondik norakoak jakin behar dituztela herritarrek, nahiz eta batzuetan txarto geratu gu".

Txarapeako etxeetara joateko igogailurik jarriko duzue?

"Ez. Ez dago gure lehentasunen artean; ez daukagu dirurik. Udalaren egoera ekonomikoa ez da ona. Krisi ekonomikoro baten barruan sartuta gaude guztiok eta gero gure egoera partikularra dago: 900.000 euroko mailegua urtero-urtero ordaindu beharra 10 urtean, 14 milioi euroko proiektua ordaintzeko. Hortaz, lehentasun batzuk markatu ditugu eta hori ez da bat. Ideia egokia da, baina aurrean, behintzat, ezin izango da egin".

Kurtzebarri eskolara doan tunela arriskutsua da; ezer egiterik bai?

"Bai, egia da. Inguruan bizi naiz eta hori apartatu izan dut autoa, eta tunel arriskutsua dela konturatuta nago. Ispilu bat badago bertan autoendako, baina beste neurri batzuk hartu beharko liritekeela uste dut; beharbada, autoen zirkulazioa bertatik kendu eta beste modu batean bideratu... Horrekin arduratuta gaude eta aztertzen gabilta udal ordezkariok; baina ez da samurra izango irtenbidea topatzea".



"Kiroldegi berria ikusteko aukera izango dute herritarrek ordaindu aurretik"

"Asteleheneko osoko bilkuran erabakiko da zein enpresak kudeatuko duen kiroldegia"

"Datorren urtean atez ateko zabor batzea jarriko dugu, eta ez da egingo erreferendumik"

"Arkuperen kudeaketa Udalak hartuko du bere gain teknikariek eta herritarrek"

plaza, skate parkea, ibai bazterreko bidegorria...

Kulturari dagokionez, Arkupe kultura etxearekin pozik?

Bai, eta bertako enpresarekin ere bai, baina azaroan bukatzen zaio kontratua eta hortik aurrera Udalak hartuko du bere gain kudeaketa. Izan ere, baditugu baliabideak: teknikariak eta herritarrek. Horren harira, apirilaren 12an Kultura batzordea jarriko dugu martxan.

Merkeagoa delako da?

Bi azpikontratazio aztertu genituen: kultura etxekoa eta garbitasunarena. Bien artean 250.000 euro inguru aurreztuko ditugu.

Eta Arkupeko eskaintza oraingoaren antzekoa izango da?

Bai, baina azpimarratu gura dugu sormena. Herritarrek sormena sustatzeko espazioa ahalbidertuko dugu.

Sormenerako kuarter zaharra aipatu izan duzu...

Ai... izan behar zuen, bai, baina ez dugu konpontzeko dirurik. Nik neuk gogoz bultzatuko nuke sormen etxe hori: intsonorizatutako gelak musika taldeendako; adin, genero eta kultura askotariko jendearendako gelak... Baina ez dugu dirurik, eta, oraingoan, aparkatu egingo dugu.

Txarapeko etxe tasatuak oraindik bukatu barik daude; Udalak zer bait egin dezake kontu horretan?

Ezer gutxi. Gu gogaikarriak izan gara: deitu, mezuak bidali... Eta betiko erantzunak jasotzen ditugu: konpontze dago kontua, adostasuna lortze... Baina ez da iristen. Orain dela 15 bat egun bilera izan behar genuen eta bertan behera utzi zuten. Astean ez badugu ezer jasotzen, geuk deituko dugu bilera hori.

Bertako bidegorria ere bukatu barik dago; zeini dagokio hori?

Txarapeko etxeen sustatzaileari zatirik luzeena eta kiroldegi inguruko tartetxo, Udalarari. Baina lehen ez zen kontuan hartu eta orain ez dugu dirurik.

Langabeziari helduta, Aretxabalek %9,73ko tasa dauka; Udalak zer bait egin dezake?

Guk segituko dugu formazioa eta lana uztartzen; hori egin dugu kiroldegiarekin. Ido horretatik, langileen poltsa zabalduko dugu hemendik hilabete ingurura, udaletxean, ahal den neurrian lana sustatu eta bermatzeko. Iaz 70 bat herritar joan ziren udaletxean dagoen Enplegu eta Sustapen Sailera.



Aretxarte merkatarien elkarteak astero sarituko ditu bezeroak

M.A. | ARETXABALETA

Aretxartek astero banatuko ditu sariak bezeroen artean, eta dagoeneko eman du lehenengoa. Aretxarteko batzordeko kideek ezarritako baldintzak betetzen dituen bezeroak jasoko du saria, 50 euro inguru, eta baldintza horiek aldatu egingo dituzte astero.

Lehenengo saria martitzenean banatu zuten: Goile SL enpresan lehenengo erosketan egin zuen bezeroak jaso zuen: Soraya Arquerok.

Bestalde, martxoaren 16an egindako zozketaren zerbaki saritua da: 139.132 (Txilarra). Martxoaren 31 arte du epea



Soraya Arquero, sariarekin. | ARETXARTE

aurkezteko. Ordezko zerbakiak dira: 134.908 (Iber) eta 139.149 (Txilarra). Saria da: sagardotegian afaria eta nekazari-etxe batean gaua eta gosaria.

Nafarroako konkistaren gaineko mahai-ingurua eta mendi martxa

M.A. | ARETXABALETA

Aretxabalek Gazte Ekimenak Nafarroako konkista izango du gogoan egunotan, eta horren gainean hausnartuko dute: "Gazteok badaukagu zer esanik eta ezkutatu diguten historiaren jabe egingo gara. Gure herriko historia izateaz gain, garrantzitsua delako nondik gatozen jakitea, nora goazen jakiteko".

Gaur, mahai-ingurua egingo dute udaletxe zaharrean (19:00) eta jarraian, Saratik Lesakara egingo duten Gazte Martxaren aurkezpena. Ekitaldia txikiteoa eginda bukatuko dute trikitilariak lagun dituztela.

Domekan, ostera, Atxorrotzeko gaztelura mendi martxa egingo dute (09:00).

OPOSIZIOAREN BALORAZIOA

Mikel Uribetxebarria | EAJko zinegotzia

"Lau urteotarako proiektua falta da"

"Aurretik datozen kontuen artean dago kiroldegia, eta balorazio ezkorra egiten dut: batetik, obra zibilagatik eta batez ere kudeaketa erabakitzean egon den atzerapenagatik, oraindik erabaki barik. Era berean, pozik gaude kudeaketa ereduarekin. Zaborren gaineko eztabaidan denbora galdu da eta presaka gabiltza orain. Aurrekontua onartu da, zalantza askorekin, baina hurrengo lau urteotarako proiektua falta da, guztiz beharrezkoa. Presa txikiagoa eta planifikazio handiagoa eskatuko nioke".

► ALKATEAREN ERANTZUNA

"Harrituta geratu naiz. Kiroldegiaren obra eta kudeaketa zelan lotzen dituen ez dut ulertzen; obraren gainean ezin dugu ezer egin guk, eta badaki. Presaka gabiltzala hondakinen gainean? Errauskailua dagoelako tarlean, eta horren eraikuntza ekidin beharra dago. Aurrekontua onartzeko bi hilabeteko prozesua izan da, eta azkarregi onartu dugula ezin esan. Aitzakiak direla esandakoak uste dut.

OPOSIZIOA ALKATEARI GALDEZKA

Agintaldia hasi zenetik ez dugu egin Garapen Ekonomikoaren batzorderik; noizko hori?

"Bai, egia da; batzorde horretako burua naiz eta orain arte ezin izan dut antolatu. Datorren asteari begira adostuko dugu".

Aurrekontua onartu da eta inbertsioetarako ez dago dirurik; datorren urterako posible izango da?

"Ez dakit, ikusi egin behar, garai onak ez dira eta".

Edukiontzia marroia erabiltzeko bultzada ez da izan nahikoa; demostratzeko ahaleginak ez du merezi?

"Ez dut ondo ulertzen; nora begira egon dira orain arte? Zergatik ez dute indartu orain arte?".

ATXABALTA LEHIAKETA

Hartu parte eta irabazi hainbat sari!



15. Atxabaltako Isurieta auzoko eliza Oñatiko kondearen menpe egon zen garaian, zeri esaten zitzaion hamarrenak eta hazikinak?

16. Zein ez da sinonimoa?

a) ipurmamin b) ipurratal c) ipurtarin d) ipurmatrailla

Erantzunak eta zure datuak (moztu azpialdea) Loramendi Elkartera ekarri (16:00-20:00) edo bidali hona: Aretxabalek 96 posta-kutxa edo lehiaketatxabalta@gmail.com.

15: _____ 16: _____
Izen-abizenak: _____ Tel.: _____

Azken eguna: martxoaren 30a.

Aurreko galderen erantzunak:

13: b) Isurieta azpikoa.

14: Trumoiak jotzen duenean esaten da.



Santa Kurtz 24, behea ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net

Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
•
Obra bukaerako garbiketak
•
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
•
Kristalen garbiketak
•
Arropa garbiketak

Ospitalerako autobus zerbitzua jarriko dute

Apirilaren 16an jarriko du Foru Aldundiak martxan zerbitzu berria

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Antzuolaren eta Arrasateko ospitalearen arteko autobus zerbitzu berria izango da martxan apirilaren 16tik aurrera. Zerbitzua astelehenetik egubakoitzera izango da, lan egunean. Guztira, joan-etorriko zazpi zerbitzu izango dira egunean zehar. Garraio publikoaren aldeko apustua egin nahi du, modu horretan, Foru Aldundiak.

Hortaz, aurrerantzean, Antzuolako herritarrek eskualdeko ospitalera joateko autobus zerbitzu zuzena izango dute. Ondorioz, Bergarara joateko ere orain arte baino zerbitzu gehiago izango dituzte. Bergarako herritarrek ere Arrasatera joateko zerbitzu gehiago izango dituzte; eta, noski, baita alde-erantzizko noranzkoan ere.

"Garraio publikoa hobetze aldera, Gipuzkoako Foru Aldundiak beste urrats bat egin du. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mugikortasuneko eta Bide Azpiegiturako Departamentuarentzat oso garrantzitsua da garraio publikoa hobetzea, eta hori izan-



Debagoieneko ospitaleko autobus geltokia. | MAIDER ARREGI

go da agintaldi honetako erronka nagusietako bat", dio Diputazio-tik hedabideetara zabaldukotako prentsa-oharrak.

Ordutegi zehatza ikusteko, zerbitzu hori erabili nahi dutenek Lurradebuseko edo Pesako web-guneetara jo dezakete.

Geltokiak

Joanekoan, Antzuola (Olaran), Bergara (Ibargarai eta autobus geltokia), Arrasate (ospitalea eta Garibai). Etorrikoan: Arrasate (ospitalea eta Garibai), Bergara (Ibargarai eta autobus geltokia), Antzuola (Olaran).

NIRE USTEZ

PATXI OLABARRIA



Arima errebeldeari

Irizki artikulua bat idazteko orduan burura datorkidan lehenengo galdera: zertaz idatziko dut? Datorren aste-ko grebaz idatz nezake, ezker abertzalea ematen ari den pauso irmoetz idatz nezake, Antzuolako PNVren izenean Zumaian idatzitako panfletoaz idatz nezake...

Baina gaur zuri idatzi nahi dizut. Elkarrekin izandako azken solasaldian zutabe honetan idatzi nituen sagarren kontuak eta zuk Kukutzari buruz idatzitakoak aipatu genituen. Penaz nago orain, ez baitut zure arti-

kulu biziak irakurtzeko aukera berririk izango. Horregatik, Googlen zure izena sartu eta zure artikulua berrirakurri ditut behin eta berriz: Mairuaren Alardean zure parte-hartzearekin Bidasoako konpainia mistokoak omendu nahi izan zenituen; gure haurrek eskolako jangelan jaten dutenaren kalitateaz arduratu zinen; AHT-ren txikizioak eta jendartearen pasibotasunak kezkatzen zintuen; eta zure azken artikuluan Kukutzaren desalojoaz zenioena irakurri eta berridaztean zu ikusten zaitut: "Arima errebeldeek beste habia bat aurkituko dute eta sorkuntzak jarraituko du... Gazte eta ez hain gazte, eutsi goiari, ametsak ez dizki-gute-eta zapuztuko".

Emakumea, konprometitua, solidarioa, antimilitarista, ama, natura zalea, baserritarra... Bi hitzetan, arima errebeldea.

Agur eta ohore, Idoia.

'Hondakin gutxiago, ongizate gehiago' izeneko erakusketa ikusgai aste bukaeran

Hondakinen sorreraren prebentzioari buruzko erakusketa ibiltaria Oларanen izango da ikusgai zapatuan eta domekan, 18:30etik 20:30era. Erakusketak ondorengo atalak landuko ditu: ur zirkuituak, hondakin-terapia, ekodiseinua, terapia miragarriak, azken zirkuituak, kontrasteen eremua eta berpiztua irteteko. Hilaren 26an Elgetan izango da erakusketa.

IDOIA GOGORATUZ

Emakumeen Egunari begiratu emanaz, ezin gogoratu gabe utzi alaitasunez eta indarrez gizartearen hainbat alorretan berdintasunaren eta andreon aintzatespenaren alde borroka egin izan duen emakume bat.

Ahal izango balu, lilatoian arineketan, Oihulari Klownekoekin pailazoarena egiten,

txikienezako tailer jostagarriren batean, eskolako jangela osasungarriagoaren alde borrokan, ezohiko sendabelarren baten bila, gazta eta bildotsa barra-barra saltzen edo ilargiaren argitan dantzari ibiliko litzateke.

Eta beti... irribarrea ezpainetatik galdu gabe.

Gure elkargune izaten jakin izan duzu; zure inguruan, barre eta berriketa artean, esperientzia mordoa partekatu dugu, hamaikatxo une gozotan. Bizitzak utzi digun guztia gozatu dugu zurekin, eta, azken hilabete hauetan, zure ondoan izan gara. Gogorrak izan dira, alajaina, baina baita aberasgarriak ere, eta asko ikasi dugu adorea, borrokaren, maitasunaren eta indarraren gainean.

Zure irribarrea lagun izango dugu, beti, Antzuolan.

Koloretako musu bat zuretzako, politxoi, Antzuolako zure nesken partetik.



ARROLA MENDI TALDEA

Gazteek eta gurasok Debara egin dute irteera

Hilaren 11n, Gipuzkoako eskola arteko mendi lehiaketan, 17 haurrek eta 13 gurasok hartu zuten parte. Debara egin zuten irteera, giro paregabean eta paisaiaz gozatuta. Argazkia Itziarren ateratakoa da, indarrak berreskuratzeko eta mokadutxo hartzeko egindako geldiunean. Bukaeran, diploma bana jaso zuten gaztetxoek. Bestalde, hilaren 28an Arrolak urteko batzar orokorra egingo du, 18:15ean hasita.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89

ZAHAR BERRITZEAK:

Fatxadak

Bainugela eta sukaldea

Lokal komertzialak

Teilatuak

Txipi Ormaetxea | Hizkuntzalaria

"Berorika galtzeak pena handirik ez; bai, ordea, hika galtzen joateak"

- ▶ 'Aramaioko aditz taulak' izeneko lana aurkeztu zuen kultura etxean
- ▶ Aramaioko eta inguruko herrietako adizkiak nahiko antzekoak direla dio

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Filologia Erromanikoan eta Euskal Filologian lizentziaduna den Txipi Ormaetxea hizkuntzalaria (Arrasateko Gesalibar auzoa, 1954) kultura etxean izan genuen joan den astean *Aramaioko aditz taulak* izeneko lana aurkeztu. Era berean, Badihardugu elkar-teen *Ahotsak.com* proiektuaren Aramaiori dagokion atala ere aurkeztu zuten. Ormaetxearekin egon gara azken lan horren gainean berbetan.

Zein zen hitzaldiaren helburua?

Badihardugu euskara elkarte 2005ean hasi zen Deba ibarreko herrietako aditz-taulak argitaratzen. Aramaioko aditz taulen aurretik beste herrietako batzuk agertu izan dira. Esaterako, 2005ean Oñati eta Eibar; 2006an Bergara eta Elgoibar; 2007an Elgeta, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzaga; 2008an eta 2009an Soralue eta Mallabia; eta 2010ean, azkenik, Antzuola.

Helburua zen iazko abendutik argitaratua zen lana aramaiorrei aurkeztea. Gaia zabala bada ere, aurkezpen laburra izan zen, puntu zehatz batzuen inguruko; besteak beste, aditz-taulak eta erabilera, berezitasun batzuk, tratamenduak eta erregistroak.

Egia esan, pena izan zen adineko jenderik etorri ez izana. Izan ere, aurkeztu ziren proiektu biak Aramaioko lekuko zaharrenei esker burutu dira eta oso interesgarria izango litzateke eurak ere hitzaldian egotea. Hala ere, etorri zirenek parte hartu zuten eta giro ona sortu zen.



Txipi Ormaetxea, Aramaioko kultura etxean. | ROSA MONDRAGON

"Hizkuntza transmisioa ez da eten, baina aldaketa etengabea da"

"Galdera bat: 'Erosi neike'-ren pareko 'erosi leikedot' onargarria da?"

Edukira jota, Aramaion bakarrik erabiltzen da aditz taula hori?

Ez, Aramaioko adizkiak eta inguruko herrietakoak nahiko antzekoak dira. Aramaion eta inguruko herrietan, berezitasun bat da aditz-forma askotan ez dagoela komuntadurarik objektu pluralaren eta aditzaren artean. Adibide batekin hobeto ulertuko da: *Edan daigun kopa bat* (batua: *Edan dezagun kopa bat*); *Edan daigun kopak* (batua: *Edan ditzaigun kopak*). Adizkietan, Aramaioko berezienak hauek dira, nire ustez: *nen (nuen)*, *gen (genuen)*, *zen (zenuen)*. Egia da, dena dela, horien ondoan beste hauek ere erabiltzen direla: *neuen/nauen*, *geuen/gauen* eta *zeuen/zauen*.

Adizki guztiak jaso dira Aramaioko zaharreneen artean, baina guztiak ez dute erabilera maiztasun bera. Eguneroko jardunean batez ere indikatibozko formak erabiltzen dira: orainaldikoak, *naz (naiz)*, *jat (zait)*; eta lehenaldikoak, *nintzen (nintzen)*, *jaten (zitzaidan)*.

Adinekoen hizkeraren berezitasunak jasotzen dituzte gazteak?

Transmisioa ez da guztiz eten, baina hizkuntzaren aldaketa etengabea da. Aditzean ere gauzak aldatzen doaz. Euskara Batua-aren eragina ere hor dago, batez ere gazteengan. Hor galdera bat sortzen da: dena da onargarri? Esaterako, *erosi neike*-ren pareko *erosi leikedot* onargarria da?

Bestalde, nik ez dut pena handirik berorika galdu delako, baina bai hika galtzen doalako. Eskerrik asko, etorri zinetenoi.

Sarriako bertso barnetegirako izen-ematea, 23ra arte

J.B. | ARAMAIO

Sartu gara udaberrian, eta hori, Aramaioko Lehen Hezkuntzako zenbait ikaslerendako abenturaren sinonimo da. Bertso abenturaren sinonimo; izan ere, aurten ere Sarriako bertsoa eta abentura izango dira protagonista.

Pazko astean hiru egun

Aurten apirilaren 10ean, 11n eta 12an egingo da bertso barnetegia, Sarriako Goikuria aterpetxean. Dagoeneko izena emateko azken egunetan sartu gara; izan ere, astelehenera arte dago zabalik. Arabako Bertsozale Elkarteak eta Zuia-ko Koadrilako Euskara Zerbitzuak antolatzen dute, eta, beraz, Aramaioko Lehen Hezkuntzako haurrek ere izena eman dezakete, udaletxean.

Nola? Bada, izena emateko fitxa beteta, osasun txartelaren kopia eta 40 euroko ordainketa ziurtatzen duen bankuko egiaztagiria entregatuta (transferentzia egitean kontzeptu moduan haurren izen-abizenak idatzi, honako kontu korrante zenbakian: 3035 0012 74 0120025862).

Euskara bultzatzea

Bertso barnetegiaren helburuak honakoak dira: euskararen erabilera bultzatzea oporraldia aprobetxatuz, bere erregistroak ludioena gartzea eta ondare kulturala sakonago ezagutzea.

Memoria tailerreko erabiltzaileak "oso gustura" dabilta

60 urtetik gorakoendako memoria tailerra Aste Santu ostean amaituko da. Edurne Uribarren-Iturrieta Ongizate zinegotziak adierazi duenez, tailerrean dabilta erabiltzaileak "oso gustura" daude ekimenarekin: "Laster amaituko delako penaz daudela esan didate, eta halako gehiago antolatu behar direla", dio zinegotziak.

Txirritolaren ipuin lehiaketarako azken eguna: martxoak 30

Txirritola euskara elkar-teen ipuin lehiaketarako lanak Udal Liburutegian entregatzeko azken eguna da martxoaren 30a. Txikienak protagonista izan arren, antolatzailerik berezia egin diete 12 urtetik gorakoei ere lehiaketan parte har dezaten. Apirilaren 27an egingo da sari banaketa ekitaldia.

Kontsumo arduratsuen jardunaldien harrera ona

Alaiak erretiratu elkar-teen kontsumo arduratsuen gaineko jardunaldiak egin dituzte, eta, besteak beste, Cafes Fortalezaren Gasteizko lantokia bisitatu dute. "Jardunaldi interesgarriak" izan dira, diotenez: "Kontsumo arduratsuen gainean asko ikasi dugu". Aurreragoko hitzaldietara joateko dei ere egin dute.



ALAIK ERRETIRATU ELKARTEA

ELGETA



Goitu enpresako beharginak, egunean, eraikina desegiteko lanetan. | L.Z.

Lau bat asteko lana izango da fraideen etxea botatzea

Zailtasunak zailtasun, Jesusen Bihotzaren irudia osorik jaistea lortu dute

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Mugimendu handia dago Domingo Iturbe Patronatuaren eraikinaren bueltan; edo, edadeko herritarrek esaten duten moduan, "fraideen etxean". Eta aurretik begiratuta, gainera, hutsune deigarria antzematen da fatxadan: zaindaria falta da.

Hasita daude eraikina botatzeko lanak, eta beharginen lehenengo zeregina izan da urte luzez fraideen etxea zaindu duen irudia jaistea; Jesus Bihotzaren irudia zegoen lekutik apurtu barik berreskuratzea, alegia.

Bergarari begira zegoen, nahiko garaiera handian. Irudia bera

ere handia eta pisutsua da; hortaz, zereginak zaila zirudien. Bada, ez da lan erraza izan, baina eraikinean gauzak nahiko erraztu dituen leiho bat aurkitu dute. Orain, parrokiaren garaje batean dago irudia.

Lanak poliki

Bien bitartean, aurrera segitzen dute eraikina botatzeko lanek. Teilatutik hasi dira Goitu enpresako beharginak, eta denbora beharko dute; izan ere, helburua da beheko solairuan dagoen frontoiaren estruktura ez kaltetzea. "Lau bat asteko lana izango da", adierazi du Oxel Erostarbe alkatetik. "Kontuan hartuta tartean Aste Santuko jaiegunak daudela... ba, atera kontuak".

Solairuz solairu joango dira eraikina desegiten. "Lehenengo, solairua hustu, eta gero, hormak barruko aldera botako dituzte", azaldu du Erostarbek.

Langileek, berriz, gogorarazi dute ezin dela lan-eremuan sartu. "Nabari dugu jendea ibiltzen dela gu ez gaudenean, eta hori oso arriskutsua da". Segurtasun neurriak errespetatzeko eskatu dute.

Jesusen Bihotzaren irudia

Aurreko astean jaitsi zuten Jesusen Bihotzaren irudia fraideen etxeko fatxadatik. Harrizkoa da eta pisu handia du; tamainaz, 60 bat zentimetro ditu.

Eskumako eskua falta du eta ezkerrekoa apurtuta dauka. Oinarria ere zartatuta dago. Bada, kontuan izanda urte asko egin dituela Domingo Iturbek egindako eraikinaren fatxadan, egoera onean dagoela esan daiteke.

Orain, Domingo Iturbe Patronatuko kideek erabaki beharko dute irudiarekin zer egin.



Irudiaren egoera. | L.Z.



MARI CARMEN
ETXEBARRIA

"Patronatuko kideek erabakiko dute orain irudiarekin zer egin"

Azaroan egindako batzar batean galdetu zuen Mari Carmen Etxebarriak fraideen etxeko fatxadako irudiarekin zein asmo zegoen. Osorik jaisteko aukerarik egonez gero, saiatzeko eskatu zuen.

Irudia osorik jaitsi dute, azkenean.

Zorte handia izan dugu. Irudiaren parean, horman ezkutatuta, zabal zitekeen egurrezko irekidura bat agertu da. Hala, kanpotik jaitsi beharrean barrutik jaitsi ahal izan dute.

Fatxadan hainbeste urte eman ostean, nahiko egoera onean dago irudia, ezta?

Bai. Fatxadan zegoen, Bergarari begira, eta ez dakit zenbat urte emango zituen bertan, baina asko. Bi eskuak eta basea bakarrik ditu apurtuta. Gainerakoan, ondo dagoela dirudi.

Zer gertatuko da orain irudiarekin?

Ez dakit. Hori Patronatua osatzen duten kideek erabakiko dute. Bitartean, hemen egongo da. Gogoan dut nola Maalako ermita bota zenean Ama Birjinaren irudia berreskuratzea egin zen. Konpontzea erabaki zen orduan, eta irudi hori orain parrokiaren dago ikusgai.

"Maalako ermitan zegoen irudia konpondu egin zen"

OHARRAK

BATZARRA GAZTELEKUAN
Gaur, barikua, 18:00etan, udal ordezkariak erabiltzaileekin batzartuko dira.

INAUGURAZIOA ESPALIOA
Gaur, 19:00etan, lanak amaitu osteko inaugurazioa.

MENDI IRTEERA
Domekan 08:00etan abiatuko dira Loiola aldera Kantsatzeko taldeko kideak.

BISITA LUBAKIETARA
Domekan, 10:00etan, antzokiko gunetik abiatuta. Izena emateko deitu: 943 718 911.

HERRIXA DANTZAN
Domekan, kafe antzokian. 18:00etan haur eta gurasoendako; 19:00etatik 20:30era ohiko dantza saioa.

ZABORRA ERAKUSKETAN
Astelehenean hasita Espalioan. Mankomunitateak antolatutako erakusketa.

AUZOLANERAKO DEIA
Martxoaren 31n, zapatua, 09:00etan, lubakiak auzolaneari garbitzeko deia. Hamarretakoa Udalak ipiniko du.

FRONTENISA

AURREKO JARDUNALDIKO EMAITZAK

Jon Irazabal-Ibon
Untzetabarrenetxea
/ Mikel Zubiaurre-Danel Cusi
25-23

Haritz Gallastegi-Enrike Elkoro
/ Adrian Gorostiza-Asier Osoro
25-05

Idoia Elkoro-Enrike Elkoro
/ Maite Mandaluniz-Jabier Larrañaga
25-06

Rebeka Ubea-Mikel Arkarazo
/ Iune Dosuna-Xanti Dosuna
25-18

Iban Retolaza-Xabier Ubea
/ Adrian Gorostiza-Asier Osoro
atzeratua

PARTIDUAK ZAPATUAN, HILAK 24, 15:00ETAN
Odei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga
/ Ibon Untzetabarrenetxea-
Jon Irazabal

PARTIDUAK DOMEKAN, HILAK 25, 10:30EAN
Idoia Elkoro-Enrike Elkoro
/ Idoia Serna-Asier Osoro

LEINTZ GATZAGA

Berdintasunaren aldeko murala egingo dute gaur Herriko Plazan

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Bideberri mankomunitateak antolatuta mural erraldoia egingo dute gaur (19:15), San Migel plazan. Jenero berdintasunaren eta emakumeen eskubideen aldeko murala izango da, eta herritarren laguntza eskatu dute horretarako, elkarren artean egindako mural erraldoia izan dadin.

Antzuola, Elgeta eta Gatzagako Gizarte Zerbitzuak kudeatu eta bideratzeko sortutako Bideberri mankomunitatearen ekimena da murala, eta horren helburua da gatzagar guztien artean eraldaketaren aldeko bideari ekitea. Norberak bere hausnarketa egin dezala gaiaren gainean eskatu dute antolatzaileek

eta teknika librea erabilita mural erraldoian irudikatu gero: esaldiak idatzita, irudi, marrazki edo argazki batekin... Ume, gazte, heldu eta erretiratu, guztien laguntza eskertuko dute.

Kartel lehiaketa Elgetara

Bestalde, Bideberri kartel lehiaketa antolatu zuen Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira eta Nerea Villa elgetarrak irabazi zuen. Sei kartel jaso zituzten eta bigarren saria ere elgetar batek jaso zuen, Koldo Izagirrek.

Dinamizatzailea izango da KZgunean astelehen arratsaldean

Astelehenean (16:00-20:00) dinamizatzailea etorriko da KZgunera herritarren zantzar argitu eta ikastaro motzak eskaintzeko. 16 urtetik gorako herritarrek dute aukera ikastaro horiek egiteko, tartean daude, sare sozialen gainekoak -Facebook, Twitter...- Googlek eskaintzen dituen tresnen gainekoak...

Mundumira jaialdiko egitaraua aurkeztuko dute martitzenean

Maiatzean ospatuko den Mundumira jaialdiko egitarauaren berri emango dute martitzenean, hilak 27, udaletxean (11:00). Artisau feria eta produktu ekologikoen azoka egingo dituzte Gatzagan; ikuskizun erraldoiak ostera, Eskoriatzan, Kilema eta Bizardu-nak taldeen kontzertuak esaterako.

TXIRRINDULARITZA

Contadorren errekoraren atzetik, hamaika urte geroago, Gorlan gora

Egutegiko lasterketa garrantzitsuenetakoa domekan

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Domekan (10:00, San Martin plaza) hamaika urte beteko dira Alberto Contadorrek Gorlako Igoeran errekorra gainditu zuenetik. Ordutik urtero-urtero afizionatu mailako oilarrak animatzen dira, Debagoieneko lasterketa esanguratsuenan, Pintokoak ezarritako markara gerturatzen –gainontzeko ziklistek haiendako egin behar izaten dute lan, baina Gorlan baino gehiago, Deskargan–. Madrildarrak 20 minutu eta 30 segundotan geratu zuen kronoa, eta, errekorra gainditzera zihola ez zekienez, azken metroak lasai egin zituen, denbora galdu-ta. Hala, lehenago marka onena Juanma Garatek zuen, 1998an Contadorrek baino hiru segundo



Contador, Txomin Larrañagarekin.

ESANAK

"Grijalba, Salas eta konpainia irabazteko gogoz datoz"

MIGEL ANGEL LARRAÑAGA | LOKATZA

gehiago behar izan zituen Gipuzkoako mendate nagusietako bat igotzeko (20:33).

"Dena gertu dago"

Gorlako 37. Igoera denboraldiko zazpigarren lasterketa izango da, eta, duda barik, orain artekoen artean garrantzitsua: "Asteburuan Madrilen Koparako baliagarria den beste lasterketa bat dago, baina ez dut uste guretako eraginik izango duenik". Esaera zahar batek dio Bergaran irabazten duenak profesioletara salto egiten duela, eta erakusleho aparta da txirrindulariendako: "120 txirrindulari inguru espero ditugu, eta maila onekoak. Jakin dugunez, Grijalba, Salas eta konpainia garaipen bila datoz; horrenbestez, lehia polita egongo da", diosku Lokatzako presidente Migel Angel Larrañagak.

Aurtengo lasterketa, gainera, Lokatzako lagunendako berezia izango da: "Aspaldiko partez herriko hainbat txirrindularik parte hartuko dute lasterketan, eta polita izango da. Horrekin batera Arrasateko talde berria

ere etorriko da, horrenbestez, inguruko ziklista asko izango ditugu".

Urtzi Mugurutza, irabazle

Sumofic-Igartua taldeko Urtzi Mugurutza txirrindulari antzularra azkarrena izan zen domekan Eibarren egin zuten lasterketan, eta lehenengo garaipena eskuratu zuen. Bederatzi laguneko taldea batera iritsi zen lasterketaren amaierara, eta azken kilometroan lan oso ona eginez Mugurutzak jaso zituen Eibarko kaleetan besoak. Aurten egin dituzten lasterketan aurreko taldeburuan helmugaratu da Mugurutza, eta denbora kontua zen garaipena lortzea.



Alberto Contador, Gorla gainean, 2001ean. | ARGAZKIAK: LOKATZA



Denboraldi hasieran Sorluzeko lasterketan ateratako erretratuak. | UBANE MADERA

Debagoieneko txirrindulariak, inoiz baino gehiago

Azken urteotan Gorlako Igoerak ordezkari txikia izan du ibarreko ziklistei dagokienez. Iaz Jon Rivero bergararra izan zen bakarra, eta lasterketa amaitzea lortu zuen afizionatu mailako bere lehen urtean. Aurten taldekide berriak ditu, Hodei Orobengoa, Eneko Lizarralde –ez dago argazkian–

eta Mikel Aristi. Lasterketa berezia izango da euren dako, duda barik. Baina eurekin batera tropeleko talde berri Kanpanzar Harrobiak taldeko txirrindulariak ere izango dira Gorlako gogortasuna probatzen; erretratuan daude Umerez, Aranburu eta Eskibel, guztiak lehen urtekoak.

TXIRRINDULARITZA

Ibarreko taldeak Uzarragako Igoeran egongo dira bihar

Gazte mailako lasterketa egingo dute zapatuan, 16:00etan hasita, Antzuolan

X.U. | ARRASATE

Zapatuan (18:00) egingo dute gazte mailako Uzarragako Igoeraren 37. edizioa, Antzuolan. Lasterketa ederra da, kilometro gehienak Sagasti, Oñati eta Zubillaga artean egin ostean azken biak erabakigarriak izaten direlako, lasterketari izena ematen dion Uzarragako igoeran, alegia.

Ikusteko dagoena da lasterketan egongo diren ihesaldi saikeraren bat ona den eta azken bi kilometroak ihesaldian sartu-

takoen artean erabakitzen duten edo, iaz gertatu bezala, tropela Antzuolara batera iritsi eta azken bi kilometroetan guztien arteko lehia ikusten den.

Antzuolarako tartea, gogorra

Lasterketak gazte mailako ziklista mordoa batuko ditu, eta tartean egongo dira Aloña Mendiko, Sumofic-Lokatzako eta Dorletako Amako txirrindulariak.

Hain zuzen, iaz Bergarako txirrindulariak izan ziren lan



Garaialde, iaz, podiumean. | X.U.

handien egin zutenak. Kilometro askoan lasterketa buruan jarri eta gogotik egin behar izan zuten lan ihes eginda zihuan 12 laguneko taldea harrapatzeko; taldeko gizon arinak Uzarragara bidean

ondo kokatzeko egin zuten lan. Eta lortu egin zuten hori, atzean lan ondo egiten badute ihesaldiek nekez izaten dute-eta arrakasta, Bergaratik Antzuolarako tartea aproposa da-eta abenturazaleak

DATUA
81
KILOMETRO
Uzarragako lasterketak 81 kilometro izango ditu, azken biak malda gora.

harrapatzeko. Baina garaipena eskuratzeko Bergarako lana bikain aprobetxatu zuena Mikel Garaialde izan zen. Uzarragako Igoerako kilometro horietan erritmo bizia jarri eta Caja Ruraleko ziklista arinak ez zuten kontrariorik izan. Igoera horretan Iker Eskibel eskoriatzarrak –orain afizionatuetan– igoera ederra egin zuen, podiuma lortuta.



Jon Zabaleta, iaz, Bergararen kontrako derbian baloiagatik lehian. | JOSETXO ARANTZABAL

KENPOA

Euskal Herriko Kenpo Txapelketa egingo dute zapatuan Eskoriatzan

Debagoienean bi taldek egiten dute borroka arte hori

XABIER URTZELAI | ARRASATE
Bihar, 10:00etan hasita Euskal Herriko Kenpo Txapelketa egingo duten Manuel Muñoz kiroldegian. Lehenengo saioak Gipuzkoako Txapelketa barrukoak izango dira: "Euskal Herriko Txapelketakoak, berriz, 12:00ak inguruan hasiko ditugu. Azken batean, borroka arte hau jende askok praktikatzen ez duenez bateratu egiten ditugu txapelketak", adierazi digu Iker Letonak.

Atama eta Ziorla taldeak

Debagoienean bi talde daude Kenpoa egiten dutenak, Eskoriatzako Atama, eta Arrasateko Ziorla taldeak. Bi taldeek harreman oso estua dute, eta nahiz eta antolatzaile lanetan ibiliko diren, klubek horietako 25 lagunek txa-

pelketan parte hartuko dute: "Ziorla taldetik 6-7 lagunek hartuko dute parte, eta Atamatik beste 19 lagun inguruk bai, giro polita egongo da, seguru".

Txapelketan bi talde horietako ordezkariak kontrario indartsu bat izango dute, Kenpo Kay klubeko borrokalariak: "Klub

horrek delegazio asko ditu hainbat herritan, Donostian, Legazpin... Nafarroan ere hainbat herritan dute ordezkariak, baina oinarrian Oiartzunen dute egoitza. Gu baino klub askoz ere handiagoa da, eta txapelketara ere guk baino borrokalari gehiago eramaten dituzte, baina ondoren, emaitzak lortzerako orduan, euren parean egoten gara".

Hainbat domina eskuragai

Hala, Letonak txapelketa polita aurreikusten du, eta parekatua. Ibarreko borrokalariak aurrealdeko postuetan egon daitezkeela aurreikusten du, eta euren artean anaia, Josu Letona arrasatearra, izan daiteke azpimarragarrietaiko bat, Euskadiko eta Espainiako txapelkun da-eta.

DATUA

25

BORROKALARI

Arrasateko eta Eskoriatzako taldeetako 25 borrokalari inguru izango dira lehian

MENDIKO BIZIKLETA

Debagoieneko atletak jaun eta jabe Basaurin

Ander Agirre denboraldi hasiera bikaina egiten dabil, Oñatin –argazkian– meritu handiko bigarren postua lortu ostean Basaurin azkarrena izan zelako –Antxintxika taldeka onena. Ez zen probako protagonista bakarria izan, Oñatik Joseba Luis Urtzelai eta Xabier Luis Urtzelai podiumera igo ziren-eta.



JOSETXO ARANTZABAL

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

LEHENENGO MAILA

Real Madrid-Reala
Zapatua, 20:00. Madril.

EMAKUMEZKOEN 2. MAILA

Pauldarrak-Mondra
Domeka, 12:00. Bilbo.

GAZTEEN EUSKAL LIGA

Real Union-Aretxabaleta
Domeka, 13:00. Irun.

OHOREZKO ERREGIONALA

Behobia-Bergara
Zapatua, 17:00. Gal.

Pasaia-Mondra

Zapatua, 16:30. Don Bosco.

Aloña Mendi-Urola

Domeka, 16:30. Azkoagain.

Anaitasuna-Aretxabaleta

Zapatua, 16:30. Txerloria.

ERREGIONAL PREFERENTE A

Aretxabaleta B-Zumaia
Domeka, 16:30. Ibarra.

Antzuola-Ilintxa

Zapatua, 16:00. Estala.

ERREGIONAL, IGOERA

Vasconia-Mondra B
Zapatua, 17:30. Donostia.

LEHEN ERREGIONAL, KOPA

Aretxabaleta C-Irauli
Zapatua, 15:00. Ibarra.

GAZTEEN OHO, IGOERA FASEA

Bergara-Kostkas
Domeka, 17:00. Ipintza.

Sanse-Aloña Mendi

Domeka, 10:00. Donostia.

OHOREZKO GAZTEAK, KOPA

Mondra-Lengokoak
Zapatua, 16:30. Mojategi.

EMAKUMEZKOAK, IGOERA

Intxausti-Arizmendi
Domeka, 12:30. Donostia.

ARETO FUTBOLA

Euskadiko TXAPELKETA
Berrio Otxoa-Eskoriatza
Domeka, 12:40. Bilbo.

GIPUZKOAKO BIGARREN M.

Aretxabaleta-Gamon
Gaur, 20:45. Almen.

SENIOR NESKAK

Arizmendi-Samaniego
Domeka, 12:00. Almen.

ESKUBALOIJA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Elgoibar-Ford Mugarri Arrasa.
Zapatua, 19:00. Elgoibar.

Hondarribia-Soraluce BKE
Domeka, 12:00. Hondartza.

EMAKUM. PREFERENTE A

Ereintza-Aloña Mendi
Zapatua, 16:00. Errenteria.

LEHEN TERRITORIALA

Izarraitz Aloña-Eibarko Haritza
Zapatua, 18:30. Zubikoa.

FEDERAZIO SARIA, GAZTEAK

MU Lingua Aloña-Usturbi
Zapatua, 17:15. Zubikoa.

Ordizia-Bergara

Domeka, 09:30. Ordizia.

FEDERAZIO SARIA, KADET.

Karibe Zaharra-Berezo Aloña
Zapatua, 17:30. Legazpi.

La Salle-Soraluce BKE
Domeka, 11:00. Donostia.

Soraluce Berg.-Urola
Zapatua, 16:15. Labegaraleta.

Karibe Zaharra-Talleres Chap.
Zapatua, 19:00. Labegaraleta.

SASKIBALOIJA

EBA

Miguel Antonio-Natra Oñati
Zapatua, 16:30. Burgos.

LEHEN NAZIONAL MAILA

Biok Zerbitzuak-MU
Zapatua, 18:00. Ordizia.

LEHEN SENIOR GIZONEZK.

Soraluce Bergara-Hernani
Zapatua, 18:15. Labegaraleta.

Erroibide Irun-MU
Zapatua, 20:00. Irun.

BIGARREN SENIOR GIZONE.

Kraft Atletico-Aloña Mendi
Zapatua, 16:00. Donostia.

HIRUG. SENIOR GIZONEZK.

Ruibai-MU B
Zapatua, 16:30. Ipurua.

SENIOR EMAKUMEZKOAK

Eskoriatza-Tecnun
Gaur, 20:00. Donostia.

GAZTEAK GIZONEZKOAK

Aloña Mendi-Easo Ekaitza
Zapatua, 12:00. Zubikoa.

MU B-Easo AZ Haritza
Domeka, 11:45. Musakola.

GAZTEAK EMAKUMEZKOAK

Kraft Atco.-Eskoriatza
Zapatua, 12:00. Donostia.

SPINNING

OÑATIKO 2. SPINNING

MARATOIA
Zapatua, 16:00. Zubikoa.

BORROKA ARTEA

EUSKAL HERRIKO KENPO

TXAPELKETA
Zapatua, 10:00. Eskoriatza.

MENDIA

IBILBIDE GIDATUA

BERGARAN
Irukurutzetako urak herrira

ekartzten zituen ubidea

jarraituz, Pagolatik.

Domeka, 10:00. Gorkalo

kantinan.

GORLARA OINEZKOENDAKO

IGOERA BERGARAN.
Domeka, 09:00. Kiroldegian.

TXIRRINDULARITZA

UZARRAGAKO 37. IGOERA
Zapatuan, 16:00etan Antzuolan.

GORLAKO 37. IGOERA.
Domeka, 10:00. Bergaran.

GIMNASIA ERRITMIKOA

Amateur mailako eta Eskola Arteko gimnasia txapelketa jokatu dute etzi Bergaran

Domekan egingo dute Bergarako Labegaraleta kiroldegian Gipuzkoako Amateur mailako eta Eskola Arteko A mailako txapelketa. Hain zuzen, txapelketa horretako bigarren fasea jokatu dute, hau da, joan den hilean Arrasaten jokatuakoaren jarraipena. Hala, Gipuzkoa osoko taldeekin batera Arrasateko Dragoiako eta Bergarako Ariznoakoak lehiatu dira.

MENDIKO LASTERKETAK

Oihana Kortazarrek lehenengo lasterketan erakutsi du Salomonekoek aukeraketa ona egin dutela

Salomon Santiveri Outdoor Team taldeak –mendiko lasterketako munduko talde indartsuenak– ondo asmatu du Oihana Kortazarren fitxaketarekin. Eta egutegiko lehenengo kilometro bertikalean, Zuzenien 2012 proban, erakutsi du elgetarrak aurtengo urtea iazkoa moduan hasi duela, podiumeko lehen postuan. Elgetakoak begiz jota du Zegama-Aizkorri proba, baina Euskadiko kilometro bertikaleko txapelketa ere bikain hasi du..

FUTBOLA

Azkoitian, lider dagoen Anaitasunaren etxean jokatu du Aretxabaletak zapatu arratsaldean

Bigarren sailkatuarekiko lau puntuko aldeaz lider da ohorezko erregionalean Anaitasuna, eta zapatuan (16:30) Juanan Cruzen mutilen bisita izango dute. Mondrak eta Bergarak ere kanpoan jokatu dute, hirugarren dagoen Pasaia kontra Mondrak (zapatua, 16:30), eta Irunen, Behobiaren kontra Bergarak (zapatua, 17:00). Aloñak, berriz, etxean jokatu du domekan (16:30), Urolaren kontra.

KULTURA

'Bailara gaztea' iruditan erakutsiko du BH Klip lehiaketak aurten

- ▶ Debagoieneko ikastetxe guztietako ikaleendako zabaldu dute bideo lehiaketa deialdia
- ▶ Parte-hartzeko epea zabalik dago; martxoaren 26a da lanak aurkezteko azken eguna

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Arizmendi Ikastolak antolatuta, BH Klip lehiaketaren laugarren edizioa abian da. Hala, urtebeterako sortu zen ekimenak indarra hartu du eta aurten bailara osora zabaldu dute bideo lehiaketa. "Lan asko aurkezten dira eta ikasleak oso gustura daude; horregatik, Debagoien osoko ikastetxeetara zabaldu dugu lehiaketa, nahi duten guztiek parte har dezaten", azaldu digu Edurne Baltategik, Arizmendiko komunikazio arduradunak. "Orain dela bost urte jarri genuen abian lehiaketa. Bigarren Hezkuntzaren diseinu berria egin genuen; helburua zen ikasleei aldaketa horien berri ematea, eta horren harira sortu genuen BH Klip lehiaketa. 'Zer da BH?' galdetuta, ikasleek erantzuna iruditan eman ziguten", kontatu digu.

Lanak martxoaren 26ra arte bidaltzeko aukera dago. "Beste urteetako esperientzia ikusita, badakigu azken unean jasoko ditugula lan gehienak. Ikasleak grabazio lanetan dabiltzala ere badakigu. Oraindik interesa duten ikasleek badute aukera, baina". Lanak Ferixalekuko idazkaritzara eraman daitezke, edo *on line* zintzilikatu, www.youtube.com bideoen webgunean. Ondoren, youtubeko esteka bidali beharko da komunikazioa@arizmendikide.net helbidera.

Bizikleta

Aurtengo objektua bizikleta da. Epaimahaiak baloratuko du bizikleta objektu gisa lanean erabiltzea, nahiz eta ez den derrigorrezkoa: "Aurtengo gaia, aldiz, *Bailara gaztea* da. Horrekin lotuta, nahi duenak erabil dezake bizikleta gaiari laguntzeko", azaldu digu Baltategik. "Lizarralde Kirolak dendan eskatutako bizikleta horiz margotu du Arizmendik eta ikasleak grabazioak egiteko bizikleta erabiltzen dabilta dagoeneko".

Sariak

Guztira, hiru sari banatuko dituzte. Epaimahaiak bi sari banatuko ditu: DBHko lan onenarena eta Batxilergoko eta 20 urtera arteko parte-hartzaileen lanik onena. Hala, taldekide bakoitzak bideokamera digital bat jasoko



Arizmendiko ikasleak BH Klip lehiaketarako grabazio lanak egiten. | EDURNE BALZATEGI

ESANAK

"Debagoieneko ikastetxe guztietara zabaldu gura izan dugu aurtengo BH Klip lehiaketa"

EDURNE BALZATEGI | ARIZMENDI

du; ikuslearen sariari dagokionez, 80 euro izango dira teknologian gastatzeko. Epaimahaiaren ere berrikuntzak daude aurten; hala, Goienak, AZK-k eta Huhezik ordezkari bana izango dute; Arizmendik, aldiz, bi kide izango ditu epaimahai gisa aurten.

Goienarekin elkarlana

Lehiaketak sarean duen presentzia ere aprobeztatu gura izan du Arizmendik. "Bailara osora zabaldu dugu parte-hartzea eta Goienarekin elkarlanean aritu-

ko gara indarra eta zabalkundea emateko lehiaketari. Hala, Goienak goiena.net/blogak/bhklip/ bloga zabaldu digu; bertan, lehiaketaren oinarriak eta xehetasunak azaltzen dira", dio Baltategik.

Parte-hartzaileen lanak ere ikusgai izango dira blogean: "Asmoa da epaimahaiak aukeratzeko finalistak bertan jartzea. Ondoren, ikusleek bozkatzeko aukera izango dute eta ikusleen saria zein lani eman erabakiko dute".

Irabazleak Goienan ikusgai

Planik bai?

egunero-egunero Goiena telebistan ikusgai duzuen kultura agenda erreparatzen duen saioan, aurtengo BH Klip lehiaketako irabazleen bideoak izango dituzue ikusgai. Horrez gain, goiena.net/blogak/bhklip/ blogean bideo guztiak ikusteko aukera izango duzue. Gogoratu beharra dago epaimahaiak aukeratzeko dituen lanak bozkatzeko aukera ere izango dela.

Arizmendik, sare sozialetan presentzia izateko asmoz, Twitter eta Facebook bidez eta zabalduko ditu bideoak.

Bestalde, esan beharra dago Arizmendiko ikasleak Goienan lehiaketa iragartzeko iragarkiak egiten ari direla.

"Ikus-entzunezko arloan, ikusi dugu ikasleek zeresan handia dutela. Urteik urtera oso ideia eta lan onak ikusi ditugu. Iru-diaren arloa gustuko dute eta ideia original batekin gauza oso politak egin daitezkeela konturatu gara. Hala, bide horretatik jarraitu gura dugu lanean, eta horrelako ekimenak bukatzen", gaineratu digu Baltategik.

NEREA BASTARDO
ESKORIATZA



"Lehen aldiz hartuko dut parte lehiaketan. Tutoreak asko animatu gaitu eta gustatu egiten zaigulako parte-hartzea erabaki dut. Beste urte batzuetako lanak ikusi ditugu sarean, eta oso onak dira. Irudien mundua asko gustatzen zaigu, eta, horregatik, BH Klip lehiaketan parte hartu gura dugu. Hasi ditugu grabazioak, ea ze ateratzen den! Gogoia eta ilusioa badugu".

MIKEL ALBERDI
ARETXABALETA




"Publikoaren saria irabazi genuen lehenengo urtean; bigarrenean, berriz, epaimahaiarena. Oso balorazio ona egiten dugu, esperientzia polita bizi izan dugu eta primeran pasatu dugu! Askok ikasi dugu, gainera; niri balio izan dit aisialdirako zaletasun moduan eta lehiaketetan parte-hartzeko. Hala, parte-hartzera animatu gurako nituzke ikasleak".

MAIDER BASTARDO
ESKORIATZA




"Iru-di arloa aukeratu dugu, eta, horregatik, aurten animatu egin gara lehiaketan parte hartzeko. Ideia bat izateko besteen lanak ikusten ere ibili gara Interneten, nondik nora jo behar dugun ikusteko. Hasi gara grabatzen gure lehen irudiak; ea nolako emaitza iriteten den. Oraingo, gustatzen zaigu irudiaren arlo hau, eta horretan segitu nahi dugu".

ANDONI CALVO
ARETXABALETA



"Lehen urtean epaimahaikide izan nintzen. Uste dut ondo dagola ikasleek ere beste ikaskideen lanak baloratzea. Aurten, Goienarekin elkarlanean, oihartzuna emango zaio lehiaketari, eta gehiago zabalduko da, baita bailaran ere. Orokorrean maila handia dago; batez ere, gazte hasiberrien artean oso ideia txukunak ikusten dira. Hiru urtean oso maila ona egon da".

Debagoieneko GREMIOAK



ARROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

Bergara

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarrimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

www.goiena.net/blogak/azkarate

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa

Tel.: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

e.arrasate@euskalnet.net

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

Arrasate

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

Arrasate

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

<http://merkatua.net/argiplastik>

ION LEIHOAK

Arrasate

Debagoiena Industrialdea 11.Pab

Tel.: 943 79 11 35

Faxa: 943 773 120

<http://www.ventaion.com>

LOREZAINNTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Los Chunguitos: "Sasoï betean gaude eta zaleak gustura utziko ditugu"

Santa Marinatik, azokatik, autobusak jarri dituzte 18:00etan eta 18:30ean

MAIDER ARREGI | BERGARA

Jose eta Juan Salazar anaien rumba doinuak zuzenean entzuteko aukera izango da domekan Tartufon. Los Chunguitos taldeko kideak Madrilen harrapatu ditugu disko berriko singlearen bideoklipa grabatzen. Bergaran eskainiko duten kontzertuaz hitz egiteko, baina, tartetxo bat hartu dute. "Ilusio handia egiten digu berriro Bergarara joatea. Jam aretoan izan ginen, 2006an, eta sekulako oroitzapena dauka gure zuzeneko borobil hartaz!".

Kontatu digute Gasteiz inguruan, bereizki, Extremadurako jende asko bizi dela eta euren musikak jarraitzaile asko dituela Euskal Herrian. "Barakaldon ere, esaterako, Rock Star aretoa bete egin genuen, ikaragarria izan zen, ia 2.000 lagun batu ziren orain dela gutxi emandako kontzertuan".

"Orain, azken diskoko *El amor se escapa* singlearen bideoklipa grabatzen ari gara. Gure asmoa da Bergaran *a cappella* aurrerapentxo bat ere egitea eta gure jarraitzaileak gustura uztea. Apiril erdialdean jarriko da diskoa salgai eta primizian entzuteko aukera egongo da aurrerapentxo bat". Baina Debagoieneko jarraitzaile sutsuak lasai egon daitez-



Disko berriko promozio argakian, Juan eta Jose Salazar. | LOS CHUNGUITOS

ke; izan ere Los Chunguitosen betiko abestiak entzuteko eta dantzatzeko aukera izango dute Tartufon, *Dame veneno*, *Mami* eta *Soy un perro callejero* kantu mitikoekin.

Musika eta estilo aldaketa

Rumba eta pop ukituak dituen *Se escapa* diskoak Los Chunguitosi haize berria eta freskoa emango diola azaldu digute Salazar anaiek. "Musikan eta estiloan aldaketa ekarriko du disko honek; edozelan ere, lasai egon daitezke jarraitzaileak; izan ere, esentzian, betikoak izaten segitzen dugu".

37 urteko ibilbidea

Ia lau hamarkada agertokiz agertoki daramatzate Salazar anaiek. Hala ere, sasoi daudela kontatu digute: "Gimnasia joaten gara, etengabe musika konposatzen dihardugu... primerako sasoi gaude oraindik; gelditu ere ez gara egiten!".

"44 kontzertu ditugu eta guttira, aurten, 80 egitea da gure asmoa; www.loschunguitosonline.com webgunean duzue informazio guztia. Askorik aurreratu ezin dugun arren, Txilera joatekotan gara maiatzean, Txilen jarraitzaile asko ditugu-eta", aurreratu gura izan digute.

Kasualitatea ez den bertso saio musikatu Santa Ana Antzokian

M.A. | OÑATI

Bertsolaritza, luzaroan, eremu maskulinoan oinarritutako kultura jarduera izan da; baina duela 30 urte emakumezkoak plazetan kantatzen hasi ziren, euren bertsogintza eraikitze bidea eginda. Emakumeek publikoari komunikatzen eta transmititzen

diotena landu gabe dagoen esparrua da oraindik. "Saio eta gai aldetik ez da ezberdina izango; baina emakumeek euren ukitua emango diote saioa femeninoagoa izango delako eta publikoaren erreakzioa ere ezberdina izango delako", azaldu digu Egoitz Aizpuru gai-jartzaileak. Egungo

doinu modernoak egokituko dituzte, eta piano baten laguntzarekin plazaratu; casualitatea ez den bertso saio femeninoak bestelako bertsolaritzari bide egingo dio gaur.

Hala, ohiko bertso saio formatuari itzuli bat emateko asmoarekin, oholta gainean Uxue Alberdi, Onintza Enbeita, Ainhoa Agirreazaldegia eta Alaia Martin arituko dira, 22:30ean hasita, Santa Ana antzokian, gaur. Sarre bost euro da.



Joxe Anjel Arbelaitz. | MIREN ARREGI

Joxe Anjel Arbelaitz | Kantaldiaren antolatzailea

"Gutxitan ikusten diren taldeen kantuak entzungo dira"

Sarrerak 15 eurotan daude salgai Kutzaren webgunean; eta egunean bertan leihatilan

M.A. | ARRASATE

Sortuko dira besteak, Xabier Lete gogoan, kantaldiaren estreinaldia Arrasateko Amaian izango da martxoaren 31n.

Nolako ikuskizuna da?

Kantaldi kolektiboa da. Euskal Herriko kantari, bertsolari eta musikari onenarekin osatua. Helburua da, Euskal jendeari poza banatzea, kantaldi handia eginez; lehengo kantuekin elkarrekin kantatuz, aurreko kantariei gorazarre eginez, bertsio onak moldatuz, kantu berriak aurkeztuz eta Euskal Herria bere osotasunean irudikatuz. Euskal Herri euskalduna, gizatasun handikoa, lehen mailakoa eta bere buruaren jabea izango dena. Aurretik egindako kantaldietan oso sentazio onak izan dira, jaso ditugu zuzenean.

Iaz Xabier Leteri egindako omenaldien segida bat al da?

Handik sortutakoa da. 15 kantaldi egin genituen Euskal Herri osoan zehar hiriburu guztietan Maulen ezik; baita beste probintzietako herrietan ere.

Belaunaldi berriek aurrekoekin zelako lotura dute?

Aurreko kantariekin lotura zuzena dutela esango nuke.

Bakoitza bere estiloarekin baina, aurrekoekin kantagintzari dagokionez lotura galdu gabe.

Zeintzuk izango dira abesten?

Eñaut Elorrieta, Mikel Urdangarin, Alex Sardui, Petti, Arantxa Irazusta, Pier Paul Berzaitz eta Amets Arzallus.

Kantu propioak egingo dituzte?

Lete, Laboa eta Imanolen kantuen bertsioekin batera parte hartzen duten kantariak beren kantuak eta berriak aurkeztuko dituzte. Amets Arzallusek, bertso berriak emango ditu musikariekin batera. Gutxitan ikusten diren taldeen kantuak entzungo dira gainera.

Zergatik Arrasaten estreinaldia?

Horrela tokatu delako. Iaz Xabier Lete gogoan emanaldien amaieran pentsatu genuen ireki behar genuela emanaldia oraingo kantarien abestietara eta modu kolektiboagoan emanda. Beste batzuetan poetak ere parte hartu izan dute eta aurrerantzean ere irekia egongo da beste batzuen parte-hartzera.

Segidarik izango du?

Bai noski, Euskal Herriko herri gehienetara joan nahiko genuke aurten eta datozen urteetan. Beti berrituz. *Nik Ez dok hamairuren* antza hartzen diot.

MARTXOKO IRABAZLEAK ASTELEHENEAN

- Debagoiena ezagutzen ataleko Jakionen otarreak.
- Eureka museoa ikusteko gonbidapenak.
- *Sortuko dira besteak Xabier Lete Gogoan* kantaldirako sarrerak.
- Markeliñe taldearen *Hareazko ipuinak* antzezlanerako gonbidapenak.
- Koloore etxearen kamisetak eta izerdi-jertseak.

Zu izan zaitzke irabazleetako bat! Adi astelehenean!

goienakluba 2012

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | goienakluba.com | Urteko kuota: 50 €.



KAMISETAK ETA IZERDI-JERTSEA

Astelehenetik aurrera irabazi KOLOORE etxearen kamisetak eta izerdi-jertseak.

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!



SORTUKO DIRA BESTEAK

XABIER LETE
GOGOAN

**EÑAUT ELORRIETA
MIKEL URDANGARIN
ALEX SARDUI (GATIBU)
PIER PAUL BERZAITZ
ARANTXA IRAZUSTA
PETTI
AMETS ARZALLUS**

ARRASATE
AMAIA ANTZOKIA

Martxoak 31
19:00etan



Antolatzailea:



Laguntzaileak:



Sarrera: 15€
Salmenta: leihatila eta
www.kutxasarrerak.net



ASTEAGOIENAN



Olioa birziklatzeak daukan garrantzia, 'Ekogune' saioan

Aste honetako erreportajearen, olioaren birziklatzeak daukan garrantzia hitz egingo dugu. Horrez gain, elikagaien burujabetzaz elkarrizketa egingo diegu Assumpta Aierdiri, Emauseko kideari.

'Ekogune' Eguaztena, 22:29



Eskoriatzako alkatea izango dugu 'Harira'-n

Eskoriatzako alkate Beñat Herce izango dugu datorren martitzeneko 'Harira' saioan. Herriko kontuei buruz hitz egingo dugu alkatearekin, eta ikus-entzuleek saioan parte hartzeko aukera izango dute.

'Harira' Martitzena, 21:27

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 23

12:30 Magazinea
13:15 Gipuzkoa kultura
13:45 Mendialdean bizi
14:12 Onein
14:35 Planik bai?
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:10 Planik bai?
15:20 Bizitegia
15:50 Berbaz
16:50 Berriak
17:10 Eguraldia
17:15 Planik bai?
17:25 28.Klip
17:51 Harira
18:51 Berbetan
19:27 Planik bai?
19:37 Berriak
19:57 Eguraldia
20:02 Planik bai?
20:12 Harira
21:12 Berriak
21:32 Eguraldia
21:37 Planik bai?
21:47 AsteON
22:17 Esatea libre
23:17 Planik bai?
23:27 AsteON
23:57 Berriak

ZAPATUA, 24

10:00 Ipupomamua
10:26 28.Klip
10:56 Planik bai?
11:06 AsteON
11:36 Iruñeko Hotsak
12:01 Bizitegia
12:31 Ur eta lur
12:52 Onein
13:29 Berriak
13:44 Magazinea
14:44 Gipuzkoa kultura
15:14 Harira
16:14 Planik bai?
16:24 Berriak
16:39 Onein
17:02 Ekogune
17:32 Gipuzkoa kultura
18:02 GCC
18:35 Altzor Txokoa
19:08 Berbaz
20:08 Beranduegi.tv
20:23 Magazinea
21:23 Planik bai?
21:33 Harira
22:33 Gipuzkoa kultura
23:03 AsteON
23:33 Planik bai?
23:43 Organo kontzertua

DOMEKA, 25

10:00 GCC
10:33 Ipupomamua
11:03 Onein
11:38 Magazinea
12:38 Bizitegia
13:03 Berriak
13:18 Iruñeko Hotsak
13:43 Onein
14:18 Gipuzkoa kultura
14:48 Esatea libre
15:48 Walker
16:17 Berriak
16:32 AsteON
16:58 Gipuzkoa kultura
17:28 Berriak
17:43 Magazinea
18:43 Harira
19:43 Beranduegi.tv
19:58 Magazinea
20:58 Ekogune
21:28 Gcc
22:01 Berriak
22:16 Organo kontzertua
22:48 Bizitegia
23:18 Magazinea
00:07 Eguraldia

ASTELEHENA, 26

12:30 Magazinea
13:30 Onein
14:08 Altzor Txokoa
14:43 Berriak
15:03 Eguraldia
15:08 Ur eta lur
15:31 Goierri Creation Center
16:06 Organo kontzertua
16:38 Berriak
16:58 Eguraldia
17:03 Walker
17:33 Onein
17:55 Berbaz
18:55 Ikusmira
19:17 AsteON
19:47 Berriak
20:07 Eguraldia
20:12 Magazinea
20:57 Berriak
21:22 Eguraldia
21:27 Harmailatik
22:12 Magazinea
22:57 Harmailatik
23:42 Berriak
00:07 Eguraldia

MARTITZENA, 27

12:30 Magazinea
13:15 Harmailatik
14:00 Beranduegi.tv
14:18 AsteON
14:48 Berriak
15:08 Eguraldia
15:13 Ikusmira
15:24 Harmailatik
16:09 Onein
16:44 Berriak
17:09 Eguraldia
17:14 Bizitegia
17:44 Harmailatik
18:29 Altzor Txokoa
19:02 Goierri Creation Center
19:35 Beranduegi.tv
19:52 Berriak
20:12 Eguraldia
20:17 Magazinea
21:02 Berriak
21:22 Eguraldia
21:27 Harira
22:27 AsteON
22:57 Magazinea
23:42 Berriak

EGUAZTENA, 28

12:15 Magazinea
13:00 Harira
14:00 Beranduegi.tv
14:18 Ekogune
14:48 Berriak
15:08 Eguraldia
15:13 Gipuzkoa kultura
15:43 Onein
16:06 Berbetan
16:41 Berriak
17:01 Eguraldia
17:06 Iruñeko Hotsak
17:31 Harmailatik
18:16 Organo kontzertua
18:48 Ekogune
19:18 Walker
19:47 Berriak
20:07 Eguraldia
20:12 Magazinea
20:57 Berriak
21:22 Eguraldia
21:27 Beranduegi.tv
21:44 Magazinea
22:29 Ekogune
22:59 GCC
23:32 Berriak
23:57 Eguraldia
00:02 Planik bai?

EGUENA, 29

12:30 Magazinea
13:15 Ekogune
13:45 Ikusmira
14:07 Mendialdean bizi
14:32 Ikusmira
14:43 Berriak
15:03 Eguraldia
15:08 Bizitegia
15:38 Berbaz
16:43 Berriak
17:03 Eguraldia
17:08 Iruñeko Hotsak
17:33 Beranduegi.tv
17:51 Ikusmira
18:13 Altzor Txokoa
18:45 Ur eta lur
19:06 Ekogune
19:36 Planik bai?
19:46 Berriak
20:06 Eguraldia
20:11 Planik bai?
20:21 Magazinea
21:01 Lehiaketa
21:11 Berriak
21:36 Planik bai?
21:46 Eguraldia
21:51 Ekogune
22:17 Gipuzkoa kultura
22:47 Magazinea
23:32 Berriak
23:57 Eguraldia
00:03 Berriak
00:27 Eguraldia
00:32 Planik bai?

ARRASATE IRRATIA

Leteren omenezko kontzerturako sarrerak zozketan

Xabier Leteren omenezko kontzertua egingo da hilaren 31n Amaia antzokian. Bada, bertara joan nahi baduzue, hartu parte zozketan. Deitu 943 25 05 05era edo idatzi irratia@goiena.com-era edo [#arrasategoiena](https://twitter.com/arrasategoiena)-ra.

Enplegu batzordeburua gurean izango dugu

Aste honetan Joseba Askasibar Enplegu batzordeburua elkarrizketatuko dugu Arrasate Irratiko *Igo autobusera!* irratisaioan. Sail horretako aurrekontuak nola bideratuko dituzten azalduko dugu.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Zapatua, 24	RUIZ	Nafarroa Etorb., 1	943 79 14 09
Domeka, 25	ETXEBERRIA	Zarugalde, 42, 44	943 77 16 30
Astelehena, 26	ALBERTO AZKOAGA	Ferrieras, 1	943 79 15 15
Martitzena, 27	M.FCA. AZKOAGA	Iturriotz, 17	943 79 79 99
Eguaztena, 28	CORCUERA	Aranbarri plaza, 1	943 79 22 26
Eguena, 29	IRIZAR	Erguin, 11	943 79 12 39
Egubakoitza, 30	AMEZUA	Sta. Marina, 32	943 79 09 74

BERGARA

Zapatua, 24	ESTELLA	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Domeka, 25	ESTELLA	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Astelehena, 26	MOZOS	Iparragirre	943 76 12 15
Martitzena, 27	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza, 4	943 76 11 74
Eguaztena, 28	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Eguena, 29	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Egubakoitza, 30	ESTELLA	Matxiategi, 5	943 76 19 63

OÑATI

Zapatua, 24	ANDUAGA	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Domeka, 25	ANDUAGA	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Astelehena, 26	IGARTUA	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Martitzena, 27	IGARTUA	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Eguaztena, 28	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguena, 29	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Egubakoitza, 30	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28

ARETXABALETA / ESKORIAZKA

Zapatua, 24	ANITUA	Belorrieta, 1 (Are.)	943 08 11 43
Domeka, 25	ANITUA	Belorrieta, 1 (Are.)	943 08 11 43
Astelehena, 26	FRAILE	Herriko plaza, 10 (Are.)	943 79 21 99
Martitzena, 27	FRAILE	Herriko plaza, 10 (Are.)	943 79 21 99
Eguaztena, 28	FRAILE	Herriko plaza, 10 (Are.)	943 79 21 99
Eguena, 29	FRAILE	Herriko plaza, 10 (Are.)	943 79 21 99
Egubakoitza, 30	FRAILE	Herriko plaza, 10 (Are.)	943 79 21 99

Farmazien eskuko telefonotarako 2012 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehieneko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altitria TICek kudeatuta (www.altitria.es).

EGURALDIA ASTEBURUAN

DEBAGOIENA



Max. 22°
Min. 6°



Max. 21°
Min. 5°


ZAPATUA, 24

Udaberriko giroa izango dugu. Zerua ia erabat oskarbi egongo da egun osoan eta temperatura zertxobait igoko da.

DOMEKA, 25

Orokorrean, eguraldi onarekin segituko dugu, baina zerua pixka bat lainotu daiteke arratsaldean.

EUSKAL HERRIA



Asteburuan eguraldi atsegina izango dugu orokorrean baina goizean fresko egin dezake.

GAZTE INFORMAZIOA

UDATXOKO

Begiraleak. Udarako begirale lan eskaintzak, udalekuak, kanpaldiak, bidaia solidarioak... Plan guztiak hemen: www.gipuzkoagazteria.net/uda.

LANA

Prebentzio teknikaria. Errenterriko Udala. Kontratatzeko deialdia. Azken eguna: martxoak 23.

Hezitzaileak. Irungo udaleku irekietarako hezitzaileak behar dira. Epea: martxoaren 25a.

BEKAK

Astrofisikako prestakuntza bekak Kanarietan. Fisikako edo Matematikako azken bi ikasturteetako unibertsitateko ikasleentzat. Azken eguna izango da apirilaren 14a.

Internazionalizazioa. Eusko

Jaurilaritza. Nazioartekotzea prestatzeko 100 beka teoriko praktikoa. Epea: apirilak 16.

LEHIAKETAK

X. Kirola bideoak. Gaztetxokoak. skate, patin, mikropatin, BMX edo bestelakoekin grabatutako bideoak aurkeztu beharko dira lehiaketara, 1-3 minutu arteko iraupenekoak. Azkeneko eguna izango da maiatzaren 31.

Bideoak. OIT, Lanaren Nazioarteko Erakundea. Gaia: krisia eta gazteen lan baldintzak. 18 eta 29 urte arteko gazteei zuzenduta. Azken eguna izango da apirilaren 10a. youth@ilo.org.

Gazteak hegoaren bila lehiaketa. Medicus Mundik antolatua, 4 lagunez osatutako taldeentzat. Azkeneko eguna izango da martxoaren 29a.



INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:
Arrasateko Gazte Bulegoa: Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea: Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net

HILDAKOAK

Pilar Burillo Mujika. Aretxabaletan, martxoaren 9an. 90 urte.
Antxoni Zumelaga Azkarateaskasua. Bergaran, martxoaren 15ean. 76 urte.
Josefa Arana Ugarteburu. Arrasaten, martxoaren 16an. 90 urte.
Domingo Eriz Ormaetxea. Aramaion, martxoaren 17an. 88 urte.
Vicenta Fernandez Moyano. Arrasaten, martxoaren 17an. 86 urte.
Isabel Zuazua Urrutia. Aretxabaletan, martxoaren 18an. 95 urte.
Maria Cruz Bengoa Eskibel. Arrasaten, martxoaren 18an. 90 urte.
Dionisio Garmendia Garmendia. Arrasaten, martxoaren 19an. 81 urte.
Begoña Garikoetxea Gabilondo. Bergaran, martxoaren 19an. 77 urte.
Eufemio Perez de Labeaga Perez de Pipaon. Arrasaten, hilaren 20an. 88 urte.
Vicenta Dominguez Jimenez. Bergaran, martxoaren 20an. 74 urte.
Maria Galiñares Ugia. Arrasaten, martxoaren 21ean. 88 urte.
Nere Juaristi Agirreolea. Bergaran, martxoaren 22an.



Iñaki eta Jone Miren


Martxoaren 24an Iñaki Madina eta Jone Miren Aranburu ezkonduko dira. Koadrilaren partetik: "Egun zoragarria izan daizuela zuen ezkontza egunian. Zorionik beruena eta ondo pasau Australian!".



Sheila eta Roberto

"Neguan ezagutu zineten eta bost urte pasatu eta gero martxoaren 24an ezkonduko zarete. Familia artean ospatu zorionez eta pozez. Bizi zaitezte alai, Sheila eta Roberto, bikote".

OROIGARRIA

Nere
Juaristi Agirreolea

2012ko martxoaren 22an hil zen.

Agurrik ez, gero arte baizik.

Ana Carmona eta koadrila.
Bergaran, 2012ko martxoaren 23an.

ESKER ONA

Antxoni
Zumelaga Azkarateaskasua

Bergaran hil zen 2012ko martxoaren 15ean, 76 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2012ko martxoaren 23an.

ESKER ONA

Maria Cruz
Bengoa Eskibel

Antonio Lezetaren alarguna

2012ko martxoaren 18an hil zen, 90 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak
bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Beti gure bihotzean egongo zara.

Arrasaten, 2012ko martxoaren 23an.

URTEURRENA

Aritz
Azpiazu Bengoa

2005eko martxoaren 25ean hil zen.

Beti izango zara gurekin.

Etxekoak.
Oñatin, 2012ko martxoaren 23an.

URTEURRENA

Felix
Larrea Narbaiza

Lehen urteurreneko meza
domekan, martxoaren 25ean, 11:00etan,
Antzuolako Errukizko Amaren parrokian izango da.

Elizkizunera joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Eusebia
Guridi Guridi

Anastasio Zubiaren alarguna

Oñatin hil zen 2011ko martxoaren 23an, 88 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan, martxoaren 24an,
19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian izango da.

Beti egongo zara gure bihotzetan.

Elizkizunera joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKELA EGUBAKOITZEAN NAHIZ ASTELEHENEAN
ARGITARATZEKO, DEITU BEZPERA EGUERDIRAKO:
943 25 05 05.



ARRASATE

Goiena: Otalora lizentziaduna 31.
943 25 05 05.

BERGARA

Jardun elkarte: Errotalde jauregia
(kultura etxean).
943 76 08 19.

OÑATI

Biklon publizitate agentzia: Olakua 9.
943 78 10 65.

ARETXABALETA

Goiena: Durana 11.
943 79 86 21.
edo: Basabe poligonoa E05.
943 25 05 05.

ARAMAIO

Kintelena janaridenda: Nardeaga 11.
945 44 50 22.

ELGETA

Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2.
943 76 80 98.

ANTZUOLA:

Itzar liburu denda: Kalebarren 1.
943 76 60 62.

Babeslea:



Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

Eskelaren prezioa: 126 euro.

Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 168 euro.

Goiena: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.

ARRASATE Eskolarteko abesbatzen topaketa

Larunbatean eskolarteko abesbatzen topaketa egingo dute Uarkape frontoian. Aurten, gainera, 25. urteurrena izango da. Batzen den diruaren laurdena Lodosako Ibaialde ikastolara bidaliko dute. Eskolarteko abesbatzen topaketen sustatzaileei omenaldia egingo diete.

Bihar, zapatua, Uarkapen, 18:00etan.



ARTXIBOA



CUATRO

BERGARA Los Chunguitos

Bikote ezagunak 35 urte bete ditu eta indarrak berrituta itzuli dira agertokietara. Tartufon izango da emanaldia, eta hara joateko eta bueltatzeko autobusak izango dira. 18:00etan eta 18:30ean, Azoka plazan, Bergarako Santa Marinaran. Domekan, Tartufon, 19:30etan.

MUSIKA**BERGARA** Los Chunguitos + Adabegi

Juan eta Jose Salazar anaiak Bergarako Tartufo aretoan izango dira 35. urteurren biran. Emanaldia Zestoako Adabegi taldeak zabalduko du. Aretora joateko autobusak egongo dira.

Martxoaren 25a, domeka, Tartufo aretoan, 19:30ean.

BERGARA Udaberriko kontzertua

Bergarako orfeoia urteroko udaberriko kontzertu berezia eskainiko du. Aitor Bianek zuzenduko du taldea eta harekin batera, piano-jole lanetan, Eli Mendaratz izango da.

Martxoaren 25a, domeka, Mariaren Lagundian, 19:00etan.

ARRASATE 69 Revoluciones, Belceblues eta The Convicts

69 Revoluciones rock talde madrildarraren hegoaldeko rock doinuekin gozatzeko aukera izango dugu gaztetxean. Eurekin batera Bergarako Belceblues taldea izango da, blues doinuekin, kasu horretan. Gainera, etenaldi aurretiko agur kontzertua emango du The Convicts talde arrasatearrak. Sarrera 5 euro.

Martxoaren 24a, zapatua, Arrasateko gaztetxean, 22:30ean.

BERGARA Sant Celoni musika eskolako emanaldia

Bergarako Musika eskolak eta Sant Celoni musika eskolak elkartrukea egingo dute. Horrela, egubakoitzean etorriko dira kataluniarrak eta domekara arte egongo dira Bergaran. Kontzertua zapatuan eskainiko dute.

Martxoaren 24a, zapatua, Santa Marina parrokan, 20:00etan.

OÑATI Musika eskolako udaberriko kontzertua

Jose de Azpiazu musika eskolako haize eta triki-pandero taldeek egingo dute emanaldia.

Martxoaren 24a, zapatua, Santa Anan, 19:00etan.

ARRASATE Klak!son taldearen kontzertua

Antzuolako Klak!son taldeak *Zai at devo city* disko berria aurkeztuko du.

Martxoaren 24a, zapatua, Ekaitz tabernan, 18:00etan.

NON-ZER

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

MARTXOA 23
MARTXOA 29**BERGARA** Daniel Higieniko musikaria

Daniel Higieniko musikariak kontzertua eskainiko du Tartufo aretoan. Pianoa eta ahotsa erabiltzen ditu zuzeneko emanaldietan, beti ere, antzerki dosi handi batekin. Emanaldi honetan, *El club de los 6000 millones* diskoa aurkeztuko du. 1990 urtean abiatu zuen musika ibilbidea, eta urte hauetan guztietan 10 disko baino gehiago kaleratu ditu. Tartean, denbora izan du zuzeneko DVD lan bat grabatzeko, bai eta antzerki munduan murgiltzeko ere.

Gaur, egubakoitza, Tartufon, 23:30ean.

BERGARA Meido eta Barents taldeen emanaldia

Meido eta Barents talde bilbotarrak Bergarako Laino Skate Park aretoan izango dira zuzeneko emanaldian. Doako emanaldia.

Gaur, egubakoitza, Laino skate parkean, 22:30ean.

LEINTZ GATZAGA Didgeridoo emanaldia

Iban Nikolaireren eskutik, didgeridoo musika tresnarekin musika emanaldia.

Gaur, Inkernu tabernan, 22:30ean.

ARRASATE Arkada social eta Rat-Zinger

Arkada Social talde arrasatearrak estudioko azken lanaren aurkezpena egingo du gaztetxean. Horiekin batera Rat-Zinger talde bilbotarrak zuzeneko eskainiko du.

Martxoaren 23a, egubakoitza, Arrasateko gaztetxean, 22:00etan.

OÑATI Rockaina taldearen kontzertua

Gasteizko taldeak zuzeneko egingo du Antton tabernan.

Martxoaren 23a, egubakoitza, Antton tabernan, 20:00etan.

BERGARA Debagoieneko Musika Eskolen kontzertua

Debagoieneko Musika Eskolek urtero egiten dute kontzertu bateratua, aurten bederatzigarren urtez. Aurtengo kontzertuan akordeoia izango da protagonista. Gainera, aspaldi nahi zuten Miguel Sagastumeri, Urkiko Magoa, omenaldia eskaintzea; eta, bukatzeko, instrumentua bera, akordeoia, aldarrikatu nahi dute.

Gaur, egubakoitza, Santa Marina parrokan, 20:00etan.

ANTZERKIA**ARRASATE** 'Hareazko ipuinak'

Markeliñe taldeak *Hareazko ipuinak* antzezlan eskainiko du.

Martxoaren 25a, domeka, Amaia antzokian, 17:00ean.

BERGARA Bakarrizketa saioa

Aitor Navarro donostiarra eta Koldawer urretxuarrak bakarrizketak egingo dituzte. Sarrera borondatea izango da.

Martxoaren 23a, egubakoitza, Bergarako gaztetxean, 23:00etan.

DANTZA**DEBAGOIENA ELGETA** Herrixa dantzan.

Bi saio izango dira. 18:00etatik 19:00etara hurrendako eta gurasoendako berezia izango da. Jarraian, batez ere helduendako saioa izango da. Ohiko saioa izango da bigarren hau, baina hurrek ere hartu dezakete parte. Patxi Monteroren gidaritzapean, taldeko dantzak egingo dituzte.

Martxoaren 25a, domeka, Espaloia kafe antzokian, 18:00etan.



ARTXIBOA

BERGARA Debagoieneko musika eskolen kontzertua

Arrasate, Bergara, Oñati, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Sorluzeko musika eskolek hartuko dute parte eta ekitaldian Miguel Sagastume soinu-joleari omenaldia egingo zaio. Metal, jazz, folk eta rock doinuek, abesbatzen goxotasunekin bat egingo dute artista gazteekin.

Gaur, Santa Marinaran, 20:00etan.

OSPAKIZUNAK**BERGARA** Kantu afaria

Jardun euskara elkarteak kantu afaria antolatuta du. Urtero bezala bertan izango dituzte kantu liburuxkak eta trikitalariak. Dagoeneko txartelak eskuragarri daude Arrano, Ariznoa eta Jardun euskara elkarteetan. Txartelak 12 euro balio du Jarduneko bazkideendako eta 15 euro gainontzekoendako. 20:00etan kantu jira egingo dute San Martin plazatik hasita eta ondoren afaria Artatsen.

Martxoaren 23a, egubakoitza, Artatse elkarteetan, 20:00etan.

BERTSOLARITZA**ARAMAIO** Arabako koadrila arteko bertso txapelketaren finala

Aurten bat-bateko finalean Aiaraldeko Altubepekoak eta Aguraingo Sorginetxe koadrilek hartuko dute. Hori bat-bateko modalitatean izango da, idatzizkoan Aramaiok izango dugu ordezkaria: Aramaioko Ai Ene!. Arabako bertsozale elkarteak jai handia egin gura du.

Martxoaren 24a, zapatua, pilotalekuan, 17:30ean.

OÑATI 'Ez da kasualitatea' bertso saioa

Ainhoa Agirreazaldegia, Ointza Enbeita, Alaia Martin eta Uxue Alberdi bertsozaleak, eta Arantzazu Saiz pianoa jotzen. Egoitz Aizpuru izango da gai-jartzailea. Sarrera bost euro.

Martxoaren 23a, egubakoitza, Kiroldegian, 22:30ean.

ERAKUSKETAK**ELGETA** Zaborraren erakusketa

Debagoieneko Mankomunitateak antolatuta.

Martxoaren 26a, astelehena, Espaloia kafe antzokian, 11:00etan.

ANTZUOLA Erakusketa: 'hondakin gutxiago, ongizate gehiago'

Hondakinen sorreraren prebentzioari buruzko erakusketa. Ura, birziklatzea, zaborra, zirkutuak... erakutsiko dituzte.

Martxoaren 24an, zapatua.



ARTXIBOA

ARAMAIO Arabako koadrila arteko bertso txapelketa

Aurten bat-bateko finalean Aiaraldeko Altubepekoak eta Aguraingo Sorginetxe koadrilek hartuko dute parte. Hori bat-bateko modalitatean izango da; idatzizkoan, Aramaio izango du ordezkaria Ai Ene! taldekoekin. Zapatuan, pilotalekuan, 17:30ean.

IRTEERA

ELGETA Mendi irteera Izaspira

Kantsatzeke mendi taldeak antolatuta. 4-5 orduko iraupena. Martxoaren 25a, domeka, Ozkarbi elkarte aurretik, 08:00etan.

HITZALDIAK

ARETXABALETA, ARRASATE 'Ezagutu eta kontrolatu arterietako hipertentsioa'

Alberto Montero medikuak (barne medikuntzan espezializatua) arterietako hipertentsioaren gainean egingo du berba. Aretxabaletan martxoaren 27a, martitzena, Arkupeko Zaria aretoa, 19:00etan eta Arrasaten martxoaren 26an, astelehena, 19:00etan Kultur Aten.

ARETXABALETA Nafarroako konkistaren inguruko historia ezkutua

Konkistatik 500 urte pasa dira. Honen aurrean gazteek zer esanik badutela diote antolatzaileek eta "ezkutatu diguten" historiaren jabe egingo gara diote. Egubakoitzean 19:00etan Nafarroako konkistaren inguruko mahai ingurua egongo da. Jarraian Saratik Lesakara burutuko den Gazte Martxaren aurkezpena egingo da. Martxoaren 25ean, berriz, 09:00: Aitzorrotzeko gaztelura mendi martxa. Martxoaren 23a, egubakoitza, Udaletxe Zaharrean, 19:00etan.

BESTELAKOAK

ELGETA Bisita gidatua, lubakietara

Martxoko azken domekako bisita gidatua. Interesatuak deitu 943 718 911 telefono zenbakira edo idatzi turismo@elgeta.net e-postara. Martxoaren 25a, domeka, Espaloiko gunetik, 10:00etan.

BERGARA Gazte martxaren aurkezpena

Apirila hasieran egingo den gazte martxaren aurkezpena egingo dute. Aurten Saran hasi eta Lesakan amaituko da martxa, apirilaren 6a eta 7a bitartean, Aste Santuetan. Gaur, egubakoitza, Bergarako gaztetxean, 19:00etan.

ELGETA Inaugurazioa Espaloian

Lanak amaitu ostean, kafe antzokiaren etapa berriaren inaugurazioa egingo da. Gaur, egubakoitza, Espaloia kafe antzokian, 19:00etan.

BERGARA Udaberriko lore tailerra

Udaberria dela-eta Gorosti loradendan 14 urtera arteko umeentzat lore-dekorazio tailerra antolatu dute. Doan da eta nahi duenarentzat zabalik dago. Martxoaren 23a, egubakoitza, Gorosti loradendan, 17:30ean.

ZINEMA

BERGARA Zinekluba: Could Mountain

Domekan zineklubean *Could Mountain* filmaren proiektzioa. Martxoaren 25a, domeka Bergarako gaztetxean 18:00etan

DEIA

OÑATI Karting egitera Gasteizera

Dakar Karting gunera irteera egingo dute. Alde batetik bide-hezuntza landuko dute; eta beste alde batetik, aisialdi gidatzea. Guraso edo tutoreen baimena ezinbestekoa da eta norberak eraman beharko du janaria. Izen-emate epea hilaren 15era arte. Autobusa 09:45ean irtengo da postetxeko geltokitik. Martxoaren 24a, zapatua, 09:45ean.

OÑATI Batzar irekia landa eramukoekin

Atez atekoaren gaineko informazioa emango dute. Martxoaren 23a, egubakoitza, Kultura etxean, 19:00etan.

IKASTAROKAK

ESKORIATZA Lehen sorospeneko ikastaroa

Nola jokatu larrialdi kasu ohikoetan. Martitzenean, Kultura etxean, 18:30ean

ARETXABALETA Zirko tailerra

Kultura Sailak antolatuta zirko tailerra izango dute 7 urtetik aurrerako neska-mutikoekin. Zapatuan, Arkupen, 11:00etan.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Albert Nobbs
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Fucsia la minibruja
Zapatua: 17:00.

Arrugas
Martitzena: 20:30.

BERGARA

ZABALOTEGI

El pequeño Nicolás
Domeka: 17:00.

Betty Anne Waters
Domeka: 19:30.

OÑATI

KULTUR ETXEA

El invitado
Barikua: 22:30.
Zapatua: 22:30.

El niño de la bicicleta
Eguaztena: 20:00.

ARETXABALETA

KULTUR ETXEA

Copito de Nieve
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

Caballo de batalla
Zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

¿Y ahora dónde vamos?
Eguena: 19:30.

EIBAR

COLISEO ANTZOKIA

Blanca Nieves
Barikua: 22:30.
Domeka: 17:00.

The artist
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

COLISEO 1

The artist
Barikua: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00.

Blanca Nieves
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

COLISEO 2

Katmandú, un espejo en el cielo
Barikua: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

Blanca Nieves
Zapatua: 17:00, 19:45.

GASTEIZ

BOULEVARD

Contraband
Barikua: 15:50, 18:00, 20:15, 22:35, 00:50.

La invención de Hugo
Barikua: 16:30, 19:05.

Los idus de marzo
Barikua: 22:15.

John Carter 3D
Barikua: 16:00, 19:00, 22:00.

Viaje al centro de la tierra 2
Barikua: 16:10, 18:10.

Esto es la guerra
Barikua: 20:15, 22:20, 00:30.

Al borde del abismo

Barikua: 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 00:45.

Todos los días de mi vida
Barikua: 16:05, 18:15, 20:30, 22:45, 00:50.

Blancanieves
Barikua: 15:50, 18:00, 20:15, 22:35, 00:45.

El exótico Hotel Marigold
Barikua: 17:00, 19:30, 22:05, 00:40.

John Carter
Barikua: 16:30, 19:15.

Luces rojas
Barikua: 22:00.

Devil inside
Barikua: 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

Extraterrestre
Barikua: 16:15, 18:10, 20:10, 22:15, 00:15.

GURIDI

Redención

Barikua: 16:35, 20:25, 22:30.
Astelehena: 17:30, 20:00, 22:30.

Viaje al centro de la tierra 2
Barikua: 16:45.

La invención de Hugo
Barikua: 17:30.

The artist
Barikua: 20:00, 22:30.

Luces rojas
Barikua: 22:30.

Contraband
Barikua: 17:30, 20:00.

Los idus de marzo

Barikua: 16:45, 18:35, 20:30, 22:30.
Astelehena: 18:00, 20:15, 22:30.

Al borde del abismo
Barikua: 17:30, 20:00, 22:30.

Todos los días de mi vida
Barikua: 17:30, 20:00, 22:30.

Blanca Nieves
Barikua: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehena: 17:30, 20:00, 22:30.

FLORIDA

Intocable
Barikua: 17:30, 20:00, 22:30.

John Carter
Barikua: 17:00.
Astelehena: 17:30.

Tenemos que hablar de Kekin
Barikua: 19:45, 22:30.
Astelehena: 20:00, 22:30.

La montaña rusa
Barikua: 19:45, 22:30.
Astelehena: 20:00.

Tan fuerte, tan cerca
Barikua: 17:00, 22:30.

El exótico Hotel Marigold
Barikua: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehena: 17:30, 20:00, 22:30.

John Carter
Barikua: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehena: 17:30, 20:00, 22:30.

Las malas hierbas
Barikua: 20:15.
Zapatua: 18:00, 22:30.

Al final del tunel

Barikua: 18:00, 22:30.
Zapatua: 20:15.

Almanya, bienvenido a Alemania
Barikua: 18:00, 20:15, 22:30.

Extraterrestre
Barikua: 18:00, 20:15, 22:30.

GORBEIA

El exótico Hotel Marigold
Barikua: 17:30, 20:00, 22:30.

Blanca Nieves
Barikua: 17:45, 19:45, 20:00, 21:00, 22:15.

Blanca Nieves
Barikua: 17:45, 19:45, 20:00, 21:00, 22:15.

Al borde del abismo
Barikua: 18:00, 20:10, 22:20.

Contraband
Barikua: 18:10, 20:20, 22:30.

Devil inside
Barikua: 20:15, 22:15.

John Carter
Barikua: 17:30, 20:00, 22:30.

John Carter
Barikua: 17:30, 20:00, 22:30.

John Carter
Barikua: 17:30, 20:00, 22:30.

John Carter
Barikua: 17:30, 20:00, 22:30.

John Carter
Barikua: 17:30, 20:00, 22:30.

John Carter
Barikua: 17:30, 20:00, 22:30.

John Carter 3D

Barikua: 18:45, 21:30.
Zapatua: 16:30.

Los idus de marzo
Barikua: 20:10, 22:15.
Zapatua: 16:30.

Esto es la guerra
Barikua: 20:40, 22:40.
Zapatua: 16:30.

Luces rojas
Barikua: 20:45, 22:35.
Zapatua: 16:30.

La invención de Hugo
Barikua: 19:00, 21:45.
Zapatua: 16:30.

La invención de Hugo
Barikua: 17:40.

Chronicle
Barikua: 18:15.

Una aventura extraordinaria
Barikua: 18:30, 21:30.

War Horse
Zapatua: 15:40.

La montaña rusa
Zapatua: 15:30.

KRIKA



LAS MALAS HIERBAS ★★★★★

Zuzendaria: Alain Resnais.

Herraldea: Frantzia.

Urtea: 2009.

Aktoreak: André Dussollier, Sabien Azéma, Anne Consigny.

Iraupena: 97 minutu.

Bitxikerian murgilduta

Alain Resnais, maiatzean 90 urte beteko dituen zuzendariak, lanean jarraitzen du. Adin hori izanda, pentsa genezake egingo duen zinema arrunta eta zaharra izango dela, eta ez da horrela, inondik inora. *Las malas hierbas* filmak arriskua hartzen du, inkonformista da, bitxia eta, egia esateko, niretzat behintzat, modernoegia da. Zuzendariak oraingoan aurkezten duen lana komedia oso bitxia, arraroa eta ia surrealista da.

Kontatzen zaigun istorioak zerikusi handia du kasualitatearekin, ametsekin eta irudimenarekin.

Andre bati poltsa lapurtzen diote. Gizon batek poltsan zegoen kartera aurkitzen du eta

polizari entregatzen dio jabeari itzuli diezaioten. Gizonak emakumea ezagutu nahi du eta topo egin artean bien bizitzak nolakoak diren eta batak besteari buruz dituen burutazioak ikusiko ditugu. Filmak irudimenak bizitzan duen garrantzia aldarrikatzen du. Literaturak eta zinemak eragin handia izaten dute gizakiok dugun alderdi ameslaria bultzatzerakoan.

Eta alderdi hori bultzatzen du pertsonaien portaera bitxiak.

Las malas hierbas-en lehenengo zatia ondo dago eta pertsonaiek duten portaerarekin askotan ikusleren eskema errealistak hausten dira. Hori dela eta, interesez jarraitzen dugu zuzendariak azaltzen

diguna, baina aldi berean, istoriotik kanpo geratzeko gertu gaudela ere sentitzen dugu, eta niri behintzat horrela gertatu zitzaidan.

Filmaren azkeneko zatia oraindik eta bitxiagoa da eta azkenean zinematik apur bat galduta egotearen sentsazioarekin ateratzen gara. Beno, izango dira Resnais lanarekin gozatuko duenik, beste batzuk erdi bidean geratu gara, eta beste batzuk zentzugabekeria baten aurrean egotearen sentsazioa izango dute. Dena den, argi dago filmari buruz gauza askotxo esan daitekeela; arrunta dela izan ezik.

ANTONIO ZABALA



goiena

2012-03-23

HARPIDETZA: ARETXABAETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

BUKATZEKO

Simulatutako enpresekin gogor ikasiz

- ▶ Miguel Altuna Institutuko 27 ikasle Simulatutako Enpresen X. Azokan parte harzen ari dira
- ▶ Zikloan ikasitakoa eta gelan egindakoa zuzenean praktikatzeko aukera zabaltzen zaie horretan

MIRYAM GALILEA | BERGARA

Eguaztenean hasi eta gaur, egubakoitza, bukatuko da Enpresa Simulatuen X. Azoka. Edizio honetan, 62 enpresa simulatu parte hartzen dira, Estatu mailakoak eta atzerrikoak, baita Bergarako Miguel Altuna Institutuko ikasleak ere, GARBI SLS enpresa simulatuarekin.

Inform Fundazioak antolatzen du azoka, bi urtean behin, SEFED programaren barruan, eta sare horretan parte hartzen duten ikastetxe guztiak daude gonbidatuta.

Esperientzia

Ikastetxe bakoitzak azoka horretara bere enpresa birtuala eramaten du. Miguel Altuna Institutuaren kasuan, GARBI SLS, ikuztegi industrialak. Stand bat muntatzen dute, eta gainontzeko enpresekin harreman komertzialak lotzen dituzte, salerosketak... ikasleak protagonista nagusiak dira, erabateko autonomiaz jarduten dute.

Goi Mailako Administrazio eta Finantzak zikloaren moduluetako bat *Enpresa simulatua* dute, non administratzaile lanetan trebatzen diren, eta benetako enpresaren eragiketa admi-



Simulatutako Enpresen X. Azokan Miguel Altuna institutuko ikasleek parte hartu dute. | MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

nistratiboak egiten dituzte. Enpresa bost sailatan antolatua dago: Harrera, Salerosketak, Marketina, Kontabilitatea eta GizaBaliabideak. Ikasleek sail guztietan jarduten dute, beste moduluetan ikasitakoa praktikan jarrita.

Enpresa simulatuaren ardatz nagusia "eginez ikastea" datza; metodologia erabat praktikoa da, ohiko klase teorikoetatik urrunduta.

Azoka hori topagune bikaina da ikasleek gelatik kanpo bertan ikasitakoa praktikan jartzeko.

"Oso esperientzia produktiboa da praktiketara joan aurretik dena zuzenean ikasteko; gainera, beste eskol batzuen esperientziak eta bezero eta hornitzaileak pertsonalki ezagutzeko aukera eskaintzen dizu", dio Enara Minguez ikasleak.

AZKEN BERBA

IDOIA
ETXEBERRIA



Zenbat urte dituzu?

Erantzun errazeko galdera dirudi. Baina ba al zenekien adin kronologikoaz aparte, adin biologikoa ere badugula? Bai, bai. Ikerketa egin dute 100 urteko zahartxoekin, eta batzuek 30 urteko adin biologikoa dutela ikusi dute! Denok ez gara berdin zahartzen, hori argi dago.

Zeren arabera den? Genetika hor dago, eta norberaren bizimodua ere inportantea da (elikadura, ariketa fisikoa, kutsadura...). Estresak, adibidez, piloa zahartzen du; lanerako bizi gairela kontuan izanda, beti presaka... ejem.

Antza denez, analisi batzuk eginda, posible da bakoitzaren adin biologikoa jakitea. Baina, pentsatzen jarrita, igual hobeto ez jakitea, ala? Zer egin, esaten badizute 30 urterekin 70 urteko adin biologikoa duzula? Edo 100ekoa! Zulora zoaz zuzenean, sustoarekin.

Horrek adin psikologikoa pikutara bidal dezake. Adin psikologikoa ere badugulako, bai: bizitzaren aurrean dugun jarrera da. Norbera nola sentitzen den. Beti gazte ala adina baino lehen zahartuta, onenak emanda dituzula pentsatzen. Batzuk gazte-gazterik zahartzen dira: "Ez daukagu horrelako gauzak egiteko adinik!". Bizipozak ez dakit bizitza luzatzen duen ala ez, baina hobeto bizitzen behintzat laguntzen du.

Zenbat urte dituzu? Pufa... auskalo!

BILERA INFORMATIBOAK

Gaztelupe Martxoak 27
18:00, euskaraz

Gaztelupe Martxoak 28
18:00, gaztelaniaz

Almen Martxoak 27
18:00, euskaraz eta gaztelaniaz

BATXILERGOA

ZURE AMETSAK BIZI

www.arizmendi.eu
943 77 20 25